

**KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN  
TXOSTENA, EUSKAL ERAKUNDEEK 2019AN ZEHAR EUROPAR  
BATASUNEAN EGINDAKO JARDUKETEI BURUZ**

## **AURKIBIDEA**

### **I. ZERGATIK TXOSTEN HAU**

### **II. EUROPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA**

### **III. EUSKAL ERAKUNDEEK 2019AN ZEHAR EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUKETAK**

#### **III.1. Eskualdeetako Komitea eta Euskadiren parte-hartzea**

#### **III.2. Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordeko Komiteetan izandako parte-hartzea**

#### **III.3. Gobernu-ekintzaren ondorioz EBn egindako jarduketak:**

- 1. Bisita instituzionalak**
- 2. Euskadiko alderdi desberdinek Europan duten proiektzioa eta Euskal Autonomia Erkidegoak Europako erkidegoaren gaurkotasuneko gaietan duen posizioa**
- 3. Beste bisita eta elkarretaratze batzuk**
- 4. Konferentzia eta debateetan izandako parte-hartzea. Ekitaldi eta informazio-bileren antolakuntza eta bertaratzea**
- 5. EBren inguruko sare, organizazio eta foroetan egindako lana**
- 6. Europako Erkidegoko zuzenbideari buruzko espedienteen jakinarazpena eta komunikazioa**
- 7. Erkidegoko gaien komunikazioa eta zabalkundea**

### **IV. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZAREN ARLOAN EGINDAKO JARDUKETAK**

### **V. ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK**

#### **A. Transbertsalki jarduteko proposamenak**

#### **B. Sektorialki jarduteko proposamenak**

## **I. ZERGATIK TXOSTEN HAU**

2014ko irailean, euskal erakundeek urtean zehar Europar Batasunaren eremuan (aurrerantzean, EB) garatzen dituzten jarduketak aurkezten hasi zen Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia (KHIN) Eusko Legebiltzarrean. Hala, une hartan, txosten bat aurkeztu zion Euskal Ganberari, euskal erakundeek 2013. urtean zehar Europar Batasunean egindako jarduketa garrantzitsuenak azaltzeko. Gainera, txostenaren gainean agerraldi bat egin zen, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak berak eskatuta.

2015eko urrian, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak beste txosten bat aurkeztu zuen, 2014an zehar egindako jarduketarik garrantzitsuenak jasotzen zituena. Txosten horren gainean ere agerraldia egin zuen Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak Eusko Legebiltzarreko Kanpo Harremanetarako eta Europako Gaietarako Batzordean.

2016an, 2017an eta 2018an, 2015, 2016 eta 2017ko jarduketan txostenak egin ziren, hurrenez hurren.

Oraingo honetan, 2019. urtean zehar garatu diren jarduketa nagusiak azaltzeko egin da txostena hau.

Jarduketa zehatzei heldu aurretik, erreferentzia labur bat egingo diogu Europar Batasunak orain duen testuinguruari (2019), argiago azaldu ahal izateko euskal erakundeek EBn egindako jarduketak. Txostenaren amaieran, etorkizunerako proposamen batzuk jaso dira.

## **II. EUROPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA**

2019. urtean, Juncker Batzordea amaitutzat eman zen. Hala, 5 urteko etapa bat itxi zen. Etapa horretan, hobekuntza garrantzitsuak gertatu ziren Europako ekonomian, neurriak hartu ziren Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioa betetzeko eta Erresuma Batua EBtik ateratzeko erronka erdiesteko orduan (ebazteke zegoen), eta, gainera, Batasunaren barruan gardentasuna eta demokrazia hobetzeko ahalegina egin zen.

2019ko maiatzean, Europako hauteskundeak izan ziren, eta azken hogeita bost urteetako parte-hartzerik altuena erregistratu zuten. David Sassoli Europako Parlamentuko presidente bihurtu zen 2019ko uztailaren 3an, Charles Michel Europako Kontseiluaren Presidentziaz arduratu zen 2019ko abenduaren 1ean, Donald Tusk-en ondorengo gisa, eta Ursula von der Leyen Europako Batzordeko presidente bilakatu zen egun horretan bertan.

### **Europaren etorkizuna**

Sibiun (Errumania), maiatzaren 9an, Hogeita Zazpien Europako buruek 2019-2024 aldirako Agenda Estrategikoari buruz hausnartu zuten, eta Sibiuko Adierazpena egin zuten, Europaren etorkizunari buruzko hausnarketa-prozesuaren amaiera ezarriz.

Prozesu hori, zehazki, 2016ko irailean hasi zen, Juncker presidenteak Europarako erreformak proposatzen zituen agenda iragarri zuenean. Agenda horrek jarri zuen martxan, hain zuzen ere, hogeita zazpi estatu-kideren Europaren etorkizunari buruz hausnartzeko prozesua. Horren ondorioz, EBko buruek bi adierazpen garrantzitsu egin zituzten jarraitu behar zen bideari buruz: lehena 2016ko irailean, Bratislavan (Eslovakia) eta, bigarrena, 2017ko martxoan, Erroman (Italia).

2017ko martxoan, Erromako Itunaren 60. urtemuga baino pixka bat lehenago, Batzordeak Europaren Etorkizunari buruzko Liburu Zuria argitaratu zuen. Liburu horretan, hogeita zazpi kide dituen EBren etorkizunerako bost eszenatoki posible azaltzen dira. Liburu hori bera izan zen abiapuntua, hain zuzen ere, Europaren etorkizunari buruz eztabaida oparoa edukitzeko. Batzordeak irmoki sustatu zuen herritarren parte-hartzea, eta, horretarako, modalitate berriak sortu zituen beraien kontsultak jaso eta beraiekin hitz egiteko. Hala, eztabaida malguagoa eta elkarreragileagoa bihurtu eta internetera eraman zuen. Horrez gain, Batzordeak hainbat hausnarketa-agiri argitaratu zituen, eztabaida hori elikatzen jarraitu eta gai zehatzak sakonago aztertze aldera.

Herritarren kezkak eta iritziak entzun ondoren, Batasunak azken urteetan lortutako aurrerapenak ditu oinarrian EBrako Agenda Estrategikoak. Buruek, 2019ko ekainean

Europako Kontseiluan bilduta, ofizialki ezarri zuten agenda hori, lau lehentasun jorrazeko: herritarrak eta askatasunak babestea; oinarri ekonomiko sendo eta dinamikoa garatzea; Europa ekologikoa, bidezkoa eta soziala sortzea, klima-neutraltasuna lortzeko; eta europarren interesak eta balioak mundu-mailan sustatzea.

Batzordeko presidente berriak, Ursula von der Leyenek, Europaren etorkizunari buruzko Biltzar bat egingo zela iragarri zuen. Hartara, europarrek Batasunaren funtzionamenduari buruz zuten iritzia eman ahal izango zuten. Hainbat ekintza lirateke, 2020an martxan jarri eta bi urtez garatzekoak. Aldi horretan, EB osoko adin guztietako pertsonak bilduko lituzke, bai eta gizarte zibilaren ordezkariak, estatu-kideak eta erakunde europarrak ere.

### **Brexita**

2016ko ekainaren 23an, Erresuma Batuko herritarrek Europar Batasuna uztea erabaki zuten, erreferendum bidez —% 51,9 boto alde eta % 48,1 boto kontra—. Iparraldeko Irlandak, Eskoziak, Gibraltarrek eta Londresen gehiengoak bozkatu zuten EBn geratzearen alde.

EBren Ituneko 50. artikulua bi urteko epea ematen du, EBk eta Erresuma Batuak adostasun bat lor dezaten, bertatik modu antolatuan atera ahal izateko.

2017ko martxoaren 29an, formalki hasi zen Erresuma Batua ateratzeko prozesua, eta, hala, 2 urteko epea hasi zen.

2018ko azaroan, negoziatzaileek EBtik ateratzeko akordioaren testua adostu zuten. Bertan, Europar Batasunetik modu antolatuan irteteko oinarriko alderdiak jorratu ziren: herritarren eskubideak, Erresuma Batuaren eskubideak eta finantza-betebeharrak irteten den estatu-kide gisa, eta Irlandako irlaren barruan muga bat berrezar dadila saihesteko mekanismoa. Gainera, EBtik irteteko akordioak trantsizio-aldi bat aurreikusi zuen, akordioa indarrean jartzen zenetik 2020ko abenduaren 31ra artekoa.

EBtik irteteko akordioa EBk eta Erresuma Batuak berretsi behar zuten 2019ko martxoaren 29a baino lehen, baina Erresuma Batuaren barruko inguruabar politikoen ondorioz, bi urteko epea hainbat aldiz luzatu behar izan da. Hala, 2019ko martxoaren 21ean, aparteko Europako Kontseiluak (EBren Ituneko 50. artikulua) 2019-04-12ra arteko luzapena baimendu zuen, eta, ondoren, berriz, 2019ko apirilaren 10ean, beste luzapen bat, 2019-10-31ra arte.

Ondorioz, 2019. urtea nahasia izan da Komunen Ganberan. 2018ko azaroan akordioa lortu zenetik 2019ko irailera arte, Britainiako Legebiltzarraren hainbat saio egin ziren, EBtik irteteko akordioa berresteko asmoz. Batek ere ez zuen arrakastarik izan.

Testua berresteko zailtasunak zeudenez, 2019ko urriaren 17an Erresuma Batuko eta EBko talde negoziatzaileek (Boris Johnson eta Donald Tusk buru), EBtik irteteko akordioaren testu berri bat adostu zuten. Azken testu horrek nabarmen aldatzen zuen jatorrizko akordioa, Irlandako mugako baldintzen arloan. Halaber, Erresuma Batuaren eta EBren arteko etorkizuneko harremanei buruzko adierazpen politiko berri bat onartu zen.

Urriaren 19an, Erresuma Batuko Parlamentuak zuzenketa bat onartu zuen –322 boto alde eta 302 kontra—. Horren bidez, akordioa behin betiko berresteko erabakia atzeratu zedila eskatu zuen, harik eta hura ezarri behar zuen legedia onartzen zen arte. Zuzenketa lehen ministroa behartzen zuen EBri beste luzapen bat eskatzera. Westminsterren egondako eztabaidaren ostean, egun horretan bertan, Europako agintariek bi komunikazio jaso zituzten:

- Johnson lehen ministroak idatzi sinatu bat bidali zion Kontseiluko presidenteari, EBtik irteteko akordioaren onarpena urriaren 31 baino lehen egiteko asmoa zuela jakinarazteko eta irteteko data luzatzearen kontra zegoela adierazteko.
- EBn Erresuma Batuaren ordezkari iraunkorra zenak, bestalde, gutun erantsi bat bidali zuen EBko Kontseiluko Idazkaritza Nagusira, izenbururik eta sinadurarik gabe, Johnson lehen ministroa izanik igorle eta Tusk presidentea hartzaile, EBtik irteteko data 2020.01.31ra arte luzatu zedila eskatzeko.

Akordio berria urriaren 17an berretsi zen, aparteko Kontseilu Europarrean.

Era berean, urriaren 29an, prozedura idatziaren bidez, aho batez onartu zen beste luzapen bat ematea, 2020-01-31ra arte.

Bestalde, Boris Johnsonen Alderdi Kontserbatzaileak abenduaren 12ko hauteskunde orokorretan gehiago absolutua eskuratu ondoren, sortu berri zen parlamentu britainiarrek EBtik irteteko akordioa berretsi zuen, 2019ko abenduaren 20an.

Azkenik, EBko Parlamentuak baimena eman zuen, 2020ko urtarrilaren 29an.

Ondorioz, Erresuma Batua EBtik irten zen, 2020ko urtarrilaren 31n. Une hartan, trantsizio-aldia hasi zen, 2020ko abenduaren 31n amaituko dena. Teorian, zilegi da trantsizio-aldi hori luzatzea. Trantsizio-aldian zehar, EBko legedia aplikatu ahalko da Erresuma Batuan, eta azken horrek, era berean, aduanako batasuneko eta merkatu bakarreko kide izaten jarraituko du. Hala ere, Erresuma Batuak ezin izango du botorik eman EBko erakunde eta agentzien erabakiak hartzeko orduan.

Era berean, 2020ko urtarrilaren 31tik aurrera, negoziazioak hasiko dira Erresuma Batuaren eta EBren artean, etorkizuneko harremanari buruzko akordioa lortzeko.

Argi dago, beraz, Erresuma Batuak Europar Batasuna uzteko hartu zuen erabaki hori erabakigarria izan dela 2019an zehar gertaeren erritmoa ezartzeko orduan, bai EBn, bai, ondorioz, EBko estatu-kideetan.

Euskadin ere badu eragina halako erabaki batek, guztiontzat ondorio garrantzitsuak sortuko baititu Europar Batasunean, eremu instituzional, ekonomiko eta sozialean.

Testuinguru horretan, Brexitaren gaineko Jarraipen Batzordearen lanarekin jarraitu da (2017an sortu zen). Bertan, euskal gizarteko hainbat ordezkariak parte hartzen dute. Batzordeak osaera mistoa dauka (izaera publiko eta pribatua), eta Euskadiko administrazio publikoek nahiz ukitutako interes ekonomiko eta sozial nagusiak ordezkatzeko dituzten organismoek parte hartzen dute (merkataritza-ganberak, portuko agintaritzak eta unibertsitateak).

Erresuma Batua EBtik ateratzearen ondorioak eta horrek euskaldunen interesetan duen eragina aztertzea da Jarraipen Batzordearen helburu nagusia. Hau da, ahalik eta zehatzen ezagutzea negoziatioek zein ondorio dituzten Erresuma Batuan bizi diren euskaldunen artean eta herrialde horretan ezarrita dauden eta harekin lotura estua duten euskal agente eta enpresen artean. Halaber, Euskadin ezarrita dauden pertsona, enpresa eta agente britainiarren kasua ere aztertu nahi da.

Batzordearen lanaren bidez, aurrea hartu nahi zaie Brexitak Euskadin izan ditzakeen ondorioei, eta herrialdeko estrategia bat adostu nahi da, Erresuma Baturik gabeko EBn dauden erronkei erantzun ahal izateko. Prozesu guztian zehar, Batzordeak foro moduan funtzionatuko du, iritzia trukatzeko, eta zabalik egongo da, kideen iritzia, kezka eta iradokizunak jasotzeko.

2019an zehar, Jarraipen Batzordeak bere jarduerari eutsi dio, gertaeren erritmoaren arabera. Testuinguru honetan, Batzordearen bilerak egin dira EBtik irteteko prozeduraren une gakoetan: 2019ko urtarrilaren 31n, maiatzaren 5ean eta urriaren 22an.

Gainera, Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroen esparruan, irailaren 12an eta 13an Donostian honako ikastaro hau egin zen: *“Brexitaren ondorioak integrazio-prozesu politikoan eta haren eragin ekonomikoak”*. Bertan, askotariko hizlariak egon ziren, besteak beste hainbat Think Tanks europarretako kideak, erakunde eta enpresen ordezkariak, nahiz Brexita ikertzen duten akademiko britainiarrak. Helburu nagusiak honako hauek ziren: prozesua ikuspegi politikotik nahiz ekonomikotik aztertzea; Brexita erronka politiko gisa jorratzea, eta prozesu horrek EBko eta Erresuma Batuko herritar eta enpresentzat izango dituen ondorioak ikertzea.

### **Urte anitzeko finantza-esparrua 2021-2027**

2019an zehar, Europako erakundeak lanean aritu dira urte anitzeko hurrengo finantza-esparruaren gainean, 2021-2027rako EBko programa berriei buruzko erregelamenduen gainean akordioak hartzeko orduan aurrera egite aldera.

Batzordeak berriaz nabarmendu du urte anitzeko finantza-esparruaren bere proposamena murrizteak zailtasunak eragingo lituzkeela EBren lehentasun politikoak eta horiek babesten dituzten finantziario-programak aplikatu ahal izateko orduan. Gogoratu beharra dago bere proposamena, 2018an egindakoa, EB-27ko errenta nazional gordinaren % 1,11ko aurrekontuan oinarritzen zela.

Europako Parlamentuak, bestalde, berriaz azpimarratu du hurrengo urte anitzeko finantza-esparrua 1.324.100 milioi eurotan finkatu behar dela, 2018ko prezioetan; hau da, EB-27ko errenta nazional gordinaren % 1,3an. Parlamentuak azpimarratu duenez, ez du urte anitzeko finantza-esparrua onartuko, EBren baliabide propioen sistema erreformatzeko akordiorik ez badago (horren barruan, baliabide propio berrien otzara sartu beharko da). Gogorazi duenez, baliabide propio berriak sartzearen helburua ez da soilik errenta nazional gordinen oinarritutako kontribuzioen nagusitasuna arintzea; aitzitik, hurrengo urte anitzeko finantza-esparruan EBren gastuaren finantziario-maila egokia bermatu nahi da.

Halaber, bere esanetan, beharrezkoa da mekanismo berri bat martxan jartzea, Batasunaren aurrekontua babesteko, zuzenbide-estatua errespetatzen ez denerako edo Europar Batasunaren Ituneko 2. artikuluan aurreikusitako baloreak sistemikoki arriskuan jartzen direnerako eta horrek Batasunaren finantza-interesak babesteari edo finantza era egokian kudeatzeko printzipioei eragiteko aukera edo arriskua sortzen duenerako. Eskualdeetako Komiteak ere urte anitzeko finantza-esparrua babesten du, EB-27ren errenta nazional gordinaren % 1,3an.

Estatu-kideen posizioak aurrez aurre eta elkarrengandik oso urruti daude, oraingoz, konpromisozko irtenbide bat aurkitu ahal izateko. "Urritasunaren" taldeko estatuek (Austria, Finlandia, Holanda, Suedia eta Danimarka) erkidegoaren aurrekontua EBren errenta nazional gordinaren % 1etik beherakoa izan dadila eskatu dute. Diotenez, zergadun berrien izaera onartzen dute, baina muga batzuekin. Bestalde, Ekialdeko estatuek, Espainiarekin eta Portugalekin batera, aurrekontu handizalea eskatu dute, erkidegoak beren politika tradizionalei ematen dien babesa murriztu ez dadin (nekazaritza-politika erkideari eta kohesio-politikari, esaterako). Aurrekontu handizale batek soilik eman ahalko die jarraitutasuna politika horiei, eta, era berean, erronka handiei erantzun: klima-aldaketari, digitalizazioari, migrazioari edo aldaketa demografikoari.



### Europako Itun Berdea

2019ko abenduan, Batzordeak Europako Itun Berdea aurkeztu zuen: hazkunde-estrategia berri bat, EB gizarte ekitatibo eta oparo bihurtzeko, baliabideen erabileran eraginkorra, lehiakorra eta modernoa den ekonomiaren bidez. Testuinguru horretan, ez da berotegi-efektuko gasen isuri garbirik egongo 2050ean, eta hazkunde ekonomikoa bereizita egongo da baliabideen erabileratik.

Itun Berdeak EBren kapital naturala babestu, mantendu eta hobetzea du xede, baita herritarren osasuna eta ongizatea babestea ere, ingurumeneko ondorioen eta arriskuen aurrean. Era berean, trantsizio hori bidezkoa eta integratzailea izan behar da. Lehenetsuna eman behar dio giza dimentsioari, eta erronka handienak dituzten eskualde, sektore eta langileei erreparatu behar die. Kontuan hartuta aldaketa garrantzitsuak ekarriko dituela, herritarren partaidetza aktiboa eta trantsizio honekiko konfiantza funtsezkoak dira, politikek ondo funtzionatu dezaten eta onartuak izan daitezten. Beharrezkoa da itun berri bat ezartzea, herritarrak (beren aniztasun osoan) nazioko, eskualdeko eta tokiko agintariekin, gizarte zibilarekin eta sektore ekonomikoekin lotzeko, EBko erakunde eta kontsulta-organoekiko lankidetzan estuan.

Batzordeak 2030eko Agenda eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuak<sup>1</sup> aplikatzeko duen strategiaren eta Von der Leyen<sup>2</sup> presidentek orientazio politikoetan adierazitako gainerako lehentasunen parte da Itun Berdea. Itun Berdearen esparruan, Batzordeak koordinazio makroekonomikoaren Sei hileko Europarraren prozesua berrorientatuko du, Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuak integratzeko eta herritarren ongizatea eta iraunkortasuna politika ekonomikoaren erdigunean jartzeko, eta Garapen Iraunkorreko Helburuak EBko ekintza eta politikak egiteko erdigunean kokatzeko.

Europako Itun Berdearen berri emateko komunikazioarekin batera, estrategia hau errealitate bihurtzeko behar diren politika eta neurri gakoaren hasierako ibilbide-orria aurkeztu zuen Batzordeak. Bertan, berriaz adierazi zuen eguneratzen joango zela, beharrezko aurrera egin eta erantzun politiko desberdinak eman ahala.

### Ekonomia

2019an, ekonomia europarrak gora egin zuen, zazpigarren urtez jarraian. Joera hori 2020an eta 2021ean zehar luzatzea aurreikusten zen (COVID-19k eragindako pandemiak leher egin baino lehen). Lan-merkatuek irrimo eutsi zioten, enpleguak emaitza historikoak lortu zituen, eta langabezia-tasa % 6,3raino jaitsi zen (mendearen hasieratik mailarik baxuena). Zor publikoaren maila ere jaitsi egin zen, bosgarren urtez jarraian, gobernuek interes-tasa baxuak izan baitzituzten.

---

<sup>1</sup><https://sustainabledevelopment.un.org/post2015/transformingourworld>

<sup>2</sup> Ikus Ursula von der Leyen presidente hautetsiaren orientazio politikoak: Orientazio politikoak hurrengo Batzorderako (2019-2024) – «[Emaitza gehiago lortzeko ahalegina egiten duen Batasuna: Nire agenda Europarako](#)».

EBk hazkunde ekonomikoa, enpleguaren sorrera eta inbertsioa bultzatzeko egindako ahaleginak jasota geratu ziren Seihiako Europarraren esparruan, politika ekonomikoak koordinatzeko urteko zikloan. Ziklo hori urte amaieran hasten da, Europako Batzordeak hurrengo urterako lehentasunak ezartzen dituenean, eta hurrengo urrian amaitzen da, gobernu nazionalak beren aurrekontu-planen proiektuak aurkezten dituztenean. Proiektu horietan, Kontseiluak udan egindako gomendioak hartzen dira aintzat.

Seihilekoak egutegi argia dauka. Prestakuntza-fasean, azaroan eta abenduan, aurreko urtearen jarraipena egin eta egoera aztertzen da. Hala, Batzordeak hazkunderi buruzko etorkizuneko azterketa argitaratzen du, urtekoa, eta, bertan, EBk hurrengo urterako dituen jarduketa-lehentasunei buruzko iritzia ematen du. Halaber, hurrengo urterako alerta-mekanismoari buruzko txostena ere ematen du, estatu bakoitzeko bilakaera makroekonomikoa aztertuta. Era berean, euro-guneko politika ekonomikoari buruzko Kontseiluaren gomendioa proposatzen du, eta enpleguari buruzko baterako txostena aurkezten du, Europan gizartearen eta enpleguaren egoera aztertzeko.

Lehen fasean, EB mailan orientazio politikoak ematen dira. Martxoan, Batzordeak herrialdeen txostenak argitaratzen ditu, estatu-kide guztienak. Horietan, desoreka makroekonomikoen azterketa zorrotzak jasotzen dira. Era berean, Europako Kontseiluak orientazio politikoak egiten ditu, etorkizuneko azterketan eta EBko Kontseiluaren ondorioetan eta analisietan oinarrituta. Estatu-kideei berriaz eskatzen zaie kontuan har ditzatela herrialdeko txostenen emaitza eta orientazio horiek Egonkortasuneko edo Batasuneko Programa Nazionalak eta Erreforma Programa Nazionalak prestatzeko orduan. Lehen programa horiek, zehazki, epe ertaineko aurrekontu-estrategia laburbiltzen dute, eta, bigarrenak, bestalde, estatu-kideen egiturazko erreforma-planak laburbiltzen dituzte, hazkundera eta enplegua sustatzeko asmoz.

Bigarren fasean, estatu-kideek Egonkortasuneko edo Batasuneko Programak eta beren Erreforma Programa Nazionalak aurkezten dituzte. Programa horiek Batzordeak ebaluatzen ditu, maiatzean, eta horien gainean, herrialdeko gomendio zehatzen proiektuak aurkezten ditu. Ekainean, EBko Kontseiluak herrialdeko gomendio horiek aztertzen ditu, eta Europako Batzordeak berretsi egiten ditu. Bestalde, uztailean, EBko Kontseiluak gomendio horiek ezartzen ditu, eta estatu-kideei eskatzen die horiek aplikatu ditzatela.

Hirugarren eta azken fasean, aplikazioari buruzkoan, uztailetik urte amaieraren arte, estatu-kideek gomendioak hartzen dituzte kontuan, hurrengo urterako aurrekontu nazionalak egiteko orduan.

Hala, 2019ko otsailaren 27an, Batzordeak estatu-kideetako gizarte eta ekonomiaren egoerari buruzko urteko ebaluazioa aurkeztu zuen; 28 txosten, herrialde bakoitzeko bana. Espainiari buruzko 2019ko txostenean (desoreka makroekonomikoen

prebentzioari eta zuzenketari buruzko azterketa zorrotza egiten duen horretan), Batzordeak adierazi zuen Estatuak 2018an hazkunde ekonomiko solidoa erregistratu zuela bosgarren urtez jarraian, eta enpleguaren hazkunde azkarra erregistratzen jarraitu zuela, erronka garrantzitsuei aurre egiten jarraitzen zuen arren.

Txostenak lau aipamen positibo egin zituen Euskadiri buruz honako gai hauetan:

- eskolaurreko matrikulazioen tasa altua eta haurtzaindegietarako bertaratzea;
- goi-mailako hezkuntzako tituludunen % 55eko tasa (30 eta 34 urte bitartean) (2017); berrikuntza sendoa (eskualdeko berrikuntzaren adierazle-taula, 2017);
- I+Gn inbertsio autonomikoaren maila altua.

2019ko ekainaren 5ean, Europako Batzordeak herrialdeko gomendio zehatzak aurkeztu zituen. Espainiari honako hau agindu zion: arreta gehiago jartzea estatu-mailako inbertsio-beharrizanak identifikatu eta lehenesteko orduan, eta arreta berezia jartzea eskualde eta lurraldeetako desberdintasunetan. Gomendio horiekin batera, D Eranskina jasotzen zen, 2021-2027ko kohesio-politikaren finantziazioaren gaineko inbertsio-orientazioei buruzkoa, lau helburu oinarri hartuta: Europa adimentsuagoa; industriaren eraldaketa berritzaile eta adimentsua; Europa berdeagoa eta karbono-isuri baxuagoak dituen: trantsizio energetiko garbi eta ekitatiboa, inbertsio berdea eta urdina, ekonomia zirkularra, klima-aldaketarako egokitzapena, eta arriskuen prebentzioa; Europa konektatuagoa: mugikortasuna eta loturak eskualdean, informazioaren teknologietan eta komunikazioan; eta Europa sozialagoa, Eskubide Sozialen Zutabe Europarra aplikatuta. Era berean, Espainiarako gehiegizko defizitaren prozedura ixteko gomendatu zuen Batzordeak.

Seihileko Europarraren zikloa 2019ko abenduaren 17an hasi zen berriz, Etorkizuneko Azterketa argitaratzean.

Bestalde, 2019an, EBk inbertsioa sustatu zuen, Europarako Inbertsio Planaren bidez. Urrira arte, milioi bat enpresa txiki eta ertainek jaso zituzten planaren onurak, eta egindako inbertsioen zenbatekoa, guztira, 439.400 milioi eurotik gorakoa izan zen.

Euroaren Goi-bileran, EBko estatu- eta gobernu-buruek bi bilera egin zituzten: bat ekainean eta bestea abenduan. Horietan, buruek eurotaldearen lanei buruz eztabaidatu zuten, batasun ekonomikoa eta monetarioa sakontzeko; zehazki, euro-gunerako batasunaren eta lehiakortasunaren aurrekontu-tresnaren gainean aritu ziren, Egonkortasunaren Mekanismo Europarra eratzen duen Ituna berrikusteko proposamena kontuan hartuta. Horren arabera, izan ere, mekanismo bat ezarri ahalko litzateke, erreskate-funtsak Konponketako Funts Bakarrari finantza-babesa eman diezaion, aintzat hartuta azken hori arduratzen dela ataka larrian dauden bankuez eta bankuen batasuna indartzeaz.

### **Zerga-sistema**

Europako Batzordeak urtarrilaren 15ean komunikazio bat aurkeztu zuen, EBn zerga-sistemari buruzko erabakiak hartzeko prozedura erreformatzearen gaineko eztabaida zabaltzeko. Gaur egun, erabakiak aho batez hartu behar dira. Gehiengo kualifikatuaren bozketa-sistamarako trantsizioa proposatu zuen Batzordeak (estatu-kideen % 55ek alde bozkatzen du, hau da, praktikan, 28 estatu-kideen artetik 16k; eta proposamenaren alde dauden estatu-kideak EBko biztanle guztien artean % 65 dira gutxienez).

Ekonomia eta Finantza Gaien Ministroen Kontseiluan (ECOFIN), otsailaren 12an, ministroek ikuspegiak trukatu zituzten EBren erabakiak hartzeko prozesuan gehiengo kualifikaturanzko eraldaketa horren gainean (Europako Batzordeak proposatutakoa). Ministro asko egon ziren egungo sistema (aho bateko erabakiak) mantentzearen alde, eta beste batzuk, berriz, hobetzeko tarterik ba ote zen aztertzearen alde agertu ziren.

Bestalde, nazioarteko eremuan, G20ren eta ELGaren esparruan, lanean ari dira, ekonomia digitalizatuaren zerga-sistemak planteatzen duen erronkaren aurrean irtenbideak bilatzeko. Urtarrilean, alde askotan lan egiten jarraitzea adostu zuen ELGak, 2020an epe luzeko irtenbide bat lortzeko. Hala, zerga-oinarriaren erosioari eta onuren lekualdaketa buruzko (BEPS, ingelesezko siglen arabera) ELGA/G20 Esparru Inklusiboan parte hartzen duten 127 herrialde eta jurisdikzioek ahaleginak areagotuko dituzte, digitalizazio azkarreko ekonomia batean enpresa multinazionaleri zergak jartzeko moduari buruzko irtenbide global bat lortzeko.

Nazioarteko eztabaida berriek bi ardatz nagusi jorratuko dituzte. Lehen ardatzean, berriaz jorratuko da nola aldatu litezkeen egungo arauak –enpresa multinazionalen diru-sarrerak zergapetzeko eskubidea jurisdikzioen artean banatzen dutenak–, transferentzia-prezioen arau tradizionalak eta eskumen osoaren printzipioa barne, ekonomia mundialaren digitalizazioak eragiten dituen aldaketak kontuan har ditzaten. Horretarako, beharrezkoa izango da "lotura" arau izenekoak berriz aztertzea; hau da, enpresa batek jurisdikzio jakin batekin duen lotura aztertu behar da. Horrez gain, bertan egindako enpresa-jarduerari esleitu behar zaizkion onuren kopurua ezartzen duten arauak ikertu behar dira.

Bigarren ardatzak, bestalde, gainerako BEPS arazoak ebatziko ditu, eta interblokeoko arauen bi multzo aztertuko ditu, jurisdikzioei irtenbide bat emateko, diru-sarrerak zerga-sistematik betetzen ez duten edo zerga-sistema oso baxua duten kasuetan.

Europar Batasunari egokia iruditzen zaio EB mailan eztabaidak izatea, ECOFIN Kontseiluaren esparruan, ELGAN negoziazio-fasean dauden alderdiei buruzko iritziak partekatzeke.

### **Migrazioa**

2019an, EBk Migrazioen Agenda Europarra aplikatzen jarraitu zuen, eta urriaren 16an, Europako Batzordeak Agendaren aplikazioari buruzko egoeraren txostena argitaratu zuen. Txostenean, Agendaren esparruan egondako aurrerapen nagusiak

zerrendatzen ditu Batzordeak: EBn sarrera irregularrak 150.000ra jaitsi ziren 2018an. Azken bost urteetako zenbatekorik baxuena izan zen. Gai horretan, funtsezkoa izan da EB-Turkia Adierazpena ezartzea, 2016ko martxokoa; ia 760.000 erreskate egin dira itsasoan, eta 23.000 erreskatetik gora Nigeriako basamortuan, 2015etik; EBk babes sendoa eta azkarra eman die presio gehien jasaten duten estatu-kideei: puntu kritikoak Grezian eta Italian; EBren barne-finantziazioa egon da migrazioarako eta mugetarako, eta Italiatik eta Grezianetik etorriko 34.700 pertsona birkokatu dira Europar Batasunaren barruan. Era berean, 2018ko udaz geroztik, 1.103 birkokatu dira, borondatezko birkokatzeen arabera; nazioarteko babes behar duten pertsonak estatu-kideetan birfinkatzeko legezko bidea sustatu du EBk. Emaiza: ia 63.000 birfinkatze 2015etik; hirugarren herrialdeetan milioika errefuxiatuk jaso dituzte EBren babes eta laguntza: Errefuxiatuentzako mekanismoa Turkian, EBko Eskualdeko Funtz Fiduziariora Siriako krisiari erantzuteko, eta EBren Funtz Fiduziariora Afrikarako; ibilbide guztietan legez kanpoko trafiko-sareak desegiteko neurriak; indarrean daude berriz onartzeko akordio formalak edo itzultzeko eta berriz onartzeko mekanismo praktikoak, jatorrizko eta igarobideko 23 herrialderekin.

Mendebaldeko Mediterraneoko eta Atlantikoko ibilbideari buruz, txostenak honako hau nabarmentzen du: 2018an Espainian EBra iritsitako etorrera irregularren kopururik altuena (ia 64.300) erregistratu zen bitartean, 2019ko otsailetik hileroko etorrerak nabarmen murriztu dira. 2019ko urriaren hasierarako, Espainiara egindako etorreren kopuru guztia 23.600 ingurukoa zen, hau da, 2018ko aldi berarekin alderatuta, % 47ko jaitsiera egon zen. Mugak kudeatzeko eta migrazio irregularren aurka borrokatzeko orduan, EBren eta Marokoren arteko harremanetarako inbertsioa faktore garrantzitsua izan da; bereziki, EBren finantza-babes handia. Horrek Marokoko Gobernuari lagundu egin dio, mugako kontrolak indartzen eta migratzaileen trafikatzailen kontra borroka egiten.

2019ko urrira arte, Espainiara iristen diren migratzaile irregularren jatorrizko herrialde nagusia Maroko da (guztien artean % 30); ondoren, Aljeria, Ginea, Mali eta Boli Kosta. Iristen diren migratzaile irregular gehienak Marokotik irteten dira. Hala ere, Aljeriatik egiten diren irteeretan igoera txiki bat egon da.

Era berean, irailaren 23an “goi-bilkura txiki” batean bildu ziren Frantzia, Alemania, Malta eta Italiako barne-ministroak, EBko txandako presidentziaren (Finlandia) partaidetzarekin, Migrazioeko komisario europarra ere bertan zela (Dimitris Avramopoulos). Erdialdeko mediterraneoan migratzaileak banatzeko orduan aurreikus daitekeen egiturazko mekanismo bat ezartzeko adostu zuten ministroek. Funtzionamendua honako hau litzateke: Erroma eta La Valetak baimena emango lukete beren kostaldeetan berehala ontziratu daitezkeen migratzaileak dakartzaten ontziak. Behin lurrean daudenean, mekanismo honen parte izateko borondatea adierazi duten estatu-kideen artean banatuko liriateke migratzaileak. Birkokatutako pertsona bakoitzeko 6.000 euro jasoko liriateke.

Hala ere, Barne Gaien eta Justiziaren EBko Ministroen Kontseiluan, urriaren 8an, ez zen adostasun bat lortu migratzaileak ontziratatu eta birkokatzeko aldi baterako mekanismo solidario honen gainean, Alemaniak, Frantziak, Italiak eta Maltak adostutakoari jarraikiz. Hala, oraindik ere beharrezkoa da Italia eta Maltako kostaldeetara iristen den erreskate-ontzi bakoitzerako argitzea ea nor dagoen prest zein errefuxiatu hartzeko.

Abenduaren 2an, berriz ere bildu ziren migrazioko ministroak Barne Gaien eta Justiziaren Kontseiluan. Horst Seehofer barne-ministro alemaniarrek “non-paper” delako bat aurkeztu zuen (eztabairako agiria soilik), asilo-eskatzaileak automatikoki birkokatzeko plan bati buruz. Eskatzaileen eskariak EBren kanpo-mugetan aztertuko lirateke. Bestalde, Greziako ministroak “concept paper” delakoa aurkeztu zuen (hausnarketa-agiria). Bertan, itzulera-mekanismo europar bat proposatzen da, itzultzeko erabakiak eraginkortasunez eta azkar bete ahal izateko. Proposamen berri horiek ongi etorriak zirela adierazi zuen Europako Batzordeak. Izan ere, estatu-kide askok jarraitu beharreko bidea aurkitzeko orduan posizio berriak hartu nahi dituztela erakusten du.

Bileraren ondoren, Margaritis Schinas Europako Batzordeko presidenteordeak adierazi zuen Migrazioari eta Asiloari buruzko Itun berria dela Batzorde berriaren lehentasun garrantzitsuenetako bat (2019-2024). Migrazioaren gainean adostasuna lortzeko egiten du lan Batzordeak. Hiriburuen, beren parlamentuen eta erkidegoen artean zubiak eraiki nahi dira, eta irtenbide eraginkor eta egiazkoak garatu, gizadia, elkartasuna eta tolerantzia bezalako balioetan oinarrituta. Elkartasuna izango da Ituneko elementu gakoetako bat. Izan ere, ez da bidezkoa lehen lehen estatuek soilik izatea neurrigabeko karga asilo-prozedura izapidetzeko orduan, Dublineko legediaren arabera.

### **Enplegua eta gizarte-politika**

Eskubide Sozialen Zutabe Europarra Sei hileko Europarraren funtsezko alderdi bihurtu da, eta, haren laguntzarekin, gizarte-politikako neurri ugari sustatu dira bizitza profesionala eta bizitza pribatua, lan-baldintza gardenak eta aurreikusteko modukoak eta mugaz gaindiko bidezko mugikortasuna indartze aldera. Estatu-kideek adostutako ardatz horrek gizarte-politikako hogeitaz printzipio hartzen ditu barne, hiru kategoriatan egituratuta, honako gai hauetan: lan-merkatuak sarbidea eta aukera-berdintasuna, bidezko lan-baldintzak, eta gizarte-inklusio eta babesa.

Abuztuaren 2an, 2019/1158 Zuzentaraua jarri zen indarrean, gurasoen eta zaintzaileen bizitza profesionala eta familiarra uztartzeari buruzkoa. EBko estatu-kideek xedapenak beren legedi nazionaletara eraman beharko dituzte, gehienez ere 2022ko abuztuaren 2rako.

Zuzentzarauak gutxienez honako baldintza hauek ezartzen ditu:



- Aitatasun-baimena: aitek edo bigarren gurasoek gutxienez hamar laneguneko baimena hartu ahal izango dute beren haurra jaiotzen den dataren inguruan, ordainduta, gaur egun EBren eremuan amatasun-baimenerako ezarrita dagoen maila berean (Kontseiluaren 92/85/EEE Zuzentarauaren 11. artikulua arabera). Aitatasun-baimena jasotzeko eskubideaz baliatzeko, ez da nahitaezkoa izango epe jakin batez lanean aritu behar izatea edo aldi jakin bateko antzintasuna izatea. Hala ere, aitatasun-baimena ordaintzeko, nahitaezkoa izan daiteke aurretik sei hilabetez lanean aritu behar izatea. Guraso-baimenak ezartzeko sistema abantailatsuenak dituzten estatu-kideek indarrean eduki ahal izango dituzte beren xedapen nazionalak.
- Guraso-baimena: lau hilabeteko baimena ematen duen eskubide indibiduala. Hilabete horietako bi ezin dira guraso batetik bestera pasatu, eta ordainduta egongo dira. Ordainsariaren maila eta haurraren adinaren muga estatu-kideek ezarriko dituzte.
- Zaintzaileentzako baimena: kontzeptu berri bat, EB mailan, arrazoi mediko larrien ondorioz zaintza edo laguntza jasotzeko beharrezana duten senideez arduratzen diren langileentzat. Zaintzaileek urtean bost lanegun hartu ahal izango dituzte. Estatu-kideek beste erreferentzia-aldi bat erabili ahal izango dute, baimenak kasuan kasu esleitu ahalko dituzte, eta baldintza osagarriak ezarri, eskubide horretaz baliatzeko.
- Lan malgurako formulak: gurasoek formula horiek eskatzeko duten eskubidea lan egiten duten zaintzaileei ere aplikatuko zaie.

Uztailaren 4an, Europako Batzordeak Europako gizartearen eta enpleguaren bilakaerari buruzko bere azterketaren 2019ko edizioa argitaratu zuen, iraunkortasunari bereziki erreparatuta. Klima-aldaketaren aurkako borrokak hazkundera eta enplegua sustatu ditzakeela nabarmentzen du azterketa horrek.

Europako gizartearen eta enpleguaren bilakaerari buruzko azterketaren arabera, karbonoan neutroa den ekonomia bateranzko trantsizioak enpleguen kopurua areagotuko du, eta eragina izango du lan-merkatuaren egiturari, lanpostuen banaketari, eta behar diren gaitasunetan. 2030. urterako, trantsizioan 1,2 milioi postu gehiago egotea espero da EBn, lehendik aurreikusitako 12 milioi enplegu berriez gain. Automatizazioaren eta digitalizazioaren ondorioz enpleguak gaur egun duen polarizazioa arindu lezake trantsizioak, lanpostuak sortuz are soldaten eta gaitasunen eskalako bitarteko eremuan, batez ere eskulangintzaren eta eraikuntzaren sektoreetan.

Orokorrago begiratuta, azterketak berriaz adierazten du hazkunde ekonomikoaren bidean jarraitzeko EBk inbertitu egin behar duela pertsonen gaitasunetan eta berrikuntzan. Izan ere, gaitasunen, kualifikazioen eta helduen prestakuntza formalaren gaineko inbertsioek sustatu egiten dituzte langileen enplegarritasuna, soldataren hazkundera eta enpresen lehiakortasuna. Europako gizartearen eta enpleguaren bilakaerari buruzko azterketaren arabera, halaber, gizarte-inbertsioek (esaterako,

hautzaindegi-zerbitzuak eta haur-hezkuntza eskuratzeko aukera) areagotu egiten dituzte pertsonen ongizatea eta produktibitatea. Era berean, etxebizitza eskuragarri eta egokiak aukera ematen die europarrei lan-merkatuan beren gaitasuna gara dezaten eta gizartean parte har dezaten.

Lan-mugikortasunean, uztailean Europako Lan Agintaritza sortu zen. Urrian hasi zen Agintaritza hori bere jarduketekin. Estatu-kide guztietan lan-mugikortasunaren gaineko arauak betetzen direla bermatzea da bere eginkizuna. Horretarako, herritarrei eta enpresei informazioa emango die beren eskubide eta betebeharrei buruz beste herrialde batean bizi, lan egin edo aritzen badira, estatu-kideetako agintaritzen arteko lankidetzak indartuko du, eta bitartekaritza eskainiko du, mugaz gaindiko auzirik badago irtenbideak aurkitu ahal izateko. Agintaritzak Bratislavan izango du egoitza, eta gehienez ere 2024an gaitasun operatibo osoa edukitzea espero da.

Gainera, Europako Batzordeko presidente berriak, Ursula von der Leyenek, uztailean aurkeztu zituen hurrengo Europako Batzordeko orientazio politikoak (2019-2024). Batzordearen lehentasuneko bat pertsonen alde funtzionatzen duen ekonomia bat sortzea da, eta, dimentsio horretan lan egingo du, honako hauek lortzeko: Eskubide Sozialen Zutabe Europarra osorik aplikatzeko ekintza-plana; langile guztiek gutxieneko bidezko soldata dutela bermatzeko tresna juridikoa; langabeziaren ziozko prestazioen aseguru-sistema europarra; Haurren Berme Europarra; bizitza pertsonala eta bizitza profesionala uztartzeko zuzentarauaren aplikazio osoa; eta diskriminazioaren aurkako legedi berria.

Gizon eta emakumeen berdintasunean, Batzordeak honako hauek aurkeztuko ditu: Generoaren Estrategia Europar berria; soldata-gardentasuneko neurri lotesleak; genero-oreka enpresetako administrazio-kontseiluetan; horrez gainera, emakumeen aurkako indarkeria gehituko du Itunean zehaztutako Batasunaren eremuko delituen zerrendan.

### **Merkataritza-politika**

Ameriketako Estatu Batuekin lotuta, Europako Batasunak urtarrilaren 18an bi zuzentarau-proposamen ezarri zituen, bere merkataritza-negoiazioetarako: bat industria-produktuetarako muga-zergak ezabatzeari buruzkoa, eta bestea adostasunaren ebaluazioari buruzkoa. Proposamen horiek bi akordio posible jorratzen dituzte Ameriketako Estatu Batuekin: merkataritzako akordio bat, industria-produktuei aplikatutako muga-zergak ezabatzeko helburu sendoa duena, nekazaritzako produktuak salbuetsita; eta bigarren akordioa, adostasunaren ebaluazioari buruzkoa, muga-zergakoak ez diren oztopoak ezabatzeko helburua jorratzen lagunduko duena,



enpresei erraztasunak emanez beren produktuek Atlantikoaren bi aldeetako baldintza teknikoak betetzen dituztela frogatzeko orduan.

Lehen akordioan industria-sektore guztiak sartzen dira, tartean arrantza-produktuak eta automobilak. Akordio batera iristeko zailtasun handiak lituzketen eremuak ez dira bertan sartu, besteak beste nekazaritzako produktuak, adierazpen geografikoak, zerbitzu publikoak eta jabetza intelektuala. Bigarren akordioa teknikoa da, eta produktuak kontsumitzaileentzat seguruak izan daitezela ziurtatzea du helburu.

EBren Kontseiluak apirilaren 24an onartu zituen bi aginduak, Batzordeak negoziazioak izan ditzan Ameriketako Estatu Batuekin bi akordio horiei buruz. Aginduak bermatu egiten du, halaber, EBk ez dituela AEBrekin negoziazioak amaituko, baldin eta gaur egun EBko altzairu eta aluminioaren esportazioetan aplikatzen diren muga-zergek indarrean jarraitzen badute. Halaber, aginduaren arabera, EBk alde bakarrez eten ahalko ditu negoziazioak, baldin eta AEBk merkataritza-muga berriak hartzen baditu produktu europarraren kontra.

Era berean, martxoaren 12an, Europako Batzordeak eta Kanpo Gaietarako eta Segurtasun Politikarako EBko Goi Mailako Ordezkaritzak komunikazio bateratu bat aurkeztu zuten, EB-Txina harremanak ebaluatzeko eta horrek sortzen dituen aukerak eta erronkak jorrazteko. Hor, halaber, bost ekintza zehatz planteatu zituzten. Azaroan, adierazpen geografikoen babesari buruzko negoziazioak amaitu ziren.

EBren eta hirugarren herrialdeen artean martxan diren merkataritza-negoziazioen prozesuetan, Japoniarekiko merkatu librearen akordioa 2019ko otsailaren 1ean sartu zen indarrean, eta Singapurrekiko merkataritza librearen akordio zatitua 2019ko azaroaren 21ean. Vietnamekin, merkataritza librearen akordio zatitua 2019ko ekainaren 30ean sinatu zen. Era berean, ekainaren 28an merkataritza-akordio bati buruzko negoziazioak amaitu ziren. Akordio hori elkarteko akordioan txertatuko zen, Hego Amerikako merkataritza-blokearekin (Argentina, Brasil, Paraguai eta Uruguai). Era berean, EBk aurrera egin zuen Australia, Txile eta Zelanda Berriarekiko merkataritza-negoziazioetan.

### **Ikerketa eta berrikuntza**

Ikerketaren eta berrikuntzaren arloan, 2019an Horizon Europe ekimenean Ikerketa eta Berrikuntzaren 9. Esparru Programa (2021-2027) prestatzeko lanak gailendu dira.

Martxoan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak akordio politiko komun bat lortu zuten, Horizon Europeen proposameneko elementu gakoei buruz. Akordioek, aurrekontuei, sinergieiei eta hirugarren herrialdeekiko elkarreei erreparatuz gero, egiteke jarraitzen dute, eta urte anitzeko finantza-esparruaren negoziazioen menpe egongo dira.

Ekainean, Europako Batzordeak kontsulta publiko bat egin zuen, diseinu bateratuko prozesu baten barruan, programari forma emateko eta Horizon Europeen lehen lau

urteetako plan estrategikoa prestatzeko lehen tasunak zehazteko. Jasotako ekarpenekin, «Horizon Europeko lehen Plan Estrategikorako orientazioak» agiria prestatu zen. Agiri horretan, 6.800 inkestatu baino gehiagoren eta European Research and Innovation Days-eko ia 400 partaideren iritziak eta ideiak jasotzen dira, bai eta ikerketa eta berrikuntzaren ekoizleekin, herritarrekin, elkarteekin, Europako Parlamentuko kideekin, estatu-kideen ordezkariekin eta Europako Batzordeko langileekin egindako trukeak ere. Agiri honen azken bertsioa urrian argitaratu zen.

Horizon Europek Horizon 2020ren aldean izan duen bilakaera egitura berri bategan islatuko da. Horizon Europek Horizon 2020ren hiru ardatzak eusten ditu (zientzia irekia; munduko erronkak eta industria-lehiakortasuna; eta berrikuntza irekia), eta berrikuntza batzuk sartzen ditu, besteak beste Berrikuntzaren Kontseilu Europarra, ikerketa-misioak eta elkarteak. Aldaketa horiek aukera emango diote programari, eragin eta irekiera handiagoa izateko.

Zehazki:

- Misioak eta elkarteak dira Horizon Europek programa ezartzeko dituen tresnak. Misioak berrikuntza dira, eta elkarteak, kasu honetan, birformulatu egin dira, Horizon European esperientzia kontuan hartuta.
- Misioa diziplinaz gaindiko ekintzen multzoa da, gizartean eragina duen helburu ausart eta zenbagarri bat lortzeko asmoa duena. Misioek jorratzen dituzten arloak bost dira: (1) Klima-aldaketarako egokitzapena, gizarte-eraldaketa barne; (2) Minbizia; (3) Ozeano osasuntsuak, itsasoak, kostako urak eta kontinentekoak; (4) Hiri adimentsuak eta klimatikoki neutroak; (5) Lurzoruaren eta janariaren kalitatea.
- Elkarteak sektore publiko eta pribatua biltzen dituzten ekimenak dira (industria, unibertsitatea eta ikerketa-erakundeak toki-, eskualde-, nazio- eta nazioarte-mailan), elkarren artean garatzeko garapenerako eta berrikuntzarako jarduketak. Elkarteak izan daitezke (1) elkarrekin programatuak, (2) elkarrekin finantzatuak edo (3) instituzionalizatuak.
- Berrikuntzaren Kontseilu Europarra, bestalde, leihatila bakarra da, ahalmen handiena eta etorkizun oparoena duten puntako teknologiak laborategitik merkatura eramanez ahal izateko.

Aipatzekoa da Horizon Europek 2021-2027 aldian 100.000 enplegu berrira arte sortzea espero dela.

### **Klima-aldaketa eta energia**

Klima-aldaketan, Europako Itun Berdea (European Green Deal izenez ere ezaguna) izango da Europako Batzordearen agendan denbora gehien iraungo duen ibilbide-orria, ziur asko.

Batzordeko presidente berriak, Ursula von der Leyenek, 2019ko abenduan hasi zuen ofizialki bere agintaritzan, hazkunde-estrategia berri eta handizale honekin: Europako Itun Berdea. Green Deal delakoak estrategia berri bat ezartzen du, 2050. urterako

Europa klimatikoki neutroa den lehen kontinentea izan dadin. Ingurumeneko eta klimako arazo handienak jorratzen ditu, eta epe luzeko ikuspegia hartzen, adierazpen geopolitikoak kontuan hartuta. Plan hori 2020an zehar joango da gauzatzeko. Barne hartzen dituen berrikuntza nagusien artean, nabarmentzekoak dira Klimaren Lege Europarra ezarri izana (2020an argitaratuko da), eta Bidezko Trantsiziorako Mekanismoa hartu izana, trantsizio ekologikoan eragin handiena jasan duten eskualde eta sektoreei laguntzeko. Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuak ezartzeko Europako Batzordearen estrategiaren parte da, halaber, itun hori.

Horrek guztiak agerian uzten du klima-aldaketaren aurka borrokatzeko premia dagoeneko nabaria dela gizarte europarretan. 2019ko udazkeneko Eurobarometroaren arabera, Europako herritarren % 93k uste du klima-aldaketa «arazo larria» dela eta % 79k ikusten du «arazo oso larri» gisa. Are gehiago, klima-aldaketa nazioarteko terrorismoa baino mehatxu handiagozat jotzen da. Izan ere, europarren % 32k uste du lehentasun nagusia dela Europako erkidegoko erakunde hurrengo legealdian (2020).

Lehendik ere, 2019an zehar, 2050era bitartean EB klimatikoki neutroa lortzeko erakunde-konpromisoa bidea zabaltzen ibili da. Abenduan, Europako Kontseiluak 2050. urtera bitartean EB klimatikoki neutroa lortzeko helburua babestu zuen, Parisko Akordioko helburuekin bat. Fase horretan, estatu-kide batek, Poloniak, ez zuen hitz eman helburu hori aplikatu zuenik. Ondorioz, 2020an zehar berriz ere jorratu beharko da gaia.

Edonola ere, azken alderdi hori ez da eragozpen izan Inbertsioen Europako Bankuarentzat. Izan ere, 2021eko amaieratik aurrera erregai fosilekin (gas naturala barne) lotutako proiektuak finantzatzeari utziko diola iragarri du.

2019an ere, Europako Parlamentuak ebazpen bat ezarri zuen, Europan eta maila globalean “klimaren eta ingurumenaren larrialdia” aitortzeko. Testu horretan, halaber, Europako Batzordeari berriaz eskatu zitzaion berma zezala lege- eta aurrekontu-proposamen guztietan kontuan hartuko zela beroketa globala gehienez ere 1,5 gradu zentigradutara mugatzeko helburua.

Energiaren arloan, trantsizio energetikoak leku estrategikoa dauka diskurtso europarretan. 2019-2024rako EBren Agenda Estrategikoak, Europako Kontseiluak urte honetan hartutakoak, klimatikoki neutroa, ekologikoa, bidezkoa eta soziala den Europa eraikitzekeo premia nagusia nabarmentzen du. Honako hau gehitzen du: “Trantsizio klimatikoak benetako aukera eskainiko digu geure burua modernizatu eta, era berean, ekonomia ekologikoaren munduko abangoardian kokatzeko. (...) EBk energia berriztagarrietarako trantsizioa bizkortuko du, eraginkortasun energetikoa areagotuko du, kanpoko iturriekiko mendetasuna murriztuko du, hornidura-iturriak areagotuko ditu, eta etorkizuneko mugikortasunerako irtenbideetan inbertituko du.”

Bestalde, 2019an zehar EBk beste neurri batzuk ere ezarri zituen, besteak beste 2019/631 Erregelamendua (EB), turismo berrien eta merkataritzako ibilgailu arin berrien CO2 isuriari gaineko jokabide-arauak ezartzen dituena. Erregelamendu honen helburua da, izan ere, 2030etik aurrera turismo berriek, batez beste, % 37,5 CO2 gutxiago isurtzea eta furgoneta berriek, batez beste, % 31 CO2 gutxiago isurtzea, 2021eko mailekin alderatuta. 2025 eta 2029 artean, bai turismoek bai furgonetek % 15 CO2 gutxiago isuri beharko dute. EBko automobil-parkerako helburu orokorrak dira.

Gasari buruzko zuzentarauaren aldaketa bat ere ezarri zen.

Bestalde, Europar Batasunak bere politika energetikoaren araudi-esparruaren berrikuspena osatu zuen. Hala, energia garbirako trantsizioa egiteko arauko aurrebaldintzak zehaztu ziren, Parisko Akordioan hartutako konpromisoekin bat. «Energia garbia europar guztientzat» paketeko gainerako lau espediente legegileak onartu ziren. Honako hauek, zehazki: (1) Elektrizitateari buruzko erregelamendua eta zuzentzarua, EBko merkatu elektrikoa interkonektatuagoa, malguagoa eta kontsumitzailean zentratuagoa izan dadin; (2) Sektore elektrikoko arriskuen aurrean prestatzeko erregelamendua, krisi-egoeretan hornidura elektrikoaren segurtasuna bermatuko duena, eta; (3) ACERen (Energia Erregulatuzaileen Lankidetzaren Agentzia) funtzionamenduaren eta funtzioaren azterketa.

Azkenik, Madrilen egindako COP25ean ez zen lortu alde guztiak ados jartzea Parisko akordioaren 6. artikulua gainean. Artikulu horrek karbonoen merkatuak ditu mintzagai, eta herrialdeen artean isuri-kopuruak trukatzeko aukera arautzen du. Aitzitik, hitzordu hartan, Anbizio Klimatikoaren Aliantzako 84 herrialdek erantzun zioten hurrengo hamarkadan isuriak murrizteko premia beharri, eta berariaz gogoratu zuten 2020rako Klima Aldaketaren Aurkako Ekintzako Plan Orokor Nazionalak hobetzeko lanean jarraitzeko asmoa dutela.

### **Industria-politika**

Europako Batzordeak, 2018. urtearen hasieran, "Industria 2030" Goi Mailako Mahai-inguruaren lehen bilera antolatu zuen, industria europarrerako ikuspegi berri bat antolatu asmoz. Foro horretan, ia bi urtez, industria-politikaren gaineko hogeita bat aditu bildu dira (tartean, SPRIko –Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako– Ekimen Estrategikoen arduraduna).

2019an, "Industria 2030" Goi Mailako Mahai-inguruaren gomendioak jasotzen zituen txostena argitaratu zen. Horren arabera, industria europarrak bere abantaila lehiakorra eraiki behar du, puntako teknologien, ingurumenarekiko errespetuaren, pertsonen gaineko inbertsioaren, eta aliantza europar eta global adimentsuen bidez.

Bestalde, 2018an Batzordeak Europako Interes Komuneko Proiektu Garrantzitsuen Foro Estrategikoa ezarri zuen, industriaren eta estatu-kideen ordezkariak Europarako estrategikoki garrantzitsuak diren eremuak zehatz ditzaten.

2019an, Foru Estrategiko horrek bere txostena argitaratu zuen. Bertan, lehentasunezko sei eremu jasotzen ziren industria europarrerako, eta eremu horietan nazioz gaindiko etorkizuneko inbertsioetarako gomendioak aurkezten ziren. Hona hemen zeintzuk ziren lehentasunezko sei eremu horiek:

- Zibersegurtasuna
- Ibilgailu garbiak, konektatuak eta autonomoak
- Osasun adimentsua
- CO2 isuri baxuko industria
- Hidrogeno-sistemak eta teknologiak
- Gauzen interneta, industriara aplikatuta

Europako Interes Komuneko Proiektu Garrantzitsuak proiektu berritzaileak dira, eta agintaritza publikoen eta hainbat estatu-kidetako industriaren nazioz gaindiko inbertsioak behar dituzte. Europako Interes Komuneko Proiektu Garrantzitsu horiek sustatzeko, Europako Batzordeak Estatuko laguntzen gaineko araudia malgutu du, estatu-kideen eta enpresen baterako ahaleginek ondorio positiboak izan ditzaten Europa osoan.

Era berean, 2019. urtearen amaieran, Batzordeko presidente berriak, Ursula Von der Leyenek, 2019-2024 aldirako orientazio politikoak aurkeztu zituen. Horietan, Europako Itun Berdearen barruan industria-politikaren estrategia berritua aurkezteko konpromisoa hartzen du.

### **Merkatu Bakar Digitala**

2019. urtean, bultzada eman zaio ekonomia eta gizarte europarraren eraldaketa digitalari; zehazki, konektibitatea hobetzeko, inguru digitaleko eskubideak babesteko, sareen segurtasuna bermatzeko eta teknologia berrien alde apustu egiteko orduan.

Konektibitatearen arloan, estatu-kideen arteko deien eta testu-mezuen kostua murriztu egin zen 2019an, gehieneko prezioa ezartzen zuten arau berriak martxan jartzeari esker.

Bestalde, 2019an WIFI4EU programa jarri zen martxan, tokiko agintariei 15.000 euroekin laguntzeko, espazio publikoetan doako wifi sarbideak instalatzeko.

Inguru digitaleko eskubideak babesteko, 2019an indarrean sartu ziren lineako enpresen eta kontsumitzaileen eskubideak babesteko ekimenak, besteak beste Zerbitzu eta Eduki Digitalak Hornitzeko Zuzentaraua eta Egile Eskubideen eta Antzeko Eskubideen Zuzentaraua, egile-eskubideen gaineko araudia mundu digitalaren arabera eguneratu eta egokitzen duena.

Sareetako segurtasunaren arloan, 2019an Zibersegurtasunari buruzko Erregelamendua sartu zen indarrean, EBko zibersegurtasuneko politikaren etorkizuneko norabidea ezartzen duena eta Zibersegurtasunerako Agentzia

Europarraren zeregina indartzen duena. Era berean, 5G sareen segurtasunari buruzko gomendioak hartu ziren.

Etorkizuneko teknologien esparruan, 2019an aditu-talde bat adimen artifizialaren garapen etikorako zuzentarau jakin batzuk prestatzen hasi zen, adimen artifiziala ez dadin kaltegarria izan gizartearentzat. Bestalde, superordenagailuen eremuan, 2019ko ekainean 8 hiri hautatu ziren superordenagailu europar berriak hartzeko: Sofia (Bulgaria), Ostrava (Txekia), Bartzelona (Espainia), Bologna (Italia), Bissen (Luxenburgo), Minho (Portugal), Maribor (Eslovenia) eta Kajaani (Finlandia).

Azkenik, azpimarratzekoa da, Batzordeko presidente berriak 2019aren amaieran iragarri zuen bezala, "Aro digitalera egokitutako estrategia" dela Europak datozen bost urteetarako duen sei anbizio handietako bat.

### **Kultura eta kultura- eta sormen-industriak**

Kulturaren gaineko EBko lan-plan berritua (2019-2022) martxan jartzean, 2019. urtean nabarmena izan da 2021-2027 esparru programatiko eta finantzarioaren etorkizuna ezarriko duten ardatzak eta ekimenak finkatu direla.

Kultura- eta sormen-sektorearen espezializazioa, kulturara eta sormenera aplikatutako I+G+b, ondarea, digitalizazioa, adierazle kulturalak, nazioartekotzea, eta eskualdeko ekosistema izango dira agenda europarra ezarriko duten elementuak. Kultura eta kultura- eta sormen-industriak finkatu egin dira kulturaren edo ikus-entzunezko sektorearen berezkitik kanpoko EBren finantziazio-programetan, bai eta eskualdeko lankidetzaren programetan ere.

2019an, garrantzitsuak izango dira copyrightaren eta ikus-entzunezko zerbitzuen zuzentarau europarrak, eta esanguratsuak, era berean, ekoizpenek hizkuntza ez-hegemonikoetan duten posizioa eta eleaniztasuna.

Funtsezkoa da beste eskualde eta agente europar batzuekin lan egitea, sare europarraren aterki pean. Izan ere, eskualde-dimentsioa ematen dute Europako politika kulturalean. Eskualde-dimentsio hori islatuta geratzen da, era berean, "Kultura eta Sormena" monitorean (Europako Batzordeak 2019an argitaratuan).

2019an, nabarmentzekoa da Desk Euskadi MEDIA Creative Europarekin egindako baterako lana.

### **Goi-mailako hezkuntza, lanbide-heziketa**

2018ko txostenean azpimarratutakoaren arabera, Gotenburgoko Goi Bilkuran (2017) ezarritako akordioei esker, Europar Batasuneko hezkuntza-politikak indartzen eta Europako lehentasunezko agendako ardatzetako bat izaten jarraitzen du.

Bikaintasuna, berrikuntza, etorkizuneko enpleguetarako eskumen berriak erronka globaletara eta inguru digitaletara egokitzeko prozedura, eta hezkuntzaren sektorearen eta enpresaren arteko aliantzak eta konplizitateak lehentasun izaten jarraitzen dute 2019an. Hezkuntzaren sektoreko aliantzak, eskualdeko ekosistemak, curriculum-esparru espezializatua eta mugikortasuna izango dira aurrerantzean ere Europako hezkuntza-politikako mugarriak. Berrikuntzaren Estrategia Europarrarekin bat, Europako Batzordeak EAEko lanbide-heziketan bikaintasuna, nazioartekotzea eta berrikuntza pedagogikoa nabarmenduko ditu oraindik ere. EAEko goi-mailako hezkuntzak espezifikotasuna eta aditu izaera eskainiko ditu, halaber, enpresarekiko aliantzan eta mugaz gaindiko campusean. Arlo horretan, bistakoak izango dira Brexitaren ondorioak, bai eta horrek unibertsitate europarren nazioarteko rankingetan eta mugikortasunean izango duen eragina ere.

### **Kultura-diplomazia**

Kultura Diplomaziaren Estrategia Europarraren ekintza-planeko egutegiaren arabera, eta Batzordearen, EUNICen (EBko Kultura Institutu Nazionalen Sarearen) eta Kultura Diplomaziaren Plataformaren artean 2018an hartutako akordioa betez, 2019an kultura-diplomaziaren gaineko kontsulta publikoa sustatu da, eta Proiektu Pilotuen deialdia abiarazi. Kultura-diplomaziaren ikuspegi europar berria eta eskualde-dimentsioa ezin hobeto ikus daitezke Etxepare Institutuan, EUNICeko kide denez gero.

Kultura-diplomazia Europar Batasuneko kanpo-ekintzako elementu berria da, eta eraikuntza europarra eta nazioartekotzea indartzen ditu.

### **Garapenerako lankidetzak, Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH)**

2019an, Europako Batzordeak eremu honetako eszenatokiko bere proposamenak eta bere ibilbide-orria aurkeztu zituen. Tokiko eta eskualdeko agintarien rola indartu egingo da, eta halaxe azalduko da, hain zuzen ere, aurrerapenaren borondatezko txostenetan eta Nazio Batuen inguruko Europako nahiz nazioarteko hitzorduetan.

Sare europarrekin lanean jarraituko da (PLATFORMAren kasu), lankidetzak deszentralizatuaren gaitasuna eta gizarte zibilaren rola posizionatu eta defendatzeko. Alderdi horiek, izan ere, lehentasunezkoak izango dira euskal lankidetzaren ekosistemarako.



### **III. EUSKAL ERAKUNDEEK 2019AN ZEHAR EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUKETAK**

#### **III.1. Eskualdeetako Komitea eta Euskadiren parte-hartzea**

Eskualdeetako Komitea (aurrerantzean, ESKO) EBko eskualde eta udal guztien multzoa ordezkatzeko duen batzar politikoa da. Maastrichteko Tratatuaren ondorioz sortu zen, 1992an, eta 1994ko martxoan ekin zion ibilbideari. Harrezkero, gero eta kontsulta-botere eta eragin handiagoa du, bai Erkidegoko legediari buruzko kontsultak jasotzeko, bai Europako politikako gai-zerrendako arazo garrantzitsuenak ebazten laguntzeko.

ESKOk guztira 350 kide titular ditu (eta 350 ordezeko): Batasuna osatzen duten 28 Estatuetakoko eskualdeetako presidentek, alkateak, zinegotziak, kontseilariak, diputatuak eta abar. Horien egitekoa Bruselara joatea da, ordezkatzeko dituzten herritarren interesak defendatzera, independentzia osoz eta, betiere, Batasunaren interes orokorra lortzeko. Euskadiko kide titularra lehendakaria da oraindik, eta ordezkaria Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia.

Araudi europarra lantzeko prozesuaren barnean, erkidegoko instituzioek ESKOren iritzia eskatu behar dute nahitaez, eskualdeko edo tokiko eskumenei dagozkien edo horiek ukitzen dituzten jardun-eremuak direnean. Honako hauek dira nahitaez kontsultatu beharreko esparruak: garraioa, enplegua, gizarte-politika, Europako Gizarte Funtza, hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola, kultura, osasun publikoa, Europaz gaindiko sareak, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza, ingurumena eta energia. Hartara, estalita geratzen dira EBren jardun-eremu gehienak. Nahitaez egin beharreko kontsultez gain, Kontseiluak, Batzordeak eta Europako Parlamentuak nahi dutenean kontsulta egin diezaiokete ESKOri, eta ESKOk berak ere iritzia eman lezake bere kabuz.

Iritzi horiek Europako araudiari buruzko irizpen politikoen bidez ematen dira nagusiki, eta irizpenak gero Batzordera, Kontseilura edo Europako Parlamentura bidaltzen dira.

Irizpenez gain, ESKOk txostenak eta ebazpenak egiten ditu honako helburu hauekin: Erkidegoko legediak udalerrietan eta eskualdeetan duen eragina adieraztea, EBko gai-zerrendan gaiak eransteko aukera izatea, eta unean uneko arazo politikoei buruzko iritzia ezagutaraztea. **2019an**, ESKOk, guztira, **48 irizpen eta ebazpen** ezarri ditu.

Parlamentu baten antzera funtzionatzen du ESKOk, aholkua emateko kontsulta-organo soilak izan arren. Bruselan 5 edo 6 osoko bilkura egiten dira urtean. Bertan parte hartzen dute, hura osatzen duten kideez gain, gonbidatutako beste zenbait pertsona eta hizlarik ere –EBn presidente den kasuan kasuko herrialdeko goi-ordezkariek eta komisarioek batez ere–, gaurkotasunezko gaien inguruan eztabaidatzeko helburuarekin.

Honela dago osatuta: presidente 1, lehen presidenteorde bat, beste 28 presidenteorde



(bat estatu-kide bakoitzeko), bost talde politiko, 63 kidek osatutako mahai bat, 6 batzorde iraunkor (eta beste horrenbeste "ad hoc", premien arabera), ordezkariak nazionalak, lantaldeak eta eskualde arteko lobby taldeak. Gaur egun, Karl-Heinz Lambertz da Eskualdeetako Komite Europarreko presidentea.

### **Euskadik 2019an zehar Eskualdeetako Komitean izan duen parte-hartzea**

Eskualdeko eta tokiko ordezkari-organoa den heinean, ESKOk EBn erabakiak hartzeko eginkizuna du, eta, horregatik, araudi europarrari zuzenketak aurkeztea da parte hartzeko eta euskal instituzioetatik organo horretako erakundeetara ideiak helarazteko bide nagusia. ESKOk Europako erabakitze-prozesuan duen kontsultajarduera gauzatzen du, horrela.

Gainera, badaude beste jarduketa batzuk ere, iaz Eusko Jaurlaritzaren partaidetza izan zutenak. Horien artean, txosten honetan esanguratsueneko batzuk jaso dira.

**1. eranskinean**, Eusko Jaurlaritzak 2019an zehar Eskualdeetako Komitean izan duen partaidetzaren laburpen-taula kontsultatu daiteke. Egindako bost osoko bilkuretatik hirutan egon da (aurten, osoko bilkura bat gutxiago egin da, maiatzeko hauteskunde europarren ondorioz).

**1. Erkidegoaren araudiaren gainean aurkeztu ziren zuzenketak** aztertuta, Eusko Jaurlaritzak **84 zuzenketa egin ditu, 71 aurkeztu** ditu organo horretan, eta **69 onartzea** lortu du.

**2. eranskinean**, zuzenketa horiei buruzko informazio zehatza kontsulta daiteke.

Bigarrenik, zuzenketa bat aurkeztu ahal izateko ESKOko beste 5 kideren sinadura behar denez, 2019an hainbat eskualdek zuzenketa-proposamenak bidali zizkioten Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari **-191 zuzenketa-proposamen guztira-** Eusko Jaurlaritzaren babesa lortzeko eta, horrela, zuzenketak elkarrekin aurkeztu ahal izateko. Dagokion azterketa egin ostean, jasotako guztietatik **152ri eman zitzaion babesa**, hau da, hartutako zuzenketa-proposamenen %79,5 ingururi.

**3. eranskinean**, beste eskualde batzuek landutako eta Euskadirekin batera aurkeztutako zuzenketak ikus daitezke.

Azkenik, aipatu beharrekoa da, Eskualdeetako Komitearen jarduera guztia aurrera eramateko, aldizka elkartzen direla kideak, osoko bilkurak egin aurretik, talde politikoetan nahiz estatuko ordezkarietan.

**2. Zuzenketez gain, 2019an zehar beste ekintza nabarmen batzuk ere egin dira, Eskualdeetako Komitearekin lotuta:**

**2.1.** 2019ko martxoaren 14an eta 15ean, Eskualdeen eta Hirien 8. Goi Bilkura Europarra ospatu zen Bukaresten, «Europa berri(tu)a» izenburu pean, Eskualdeetako Komiteak eta EBko Kontseiluko Presidentzia errumaniarrak antolatuta. Ekitaldi hartara bertaratu ziren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Europako Gaietako zuzendaria eta EBrako Euskadiko ordezkaria. Egun horietan, Europako toki- eta eskualde-mailako liderrak hainbat saiotan aritu ziren eztabaidan gizarte-kohesioari eta integrazioari, etorkizun iraunkorraren eraikuntzari, lurralde-kohesioari, subsidiarioritasun aktiboari, demokrazia europarraren indartzeari, edo Brexitak Michel Barnier-ekin duen eraginari buruz.

**2.2.** Apirilaren 10eko osoko bilkuran, Eskualdeetako Komiteak honako ekimen hau abiarazi zuen: «*Hiriak eta eskualdeak, migratzaileen integrazioaren alde: elkarrekin lanean, Europa inklusiboagoa lortzeko*». Helburuak bi ziren: batetik, migrazioaren narrazio positiboa sustatzea eta, bestetik, hurrengo Europako Parlamentuari eta hurrengo Europako Batzordeari mezua igortzea, integrazioak lehentasun izaten jarrai dezan. Eztabaida hartan, Migrazioko, Barne Gaietako eta Hiritartasuneko komisario Dimitris Avramopoulosek esku hartu zuen, eta, bertan, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak berriaz azaldu zuen Eusko Jaurlaritza zein lan egiten ari den, migrazioaren erronkari erantzun egokia emateko; tartean, Share proposamena eta erkidego-babesa.

**2.3.** Apirilaren 11n, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak izenburu hau zeraman mintegian parte hartu zuen: «*GIHak errealitate bihurtu: hirien eta eskualdeen zeregina*». Eskualdeetako Komiteak, Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluak eta Eurocities-ek antolatu zuten mintegia, eta, betan, jardunbide on moduan aurkeztu zen Nazio Batuen 2030eko Agenda eta Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak Euskadin ezartzeko modua, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren bidez.

**2.4.** Euskadik hamabosgarren urtez jarraian parte hartu zuen «Open Days» direlakoetan (Eskualdeen eta Hirien 2019ko Aste Europarretan), Bruselan, urriaren 7tik 10era bitartean. Urteko hitzordu hori Eskualdeetako Komite Europarrak eta Europako Batzordeak antolatzen dute, jardunbide onak trukatu eta eztabaidatzeko.

Hala, euskal ordezkariak tailer desberdinetan izan duten partaidetza proaktiboaren erakusgarri, EBrako Euskadiko ordezkariak «European regions in the 2030 Agenda: towards a Community of Practice» mintegian eta «European Social Economy Regions 2019 (ESER)» konferentzian esku hartu zuen; SPRIko zuzendari nagusiak automobilaren eta automobilgintzaren industriaren sektoreko lan-bilera mugatuan parte hartu zuen; Eusko Jaurlaritzako Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuko zuzendariak eta TKNIKAKo ordezkari batek EARLALL sareak koordinatutako konferentzietan esku hartu zuten (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko presidentziaren pean); edo Lehiakortasunerako Euskal Institutuak

(ORKESTRA) “Regional governance, competitiveness and social integration” ekitaldian parte hartu zuen.

**3.** Amaitzeko, Euskadik **ESK**Oren barruan hainbat taldearteren jardueren jarraipena egiten du, gai desberdinak lantzeko; besteak beste:

- REGLEG (Legegintzako Eskumena duten Eskualdeak) – CALRE (Legegintzako Eskumena duten Parlamentuak) taldeartera;
- Automobil-industriaren taldeartera;
- Osasunaren taldeartera.

### **III.2. Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordeko Komiteetan izandako parte-hartzea**

#### **1. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien parte-hartzea Europar Batasuneko Kontseiluan**

2019an zehar, Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaien Kontseiluko (ECOFIN) lantaldeetan parte hartzen jarraitu da. Foro horietako parte-hartzea Zerga Koordinazioko Organoak gidatzen du. Organo horrek Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundiak biltzen ditu.

Aurreko urteetako txostenetan adierazi zen moduan, Euskadik lantaldeetan bakarrik parte hartzen du, Kontseiluaren osoko bilkura ez baitago Euskadiren partaidetzara irekia.

2011z geroztik, ECOFIN Kontseiluaren bi lantaldereen bileretan parte hartzen du Euskadik:

##### **1. D4 taldea - Zerga-kontuak. Bi formaziotan banatua:**

-zeharkako zergak: BEZa, zerga bereziak, finantza-transakzioen zerga eta abar jorratzen dira.

-zuzeneko zergak: sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri komuna, administrazio-lankidetzak, zerga digitala, «Fiscalis» programa...bezalako gaiak jorratzen dira.

##### **2. D5 taldea - Jarrera-kodea (enpresen zerga-sistema), era berean hainbat azpitaldetan banatzen dena:**

- A azpitaldea, - B azpitaldea, - «Neurriz kanpoko praktikak, sartzen eta irteten diren onuren transferentzietan eta zerga-sistemen arteko bateraezintasunetan», - «Kanpoko gaiak» azpitaldea, eta - «Barneko gaiak» azpitaldea

Azpitaldeek gai zehatzak jorratzen dituzte, ondoren Jarrera Kodearen Taldearen bileretan ezartzeko.

ECOFIN Kontseiluaren lantalde horietan sortutako gaurkotasun guztiaren berri emateko, 2 artikulua idatzi ziren ZERGAK-Gaceta Tributaria del País Vasco. aldizkariaren 57 eta 58 zenbakietarako (sei hilabetean behin ateratzen da).

**4. eranskinean**, 2019an zehar euskal erakundeek parte hartu duten ECOFINeko Kontseiluko lantaldeen 15 bileren datak kontsulta daitezke.

#### **2. Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea Europako Batzordeko komiteetan**

Autonomia-erkidegoek Europako Batzordeko Komiteetan duten partaidetzari buruzko akordioen arabera, une honetan 2018-2021 partaidetza-aldian gaude. Aldi horretan, guztira, 25 Komiterako ordezkariak dauka esleitura Euskadik.

2019an zehar, zehazki, jarraian azaltzen diren Komiteetan (guztira, 13) ordezkariak dauka esleitura Euskadik, egindako bilera-kopurua adierazita (bilera horietara, aipatu Komiteetan autonomia-erkidegoko ordezkari gisa izendatu diren pertsonak bertaratu dira):

- “Europa sortzailea” programako Komitea: 2 bilera
- Nekazaritza Ikerketako Komite Iraunkorra: 2 bilera
- Igogailuen Komitea. Komite honetan, Euskadik ez dauka ordezkariarik 2020ra arte, baina Andaluziak postua utzi zion, bileretara joatea ezinezkoa zitzaiolako: 2 bilera, horietako bat Pragan
- Ingurumeneko eta Klimaren aldeko Ekintzarako LIFE komitea: ez dago bilerarik
- Industria-isuriei buruzko zuzentarauaren komitea – 75. artikulua: ez dago bilerarik
- Uren politikaren eremuan jardura-esparru komunitarioa ezartzen duen zuzentzua aplikatzeko komitea: ez dago bilerarik
- Klima Aldaketari buruzko komitea: bilera 1
- Kontsumitzaileen babesaren gaineko lankidetzako komitea (2006/2004 erregelamendua, EE): 2 bilera (batean parte hartu zen, eta bestean ezinezkoa izan zen, agenda-arazoaren ondorioz)
- 92 C38800 zenbakiko komitea, Ingurumena Kudeatu eta Ikuskatzeko Sistema Komunitarioari buruzko Komitea: 2 bilera, horietako bat Bilbon
- Landa Garapenerako Komitea (nekazaritzako egituren eta landa-garapeneraren aurreko komitea barne hartzen du, STAR komitea): bilera 1; ezin izan zen bertan parte hartu, garraio-grebaaren ondorioz. Ordezkariak 2019ko apirilean amaitu zen.
- Europako Ikerketa Azpiegituren Partzuergoetan aplikatu beharreko erkidego-esparru juridikoari buruzko erregelamendua aplikatzeko komitea: ez dago bilerarik
- Osasun Produktuen Komitea (C49800) (aurreko 109. C00300 komitea – osasun-produktuei buruzko estatu-kiden legegintzaldien hurbilketa-komitea – ordezkariak du): ez dago bilerarik
- Barne Merkatuen Informazio Sistemaren Komitea: 3 bilera

### **III.3. Gobernu-ekintzaren ondorioz EBn egindako jarduketak**

Jarraian azaltzen dira xehetasunez euskal erakundeek Europar Batasuneko instituzioetan 2019an egindako jarduketaren urrats nagusiak, gehien errepikatu diren

jarduketak eta ukitu diren gaiak, kontuan izanda Euskadiren eskumenak eta Erkidegoan esku hartzeko arloak.

### 1. Bisita instituzionalak

Atal honetan, ordena kronologikoan zehazten dira erkidegoaren hiriburura (eta beste leku batzuetara) egindako bisita instituzionalak, bai eta Europako instituzio, eskualde eta herrialdeetako ordezkariak Euskadira egindakoak ere, garrantzi handikotzat jo direnak.

- Otsailaren 5a: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta ASLEren bisita Europako Batzordera (TAXUD ZN), langileek enpresan duten partaidetzaren zerga-sistemari buruzko bilera izateko.
- Martxoaren 12a eta 13a: Europako Batzordeko Enplegu eta Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren Lanbide Heziketarako sailburuordearen lan-bisita, ekimen eta ekintza desberdinak egiaztatzeko, agenda europarraren arabera.
- Apirilaren 2a: Bruselan, EBko instituzioen eta estatu azpiko gobernuen aurrean aurkeztu zen SHARE proposamena. Azken horrek mekanismo zehatz bat adostea planteatzen du, migrazioaren erronkari loturiko egoera zailenen aurrean erantzukizunaren banaketa partekatua izan dadin. Ahalegina banatzeko formula honek hiru parametro ditu oinarrian: diru-sarrera fiskalak (edo batez besteko errenta eskuragarria, edo BPG), % 50eko eraginarekin; biztanleria, % 30eko eraginarekin, eta langabezia-indizea, % 20ko eraginarekin. Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkari nagusiak eta Gizarte Politiken sailburuordeak aurkeztu zuten proposamena.
- Apirilaren 3a eta 4a: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Aniztasuneko zuzendariak Migrazioaren 2019ko Foro Europarrean parte hartu zuen. Gizarte zibila, erakunde europarrak, eta nazioko, eskualdeko eta tokiko agintaritzak migrazioari buruz hitz egiteko plataforma da.
- Apirilaren 3a eta 4a: Euskadi - Flandes lankidetzaren esparruan, Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuordeak, SPRIrekin eta Innobasquekin batera, lan-misio bat esleitu zion *Flanders District of Creativity* agentziari, Flandesko Gobernuarekin egiaztatu ahal izateko kultura- eta sormen-industrien eremuko ekintzak eta eskualdeko jarduketak-estrategiak.
- Apirilaren 8a: Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek Flandesera egin beharreko bisiten agenda ezarri zuen, eta Bruselan Flandesko Ekonomia eta Gizarte Komiteko ordezkariarekin, Flandesko Gobernuaren Enplegu, Ekonomia, Berrikuntza eta Kirol ministroarekin, eta Flandesko Enplegu Zerbitzuarekin bildu zen.
- Ekainaren 5a: Garraioko sailburuordeak bilera bat izan zuen Europako Batzordeko MOVE ZNko Inbertsio, Garraio Berritzaile eta Iraunkortasuneko zuzendariarekin.

- Ekainaren 5a eta 6a: Euskadin ospatutako Lanbide Heziketako Kongresuaren esparruan, Enpleguko komisario europarrak (bideo bidez) eta Europako Batzordeko Enplegu Zuzendaritza Nagusiko zuzendariak eta zuzendariordeak parte hartu zuten.
- Ekainaren 17a eta 18a: Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturako sailburua (Arantxa Tapia) eta Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia Karmenu Vella komisarioaren Kabineteko buruarekin bildu ziren, Eusko Jaurlaritzak itsas energiaren eta arrantzaren ganean dituen politikak eztabaidatzeko; halaber, Energiaren Aste Europarraren inaugurazioan parte hartu zuten.
- Ekainaren 25a: Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak migratzaileen integrazioaren aldeko hirien eta eskualdeen ekimenari buruzko mintegian parte hartu zuen. Bertan, migratzaile eta errefuxiatuen integrazioa babesteko informazioa zabaltzen eta jardunbide onak jasotzen dira. Eskualdeetako Komitearen ekimen honetara atxiki da Euskadi.
- Irailak 9 eta 10: Basque Trade & Investment-eko sailburu ordezkariak eta Basque Trade & Investment-eko Unitateko zuzendariak bilerak izan zituzten Europako Batzordearekin (TRADE ZN, NEAR ZN, GROW ZN eta DEVCO ZN), REPER-ekin eta Flandesekin (Flanders Agency for Innovation and Entrepreneurship eta Flanders Investment & Trade).
- Irailak 26 eta 27: Cristina Uriarte sailburuak, Lanbide Heziketako sailburuordearekin batera, Hezkuntzaren Bigarren Goi Bilkura Europarrean parte hartu zuen. Goi Bilkura hartan, 2019ko hezkuntzako monitorea aurkeztu zen. Bertan, lanbide-heziketaren arloan eta unibertsitate-enpresa arloan lortutako emaitzengatik eta bere hezkuntza-politikagatik nabarmendu zen Euskadi. Lehen aldiz, eskualdeko ekosistema eta dimentsioa kontuan hartzen dira EBren hezkuntza-arloko urteko txostenean.
- Urriaren 9a: SPRIko zuzendari nagusiak Eskualdeetako Komiteak koordinatzen duen lan-bilera batean parte hartu zuen, automobilen eta automobilgintzaren industriaren sektorearekin lotuta.
- Azaroaren 18a eta 19a: Enplegu eta Gazteriako sailburuordeak eta Kabinete eta Komunikazioko zuzendariak (biak ere Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailekoak) bilerak izan zituzten Euskadik EBn duen Ordezkaritzan, EBko Enplegu eta Gizarte Politikako Kontseiluan 2020ko lehen seihilekoan zehar izango zuten partaidetza antolatzeko. Era berean, hainbat topaketa egin ziren Europako Parlamentuan.
- Azaroaren 21a: Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak "Abangoardiako Ekimena" sarearen Biltzar Nagusian parte hartu zuen, Euskadi ordezkatzuz.
- Abenduaren 2a: Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordeak Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien izenean jaso zuen "European Broadband Award" saria, Europako Batzordeak emandakoa lurralde-oreka bermatzeko eta banda zabal ultraarinerako sarbidea (Banda Zabal Ultraarinerako



Sareak Hedatzeko Programaren bidez) unibertsal bihurtzeko egindako lanaren erakusgarri.

- Abenduaren 4a: Bigarren bilera bat egin zen SHARE proposamenaren gainean, Europako estatu azpiko erakunde eta gobernuekin hurrengo urratsak adosteko. Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkari nagusiak eta Gizarte Politiken sailburuordeak zuzendu zuten topaketa, biak ala biak Eusko Jaurlaritzakoak.
- Abenduaren 11: Etxepare Institutuko Kultura Sustatu eta Hedatzeko zuzendariak Bruselan lan-misioa egin zuen, eta EUNICeko zuzendaritza-komitearen urteko bilera egin zen Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzan.

## **2. Euskadiko alderdi desberdinek Europan duten proiektzioa eta Euskal Autonomia Erkidegoak Europako erkidegoaren gaurkotasuneko gaitan duen posizioa**

Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen 2014-2020 programazio-aldian, eskualde-mailan espezializazio adimentsuko estrategia bat egotea aurretiazko baldintza izan da, 1. gai-helburuaren helburu zehatzak eraginkortasunez eta efikaziaz lortzeko (ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza indartzea).

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoak hainbat urte daramatza espezializazio adimentsuko estrategia edo RIS3 estrategia definitu eta ezartzen. Bertan, besteak beste, espezializazio ekoizleko arloak definitzen dira, Euskadiren gaitasun teknologikoak eta industria-sarea oinarri hartuta.

Bestalde, munduko ekonomiak eta berrikuntzaren sare globalek duten garrantziaren ondorioz, beharrezkoa da eskualdeko berrikuntza-politika administrazio-mugaz gaindi joatea. Horrenbestez, ezinbestekoa da espezializazio adimentsuko estrategien kanpo-dimentsioa. Herrialdeek eta eskualdeek elkarlanean aritu behar dute Europa mailan, beren abantaila osagarriak uztartzeko, ikerketaren eta berrikuntzaren gaineko eskumenen ahalmena aprobetxatzeko, beharrezko ikerketa-gaitasunak lortzeko, berrikuntzaren zatikatzea gainditzeko, masa kritikorik ezari aurre egiteko, eta balio-kate globaletara sartzeko.

2014an, "Europako industriaren berpizkundearen alde"<sup>3</sup> komunikazioan, Batzordeak espezializazio adimentsuko plataformak sortzeko proposatu zuen, EBko industriaren lehiakortasuna areagotzeko, berrikuntzaren eta aurrerapen teknologikoaren bidez, RIS3 estrategien konexioa baliatuta, azkenean balio-kate berrien sorrera babeste aldera.

Harrezkero, Batzordeak espezializazio adimentsuko hiru plataforma eratu ditu (Energia, Industria Modernizazioa eta Nekazaritzako Elikadura). Gaur egun, berrikuntzaren eskualdearteko garapenerako 30 lankidetzaz-esparru daude, eta,

---

<sup>3</sup> KOM(2014) 14 azkena



horietan, Europako 100 eskualde baino gehiagok parte hartzen dute. Azpimarratzekoa da Euskadik lankidetzaren esparru horietako biren lidergotza partekatua duela; zehazki, Itsas Energia Berriztagarriena eta Smartgrids delakoarena.

Bestalde, 2021-2027<sup>4</sup> aldirako xedapen komunaren erregelamendu-proposamenak hurrengo programazio-aldirako gaien baldintza positiboen artean jasotzen du, IV. eranskinean, “espezializazio adimentsuko nazioko edo eskualdeko estrategiaren gobernantza ona, nazioarteko lankidetzarako neurriak jasoko dituen”.

Europako eskualdeek elkarrekin lanean jarrai dezaten babesteko asmoz, halaxe egiten baitute RIS3 plataformetan, Batzordeak berriaz proposatu du tresna berri bat sar dadila hurrengo programazio-aldirako, 970 milioi euro dituen, honako hauetarako: berrikuntzaren gaineko eskualdearteko inbertsioak, berrikuntzaren gaineko eskualdearteko proiektuak handitu eta merkaturatzeko, baldin eta horiek Europako balio-kateak garatzea sustatu badezakete.

2019an zehar, Euskadik, eskualdeko bazkideekin lankidetzan, baterako aitorten bat sinatu du, babes zabala duena Europako eskualdeen artean. Bertan, European berrikuntza sustatzeko tresna berri honi eusteko eskatzen da. Aitorpen hori Batzordean, Europako Parlamentuan eta estatu-kideen artean aurkeztu eta eztabaidatu da, urte anitzeko finantza-esparruaren eta 2021-2027rako programa berrien negoziazioetan kontuan har dadin.

Bestalde, lankidetzaren atlantikoan, Euskadik lan handia egin du 2019an zehar Atlantikoko makroeskualde-mailako estrategia eratzeko egokitasunari buruz hausnartzeko. Lan horren ondorioz, aldi baterako lantaldea / task-force sortu da Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziako Arku Atlantikoko Batzordean, aukera hori aztertze aldera. Task-forcen lehen bilera 2019ko abenduan izan zen, Bruselan, eta 2020an zehar, hainbat bilera egingo dira eskualde atlantikoekin, EBN makroeskualde-mailako strategiaren bidez lankidetzarako urrats hori eman ahal izateko.

Migrazio-gaietan, 2019an, Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziak maila anitzeko gobernantzaren ikuspegia sustatzen jarraitu du, migrazioa kudeatzeko orduan. Halaber, bere kideekin batera egin du lan, eremu horretako lankidetzaren indartzeko. Horretarako, eskualdeko agintaritzen artean ikuspegi berritzaileak eta esperientzia egokiak trukatzeko elementu gakoak izan da. Aurten, jardunbide onak jasotzerakoan batez ere migrazioaren kanpo-dimentsioa jorratu da. Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziak agiri bat idatzi du, dimentsio horri buruz, Eusko Jaurlaritzak adierazitako jardunbide onak kontuan hartuta, besteak beste nazioarteko babesa hartzen duten pertsonen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioarako erkidego-babesa. Gainera, Euskadik migrazioari buruzko eskualdeko informazio-orria eta

---

<sup>4</sup> KOM(2018) 375 azkena

"mapaketa" egiten lagundu dio Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziari, eta, horretarako, informazio esanguratsua eman dio.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendariak Migrazioko Foro Europarrean parte hartu zuen, Bruselan, apirilaren 3an eta 4an. Bertan, Hiritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Eremuko 2018-2020ko V. Jarduera Plana azaldu zuen, Euskadik zuzendutako SHARE proposamenari aipamena eginez. Proposamen horrek erantzukidetasunaren printzipioa aplikatzen du migrazioaren erronkaren aurrean, errealiterik zaugarrienetan.

Era berean, 2019an, Euskadi Integrazioarako Hiri eta Eskualdeen ekimenera atxiki zen, Eskualdeetako Komiteak sustatuta. Helburuak, zehazki, honako hauek dira: migratzaileen eta errefuxiatuen integrazioa babestea; udalerrri txikiei eta hiri eta eskualde ertainei ahots sendoagoa ematea; udalerrri, hiri eta eskualde txikiaren arteko lankidetzaz sustatzea; elkartasunaren narrazio sendoagoa aurkezten laguntzea, eta eremu horretan informazio ezari aurre egitea. Ekainaren 25ean, lehen mintegia egin zen lurralde txikitako migratzaile eta errefuxiatuen integrazioari buruzko ekimenaren esparruan, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak bertan parte hartu zuen. Zuzendariak berriaz azaldu zituen Euskadik daukan mekanismoak, tresnak eta baliabideak, atzeritik datozen pertsonen helduera eta harrera jorrazteko. Horren adibide dira, besteak beste, Auzolana I eta II proiektuak; Erkidego Babesaren esperientzia pilotuaren bultzada; Hiritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Eremuko 2018-2020ko V. Jarduketako Plana; eta SHARE proposamena. Azken hori Bruselan aurkeztu da, txosten honetan bisita instituzionalei buruzko atalean jasotakoaren arabera.

Emakume eta gizonen berdintasunean, 2019ko bigarren seihilekoan zehar beharrezko urrats guztiak eman dira Tasc Force bat sortu eta abiarazi dadin Berdintasunari buruz, Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziaren barruan. Hala, Emakunde eta Eusko Jaurlaritza izango dira Task Force horren buru 2020an.

Gizarte-gaietan eta enplegu-politikan, 2019ko azken hiruhilekoan Euskadiren partaidetza prestatzeko egin da lan, gainerako autonomia-erkidegoen ordezkartzan, EBko Kontseiluko Enplegu eta Gizarte Politika arloan, eta Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak eremuan. Azken hori 2020ko lehen seihilekoan zehar garatuko da. Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak Kontseiluko ordezkartza autonomikoan honako zeregin hauek beteko dira: Gizarte Gaien Lantaldearen bilera teknikoetan parte hartuko da, eta, horietan, lege-mailakoak diren eta ez diren espedienteak jorratuko dira enplegu eta gizarteko politiken arloan, ondoren EBko Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak Ministro Kontseilura igortzeko; informazioa helaraziko zaie gainerako autonomia-erkidegoei; gainerako autonomia-erkidegoekin adostutako posizio komuna ezarriko da eztabaidan dauden espediente bati edo zenbaiti buruz; eta Enplegu eta Gizarte Politiketako

sailburuak Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak Kontseiluan esku hartuko du, aipatu posizio komuna irakurtzeko.

Gainera, EBko Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak Kontseiluko Enplegu eta Gizarte Politika arloan, Euskadik izango du ordezkari autonomikoa Kontseiluko arrantza-arloan, 2020ko lehen seihilekoan zehar. Eta, Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak Kontseiluko osasunaren arloan ere izango du ordezkari, 2020ko bigarren seihilekoan zehar. Hori guztia, lehen aipatutako baldintza berberetan.

Itsasoko eta arrantzako kontuetan, 2019ko martxoan Europako Parlamentuak Itsasoko eta Arrantzako etorkizuneko Funts Europarrari buruzko proposamena aurkeztu zuen 2021-2027 aldirako. Bertan, Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak jaso ziren. Horietako nagusia, hain zuzen ere, eskualdeko programa operatiboak edukitzeko aukera da.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak eskualdeko plan estrategikoak edukitzeko aukeraren alde egin du, etorkizuneko nekazaritza-politika erkidea kudeatzeko. Nekazaritza-politika erkide modernizatu eta sinplifikatuaren bidez, nekazaritza eta landako guneek bizi dituzten erronka nagusiei egin ahal izango zaie aurre. Era berean, Batzordearen lehenetazko politikak lortzen lagunduko da; batez ere, enplegua eta hazkundera, garapen iraunkorra, eta emaitzetan, sinplifikazioan eta subsidiarotasunean oinarritutako aurrekontua.

2018an, Europako Batzordeak bioekonomiaren gaineko estrategia berria aurkeztu zuen, Europa iraunkorra lortzeko. Ekosistema eta baliabide biologikoak mugatuak diren mundu honetan, beharrezkoa da berrikuntzaren aldeko ahalegina egitea, biztanleria elikatzeko, edateko ura emateko eta energia garbiak sustatzeko. Bioekonomiak aukera ematen du algak erregai bihurtzeko, plastikoa birziklatzeko, hondakinak altxari edo arropa berri bilakatzeko, edo azpi-produktu industrialak oinarri biologikoko ongarri izateko. Eusko Jaurlaritzak ere eman zituen urratsak norabide horretan, 2019an zehar. Lantalde batek Euskadiko Baso Bioekonomiaren ibilbide-orria idatzi zuen. Lantalde horretan sartzen ziren, hain zuzen ere, paperaren, egurraren, energiaren eta ingurumenaren klusterrak, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak, Mondragon taldea, ikerketa-taldeak, Euskadik EBn duen ordezkari eta abar. Ibilbide-orri hori 2019ko uztaileko European Bioeconomy Scene ekitaldian aurkeztu zen, Helsinkin. Eta, abenduan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturako Sailak, 10 enpresaz osatutako talde batekin lankidetzan, Bioekonomiaren aldeko Euskal Aliantza sortzea sustatu zuen, ekonomia baliabide biologikoen erabileran oinarritutako eredu baterantz bideratzeko beharrezko erantzute aldera.

Garraioen arloan, Batzordearen “Europa konektatu” (CEF 2) Mekanismo berrirako proposamenean Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziak duen posizioari buruzko agiria prestatzen eta zuzenketak egiten parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Proposamen horretan, korridore atlantikoen (horren barruan sartzen da euskal “Y”) eta mediterraneoan arteko lotura sartu zen (Iruñea bidez). Garraioen Europaz gaindiko Sareko Erregelamenduaren arabera (*TEN-T*), korridoreen sare nagusia (*core network*) 2030erako osatu behar da (horien artean dago korridore atlantikoa), eta sare hedatua (*comprehensive network*) 2050erako. TEN-T erregelamendu hori ebaluazio-fasean dago. Orokorrean, helburua betetzen ari da eta beteko da, Portugalgo eta Espainiako inguru batzuetako bideen zabaleran izan ezik. Era berean, CEF 2 erregelamendu berria laster onartu behar da. Haren I. eranskinean, zehazki, korridoreetako batzuk aztertu eta eguneratu dira. Korridore atlantikoaren kasuan, luzapen berriak daude Galizia eta Asturiasera, eta Irlanda korridorean sartu da. Aurrekontua da zehazteke dagoena, Europako Kontseiluaren menpe baitago. TEN-T erregelamendu berria 2024ko urtarrilean jarriko da martxan, eta CEF 2 erregelamendu berria, bestalde, 2021eko urtarrilean.

Eusko Jaurlaritzak *Memorandum of Understanding* sinatu zuen Shift2Rail JUREkin, hots, Europan trenbideen arloko ikerketa eta berrikuntza gehiena bideratzen duen erakundearekin. Shift2Rail ekimen publiko-pribatua da, Europako Batzordeak sustatutakoa, beste zazpi trenbide-enpresa sortzailerekin batera, tartean euskal enpresa multinazional bat, trenbideen eraikuntzak eta osagarriak egiten dituen: CAF. Shift2Railen beste enpresa batzuk ere badaude lotuta, besteak beste EAEko AERNNOVA eta estatuko TALGO, Euskadin ezarria, bai eta ikerketa-zentroak ere, esate baterako TECNALIA eta CEIT, eta hiru unibertsitate europar, tartean Euskal Herriko Unibertsitatea. 2014an sortu zen Shift2Rail, eta 920 milioi euroko aurrekontua dauka.

Klima-aldaketaren politikan, Eusko Jaurlaritzak 2019an zehar foro europarretan parte hartu zuen, Euskadi klima-aldaketaren aurkako borrokarekiko konprometitutako eskualde gisa posizionatzeko, berotegi-efektuko gas-isuriak murrizteko eta energia garbiak lortzeko politika handizaleei esker.

Bide horretatik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak argitalpen berri bat abiarazi zuen, Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) kokatzeko erabil ditzaketen 15 bideak aurkezteko herri eta hiriei. “15 Pathways to localise the Sustainable Development Goals” argitalpena, zehazki, Eskualdeetako Komite Europarrearantz zabaldu zen, 2019ko Eraldaketa Ekintzarako Saria banatzeko ekitaldian. Hala, tokiko gobernuei inspirazio-iturri izan daitezkeen eta beste leku batzuetan errepikatuzko modukoak diren adibideak ematen dizkie, herri-mailan GIHak ezartzeko euskal adierazpenaren 15 bideak erabiltzeko moduari buruz. Epaimahai aditu batek aztertu ditu aplikazio horiek, eta bertako kide dira Eskualdeetako Komiteko, Inbertsioen Banku Europarreko, UNESCO Etxeko, Aalborg hiriko (Danimarka) eta ICLEI Europako ordezkariak.

Ikerketan eta berrikuntzan, 2019an zehar Europako Batzordeak kontsulta publiko desberdinak ireki ditu herritarren eta alde interesdunen iritzia lortzeko, lege-mailako politika eta proiektu berriak egiten dituenean.

Horizon Europerako lehen plan estrategikoa prestatze aldera, Batzordeak “Horizon Europe Co-design 2021-2024” kontsulta publikoa abiarazi zuen. Eusko Jaurlaritzak ekarpenak egin zituen, eta berariaz azpimarratu zuen indar handiagoa eman behar zitzaiela ekonomia urdinari eta itsas energiei (offshore, marea-energia, haize-energia...), sektore honek EBn daukan gaitasun izugarria desblokeatzeko. Era berean, hainbat gomendio egin zituen sektore digital eta industrialari buruz, batez ere aurrekontua, enpresen partaidetza eta Berrikuntzaren Kontseilu Europarra lantzeko.

Berrikuntzari buruzko beste kontsulta publiko bat ere egin zen, Horizon Europeko 12 elkarte instituzionalizatuen hautagaitzari buruz. Bertan ere parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Zehazki, elkarteen partaidetza garrantzitsua zela azpimarratu zuen Eusko Jaurlaritzak, alde interesdun guztien partaidetza bermatzeko, maila egokietan.

Bestalde, Innobasquen bidez, bi “position paper” landu eta aurkeztu zaizkio Europako Batzordeari:

- *Position paper 9th Framework Programme Horizon Europe*. Agiri honetan, iruzkin orokorrak egiten dira, bai eta gomendio batzuk ere, zeintzuen arabera beharrezkoa baita partaidetza industrialak biltzen duten arloak mantendu eta indartzea, bai eta merkaturako hurbilketa sustatzen duten tresnak eta ekimenak mantendu eta indartzea ere. Egindako gomendioek honako gai hauek dituzte hizpide: programaren aurrekontu-konpromisoa, Berrikuntzaren Kontseilu Europarrak lankidetzak eta berrikuntza hobetzeko duen zeregina, zientzia bikainerako babes industrialak, eta proiektuen ezarpenaren jarraipena, besteak beste.
- *Joint Spanish Enterprise Europe Network Position Paper on the European Innovation Council (EIC) in Horizon Europe* (Enterprise Europe Network Euskadi izanik buru). Agirian hainbat gomendio jasotzen dira, eta horien artean nabarmentzekoa da enpresa txiki eta ertainetatik garatzen diren ekintza berritzaileak babesteko beharrazana. Finantziarioari buruzko beste gomendio batzuk ere badaude.

Euskadik, *Vanguard Initiative* ekimeneko bere bazkideekin batera, rol aktiboa izan nahi du Europako berpizkunde industrialean. Horrenbestez, Abangoardia Ekimenak, sortu zenetik, EB mailan industria-politika handizalea ezartzearen alde egin du.

Era berean, geroz eta gehiago direnez globalizazioarekin, digitalizazioarekin, eta aldaketa demografiko eta klimatikoarekin lotutako erronkak, industria-politika berrituaren aldeko argudioek pisu handiagoa hartu dute. Ondorioz, Von der Leyen Batzorde berriak 2020rako zuzendaritza komunitarioaren lan-programaren barruan sartu du Europar industria-politika berria ezar dadila, EBren hazkundera indartzeko.

Gaur egun, erakunde europarrek luze eta zabal aitortu dute *Vanguard Initiative* eredua, eskualdearteko lankidetzan oinarrituta, eta, hura, era berean, espezializazio adimentsuko estrategietatik abiatzen da, industria-balioa duten kateetan zehar.

Zuzendaritza komunitarioak, zehazki, *Vanguard Initiative* ekimena izan du inspirazio-iturri, espezializazio adimentsuko plataformak abiarazteko.

Horrekin lotuta, azpimarratzekoa da Euskadik 2019an zehar lurralde europar aktiboenetakoa izaten jarraitu duela espezializazio adimentsuko 3 plataformatan (modernizazio industrial, energia eta nekazaritza-elikadura).

Gogoratu beharra dago Euskadik, Energiaren Klustarren eta SPRIren laguntzaz, Eskoziarekin batera koordinatzen dituela hainbat eskualde, itsas energia berriztagarrien arloan elkarlanean aritzeko konpromisoa dutenak, eta, bestalde, Euskadi dela liderra, Provence-Alpes-Cote d'Azur (PACA) eskualdearekin batera, eskualdeen lankidetzaren esparru batean, smartgriden eremuan. Era berean, Euskadik beste lankidetzaren esparru batzuetan ere bazkide moduan parte hartzen du, besteak beste trazabilitatea eta makrodatuak, biltegi energetikorako material berriak eta fabrikazio eraginkor eta iraunkorra bezalako gaietan. Gainera, energiaren eta industriaren modernizazioko espezializazio adimentsuko plataformako Zuzendaritza Komiteko kide da Euskadi.

Abenduan, Europako Batzordeak "*European Broadband Award 2019*" saria eman dio Euskadiri, banda zabala hedatzeko egindako lanagatik. Europako Batzordea *Gigabit Society* izeneko ekimen baten buru da. Helburua 2025. urterako Europar banda zabal ultraarinerako sareen eskuragarritasuna sustatzea da. Euskadin, "Banda zabal ultraarinerako sareak hedatzeko programen" deialdiak egin ziren, 450 poligono industrial eta landa-eremuko 48.000 etxe baino gehiago tartean. Europako Batzordeak berriaz saritu nahi izan ditu lurralde-oreka bermatzeko eta banda zabal ultraarinerako sarbidea unibertsal bihurtzeko ahalegin handiena egiten ari diren eskualdeak. Hala, aurtan, Euskadiri eman zaio saria, Europar "*best practice*" gisa identifikatu diren bost kategorietako batean. Euskadik, zehazki, honako sari hau jaso zuen: "*Socio-economic impact in rural and remote areas*".

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2016tik 8 herrialde europarretako beste bazkide batzuekin batera parte hartzen du *Interreg Europe "S34GROWTH"*<sup>5</sup> proiektuan, Europa barruko balio-kateak sortzen laguntzeko tresnak modu bateratuan garatzeko. 2019an zehar, azken lan-bisita egin da Kataluniara, eta Tampereko azken mintegian parte hartu da. Lan-bileren eta in situ egindako bisiten helburua honako hau izan zen: zehatz-mehatz ezagutzea eskualde horien berrikuntzaren ekosistema eta enpresentzako dauden babes-tresnak, eta eskualde artean laguntza-programa bat sortzeko aukerari buruz eztabaidatzea.

Eusko Jaurlaritzak, S34GROWTHen parte hartzearen ondorioz, eskualdeko ekintza-plan bat jarri behar du martxan, berrikuntzaren euskal ekosistemaren eta eskualde-mailako beste ekosistema batzuen artean lotura handiagoa lortu ahal izateko ekintza

---

<sup>5</sup> Enhancing policies through interregional cooperation: New industrial value chains for growth - <https://www.interregeurope.eu/s34growth/>



batzuk zehazte aldera. Eskualdeen artean lankidetzaz sustatzeko, zehazki, 2019an zehar aurrera egin da etorkizuneko laguntza-programa bat diseinatzeko orduan, berrikuntza-txeke izenez ezagutzen diren horien bidez, euskal industriak Europar Batasuneko beste lurralde batzuetan dauden esperimentazio- eta testeo-azpiegiturak erabiltzeko aukera izan dezan, eta, hala, Basque Digital Hub Europako beste Digital Innovation Hub batzuekin konektatu dadin.

Zibersegurtasunaren arloan, 2019an *Basque Cybersecurity Center* delakoak Zibersegurtasunaren Erakunde Europarreko Kontseilu Zuzendariko (ECSO) kide izaten jarraitu du. ECSO elkarte publiko-pribatu europarra da. Segurtasun zibernetikoaren gainean berrikuntza eta ikerketako proiektuak sustatzea eta industrian zibersegurtasuneko ohitura onak sortzea du helburu. Enpresa handietako, enpresa txiki eta ertainetako, teknologia-zentroetako, unibertsitateetako, klusterretako eta estatu, eskualde nahiz tokiko administrazioetako ordezkariak biltzen ditu.

Bestalde, 2019an zehar, *Basque Cybersecurity Center* izenekoak “Cibervalles” ekintza pilotura lotuta jarraitu du, Britainia buru, honako helburu hau lortzeko: lankidetzaz handiagoa Europar Batasunaren dauden “cibervallesen” artean. Horretarako, dauden zibersegurtasunaren mapaketa egin behar da, eta, hala, sektore honetako enpresa txiki eta ertainak merkatura sartzeko erraztasunak jarriko dira.

Era berean, ECSOren babesarekin, *Basque Cybersecurity Center*-ek EBko hainbat lurraldetan dauden “*ciber ranges*” direlakoak federatzeko proposamen baten diseinuan parte hartu du, hodeiko plataforma baten bidez interkonektatzeko “*ciber ranges*” horiek ematen dituzten zerbitzuak.

Kulturaren eta Kultura- eta Sormen-Industrietan, INTERREG Europe CREADIS3 /Smart Specialisation Creative District proiektua da, oraindik ere, “Basque DCC/Euskal Sormen Esparrua” deritzon etorkizuneko euskal estrategiaren ardatz nagusia, bai eta Euskadin eragile eta ekimenen mapaketa egiteko zubia ere.

2018ko txostenean adierazi zen bezala, Euskadi Kultura eta Sormen Industrien aldeko Espezializazio Adimentsuko Estrategia sustatzen ari diren eskualde europarren taldera batu da, eta agenda europarrak etorkizuneko euskal estrategiaren urratsak zehazten lagundu du. Europako Batzordeak Euskadiren abangoardiako rola eta proaktibotasuna aitortu ditu, Kulturako sailburuordeari gonbidapena luzatu baitio Europako Batzordeko Kultura eta Sormenaren Monitorean parte hartzeko.

Europako Batzordearen erabakien jarraipena egin da, Ezagutzaren eta Berrikuntzaren hurrengo Erkidegoei begira, Euskadira bereziki interesgarriak diren Kultura eta Sormen Industrien eremu zehatzean.

Ondararako Urte Europarraren legatuan, Euskadik ondarearen eta politika publikoaren gaineko eskumen eta espezializazioaren arloan proiektu europar batean parte

hartzeko gonbidapena jaso du, eta, hala, ondare europarraren eremuan aditutza europarra aplikatzeko aukeratu diren 6 eskualde europarren arteko bat izan da.

Europako funts digitaletzeko elkarrekintzan eta digitalizazioan, Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu zuen Europako Liburutegi Digitalarekin, liburutegi hori euskaraz kontsultatu ahal izan dadin.

Era berean, 2019an berariaz kalkulatu zen 2014-2020 programazio-aldian EAEko kulturaren eta sormenaren sektoreak hartuko zuen finantzazio europarra zenbatekoa zen: 16.650.000 eurotik gorakoa izango zela zenbatetsi zen.

Era berean, Kulturaren Euskal Behatokiarekiko lankidetzaren indartzea indartu da.

Ikus-entzunezko sektorean, 2019ko Zinemaldian, Zinema Europarraren Foro berria ospatu zen. Bertan, sektore honetako profesionalentzat interesgarriak diren agenda eta topaketa europarrak garatu ziren. Nabarmentzekoa da 2019ko Zinemaldira aurkeztutako 4 film euskaldunek jaso zutela “Creative Europe Guarantee Facility” finantza-tresnaren laguntza.

2019. urtean aurrerapen handiena izan duen arloetako bat gai honen guztiaren nazioartekotzea izan da. Bide horretatik, 4 mahai sektorial eratu dira ikus-entzunezko industria, musika, arte eszenikoak eta arte plastikoak hizpide, nazioartekotzearen eremuan. Mahai horien iraupena urtekoa izango da, eta, horietan, ekimen, aukera, agenda eta programa europarrak jorratuko dira.

Adierazitako lan guztia ezin izango litzatekeen egin sare eta bazkide europarrak elkarlanean arituko ez balira, besteak beste RICC sarea, ERRIN sarea, edo Desk Euskadi MEDIA Creative Europe.

Kultura-diplomazian, Etxepare Institutuak EUNIC sarearen ekimenetan parte hartzen jarraitu du. Europar Batasuneko Kultura Institutuekin konplizitateak josi ahal izan dira, eta lan-merkatu berriak zabaldu, euskal sortzaileei eta euskarari ikusgarritasuna eta posizioa emanez.

Garapenerako lankidetzaren eremuan, Euskal Fondoak eta Lankidetzaren Euskal Agentziak indarrak batu zituzten PLATFORMA (lankidetzaren arloko tokiko eta eskualdeko agintaritzen plataforma europarra) integrazeko, eta, hala, hainbat ekintza garatu dira finantziario europarrarekin, Europako Batzordeko Lankidetzaren Esparru Estrategikoaren esparruan - PLATFORMA 2019-2021. PLATFORMAko kideekiko lankidetzak lan-esparru interesgarriak eman ditu, bai erakunde-mailan, bai lankidetzan.

Agenda globalean (Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorreko Helburuak, GIH), Lehendakariak Nazio Batuen Goi mailako Foroan esku hartu zuen, uztailan, New Yorken, eskualde europar bateko lider bakar gisa.



Era berean, Europako Batzordearen eta Eskualdeetako Komitearen kontsulta publiko eta lan-agiri desberdinetan parte hartu zen, GIHen estrategia europarra, ibilbide-orria eta Agenda 2030 hizpide.

Bestalde, Euskadi Basque Country 2030 Agenda nabarmendu zen, GOLD txostenaren (Tokiko Demokrazia eta Deszentralizaziori buruzko Munduko Txostena) atal europarrean.

Hezkuntzaren eremuan, eta, zehatzago, lanbide-heziketaren eta goi-mailako ikaskuntzen eremuan, 2019a finkapen-urtea izan da. Izan ere, "Monitor 2019" delakoa (hezkuntzaren eremuko Batzordearen urteko txostena) nabarmendu zen unibertsitate eta enpresa arteko euskal strategiaren eta euskal lanbide-heziketaren praktika on gisa. Era berean, Hezkuntzako sailburua eta Lanbide Heziketako sailburuordea (biak ere Eusko Jaurlaritzakoak) gonbidatu zituzten European Education Summit bilkuran parte hartzera, irailaren 26tik 27ra, Bruselan.

2019ko beste mugarri nabarmenetako bat izan da Euskal Lanbide Heziketa eta TKNIKA (Eusko Jaurlaritzak sustatutako LH zentroa) aukeratu direla LHko Bikaintasuneko eredu europarren artean: "EXAM 4.0" proiektu europarra aukeratu da, TKNIKA lider duela, bazkide europarren partaidetzarekin, 4.0 industriaren eremuan, LHn bikaintasunaren deialdi europarrak finantzatu dituen bikaintasuneko 5 eredu europarren artean.

Bestalde, TKNIKA, Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin batera, Europako Batzordeko lantalde mugatuetan eta ELGAREN foroetan parte hartzeko gonbidatu dute, etorkizuneko hezkuntza-agenda adosteko.

Nabarmentzekoa da Euskadiko LH zentroek ekimen eta ekintza europarretan duten proaktibotasuna, besteak beste LHren Aste Europarrean, eta azpimarratzekoa da EBK finantzatutako hainbat proiektu daudela, Euskadiren partaidetza dutenak eta LH euskaldunen ikusgarritasuna islatzen dutenak agenda europarrean.

Bestalde, eta Berrikuntzaren Agentzia Europarrak (JRC) proposatuta, Euskadin Europako Batzordearen eta Unibertsitate europar eta euskaldunen lan-bilera egin zen, berrikuntzaren, espezializazio adimentsuko strategiaren eta goi-mailako hezkuntzaren eremuko adierazleekin lotuta.

Unibertsitate europarren aliantza-ekimenean, 3 euskal unibertsitateei aholkularitza eman zaie hezkuntza-bikaintasunaren etorkizunaren eta berrikuntza zirkularraren aldeko aliantza horietarako hautagaitzetan.

Unibertsitateko eta mugaz gaindiko lankidetzak eta nazioartekotzeak (batez ere, Erasmus Mundus Masterren bidez) ere ibilbide garrantzitsua izan dute 2019an zehar.



### **3. Beste bisita eta elkarretaratze batzuk**

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak ehunka bilera eta topaketa interesgarri antolatu ditu euskal politika eta ekonomiako sektore esanguratsuentzat, Europako erakundeak eta beste elkarte batzuk ordezkatuta egonik, euskal interesak posizionatzeko lehentasunezko dossierrak jorratu eta iritzi, esperientzia eta harreman-truke interesgarriak egite aldera.

### **4. Aktualitateko konferentzia eta debateetan izandako parte-hartzea. Euskadirentzat interesa duten ekitaldi eta informazio-bileren antolakuntza eta bertaratzea**

**5. eranskinean**, parte hartu den ekitaldi, mahai-inguru eta eztabaiden zehaztasunak ikus daitezke, baina, jarraian, interesgarrienak iruditu zaizkigunak aipatu dira.

### **5. EBren inguruko sare, organizazio eta foroetan egindako lana**

Nabarmentzekoa da Euskadik Ikerketa eta Berrikuntzako Eskualde Europarren Sareko gobernu-organoetan parte hartzen duela, sareko Policy taldeko kide baita. Era berean, Euskadik zuzentzen du, modu bateratuan, espezializazio adimentsuari buruzko lantaldea, eta energiaren eta klima-aldaketaren lantaldean parte hartzen du.

Gainera, Arku Atlantikoko Batzordeko Idazmahaiko kide da, eta bertako gobernantza-organoen bileretan parte hartu du. 2019an, Batzordeko Idazmahaia eta Biltzarra azaroan egin ziren, Oporton (Portugal). Bertan, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak, Europako Gaien zuzendariak eta Euskadiren EBrako ordezkariak parte hartu zuten. Batzordearen osoko bilkuraren bileran ere parte hartu zuten, urrian, Palermon (Sizilia, Italia). Euskadik, halaber, Arku Atlantikoko Batzordearen lantaldeetan eta horiek urtean bi aldiz antolatzen dituzten "hub" bileretan parte hartzen du. 2017an, Itsas Energiaren eta Energia Berriztagarrien lantaldearen koordinazioaz arduratu zen. 2019ko ekainean, Arku Atlantikoko Batzordeko Garraioen lantaldearen koordinazioa bereganatu zuen Euskadik, eta, irailean, jardunaldi bat antolatu zuen Bilboko Portuan, Europaz gaindiko garraio-sare horiek berrikusteko. 60 partaidetik gora egon ziren jardunaldiotan.

Gainera, Oporton Makroeskualde Atlantikoari buruzko Tasc Force bat sortzea erabaki zen. Hori koordinatzeaz ere Euskadi arduratzen da.

Euskadi, 2019an, Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziaren Biltzar Nagusira joan zen, urrian, Palermon (Sizilia, Italia), eta partaidetza aktiboa dauka Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziako Klima Aldaketaren Tasc Forcean, bai eta beste Task Force edota lantalde batzuetan ere.

Vanguard Initiative sareko kide sortzaileetako bat da Euskadi. Bertan, kideen artean, gaur egun 35 eskualde europar daude, eta 2020tik aurrera, Zuzendaritza Komitean sartuko da.

Kulturaren eremuan, Europar Batasunerako Euskadiko Ordezkaritzak koordinatzen du Regional Initiative for Culture and Creativity (RICC) sare europarra. Bertan, Kultura eta Sormen Industrien eremuko 26 eskualde sartzen dira. Era berean, Etxepare Institutua EUNIC sareko nodo europarreko kidea da. Bertan, EBko Kultura Institutu Nazionalak batzen dira.

Hezkuntzaren eremuan, Eusko Jaurlaritza da EARLALL sarearen buru.

Era berean, NPLD sarearen kide da Euskadi, hizkuntza ez hegemonikoak sustatzeko; PLATFORMAko kide ere bada, hau da, lankidetzaren eremuan toki eta eskualdeetako agintaritzen plataforma europarreko kide, bertan sartzen direlarik Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Euskal Fondoak.

Nekazaritza eta elikadurarekin lotutako gaietan, Eusko Jaurlaritzak Genetikoki Aldatutako Erakunderik gabeko Sareko Komite Exekutiboan parte hartzen du, bai eta REGAL sarearen zuzendaritzan ere (Gastronomiaren eta Elikaduraren aldeko Eskualdeak).

Apirilean, Eusko Jaurlaritzak konpromiso-gutuna sinatu zuen ERIAFF sarearekin (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry), eta, harrezkero, bertako Koordinazio Komiteko parte da. Halaber, sare horretako Baso Eskualdeetako Lantaldeko kide aktiboa da.

Era berean, Sare Euromenditarreko presidentzia dauka Euskadik. Bertan, mendiko nekazaritzarekin lotutako eskualdeak batzen dira.

Euskadiren partaidetza duten gaikako sare guztiak **6. eranskinean** jasotzen dira.

## **6. Europako Erkidegoko zuzenbideari buruzko espedienteen jakinarazpena eta komunikazioa**

Aipatu dugun bezala, euskal erakundeen ohiko lanen artean sartzen da, naturala den bezala, Europar Batasunean jarduketak egitea. Europako Erkidegoko zuzenbidea bete beharrak sortzen dituen obligazioen ingurukoak izaten dira batez ere jarduketak. Nabarmentzekoa da Europako Gaietarako Zuzendaritzak, Estatuko Administrazioarekin egiten diren komunikazioak Autonomia Erkidegoan koordinatzeko ardura duen organoa denez, Estatuko Laguntzen eta Erkidegoko Zuzenbideko Arau-hausteen Prozeduren inguruan Jaurlaritzako sailekin egin duen aholkularitza-lana.

Arlo honetan nabarmentzen dira, alde batetik, Lehiaren eta Estatuaren Laguntzen Zuzenbidearekin zerikusia duten jarduketak. Hala, berriaz egiten da lan Euskal Autonomia Erkidegoan emandako laguntzen espedienteak Europako Batzordeari jakinarazten, hala agintzen dutenean, Batzordeak dossier jakin batzuei buruzko informazioa emateko dituen betekizunak betetzen eta laguntzei buruzko datu estatistikoak bidaltzen.

Europako Erkidegoko Zuzenbidearen Arau-hausteen Prozeduren arloan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko eta aholkularitza eman eta irtenbideak bilatzeko gure betebeharra betetzen jarraitzen dugu Euskal Autonomia Erkidegoa inplikaturik dagoen prozedura guztietan.

## **7. Erkidegoko gaien komunikazioa eta zabalkundea**

Beste urte batzuetan egin den bezala, 2019an eguneratu egin da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren webguneko edukia, euskadi.eus atarian.

Bestalde, 2019an gaurkotasun europarreko informazioa ikuskatzen, hobetzen eta zabaltzen jarraitu da (barne direla finantziario europarreko lerroak, gaurkotasuneko txostenak, bazkideen bilaketak, eta lizitazio europarrak, besteak beste) Euskadin informazio europarrari buruz dagoen tresna eta atari nagusian, hots, Europako Informazioaren Euskal Sarearen (EIES) webgunean: [www.revie.euskadi.eus](http://www.revie.euskadi.eus). Era berean, ad hoc gaurkotasun-atalak sustatu dira, besteak beste hauteskunde europarrei buruzkoak. Webgune horrek hamabost egunez behin gaikako aldizkariak egiten ditu, eta eduki hori euskadi.eus atariarekin eta Euskadiko erakunde publikoetako webguneekin lotzen du.

Bestalde, 2019an Europako Gaien Zuzendaritzak lanean jarraitu zuen, Europako Batzordearen argitalpen-zerbitzuak argitaratutako liburuxkak euskarara itzultzen. Liburuxka horiek Europako Informazioaren Euskal Sareko kideen artean banatu ziren.

Euskarara itzultitako liburuxkak honako hauek izan ziren:

- La Unión Europea. ¿Qué es y qué hace?/ Europar Batasuna. Zer da eta zer egiten du?. Liburuxka, euskaraz, helbide honetan eskuratu daiteke: [Europar Batasuna. Zer da eta zer egiten du?](#)
- Garantía del cumplimiento medioambiental/ Ingurumen arauak betetzearen bermea. Liburuxka, euskaraz, helbide honetan eskuratu daiteke: [Ingurumen-arauak betetzearen bermea](#)
- El Pilar Europeo de Derechos Sociales / Eskubide Sozialen Zutabe Europarra. Liburuxka, euskaraz, helbide honetan eskuratu daiteke: [Eskubide sozialer zutabe europarra](#)
- Comprar por internet en la UE / Internet bidezko erosketak EB-n. Liburuxka, euskaraz, helbide honetan eskuratu daiteke: [Internet bidezko erosketak EB-n](#)

### Europako Parlamenturako Hauteskundeak:

Parlamenturako Hauteskundeen gaien maila politiko, ekonomiko eta sozialean litezkeen galderei erantzuteko, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, Europako Informazioaren Euskal Sareak (EIES) eta Euskal Herriko Unibertsitateak dibulgazio-jardunaldi bat antolatu zuten, "Jokoan duguna" izenburupean.

Jardunaldia otsailaren 6an egin zen, 16:30etik 18:00etara, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gradu Aretoan (Arabako campusa). Hizlarien artean, honakoen partaidetza nabarmendu behar da: Miguel Ángel Peña, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanorde koordinatzailea; Jaume Duch, Europako Parlamentuko Komunikazioko zuzendari nagusia; eta Mikel Landabaso, Europako Batzordeko Komunikazioko zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Europako Gaien zuzendariak moderatu zuen jardunaldia.

#### **IV. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZAREN ARLOAN EGINDAKO JARDUKETAK**

"Akitania-Euskadi Euroeskualdea" Lurralde Lankidetzako Europako Taldea (LLET) honako hauetan oinarrituta sortu zen: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 5eko 1082/2006 (EE) Erregelamendua, erregelamendu hori benetan aplikatzeko behar diren neurriak hartzen dituen urtarrilaren 18ko 37/2008 Errege Dekretua, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitania Eskualdearen artean 2011ko abenduaren 12an sinatutako Hitzarmena eta Estatutuak.

Hitzarmena eta Estatutuak berrituta, 2017ko urtarrilaren 30az geroztik, Nafarroako Foru Erkidegoa "**Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdea**" izena daukan euroeskualdeko kide da, ofizialki. Urteko aurrekontua 1.650.000 eurokoa da.

Euroeskualdean ia 9 milioi biztanleko lurralde zabala sartzen da; bertan dira, halaber, EBren % 2 ingururen pareko azalera eta BPG.

Euroeskualdea osatzen duten hiru lurraldeen ekonomia, gizartea eta kultura garatzen lagunduko duten lankidetzajarduerak burutzea da LLETaren helburu orokorra. Orobat, euroeskualdea toki-, eskualde- eta nazio-istantzietan eta Europakoetan zein nazioartekoetan ordezkatzeko da beste helburuetako bat.

Akitania / Euskadi Euroeskualdeko Plan Estrategikoa, 2014ko abenduaren 19an Hendaian aurkeztu zena, LLETren urte anitzeko "ibilbide-orria" da. 2018an eguneratu zen.

Euroeskualdeak urtero egiten dituen jarduketa garrantzitsuenen artean, mugaz harandiko proiektuentzako diru-laguntzen deialdia dugu, proiektuok Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako erakundeen arteko lankidetzak sustatzen baitute.

2019an, proiektuak finantzatu dira honako arlo hauetan:

- Kultura, hezkuntza, gazteria, lanbide-heziketa, kirola eta eleaniztasuna: Lehen deialdiak 450.000 euro izan zituen, "Euroeskualdeko herritarrak" estrategiako 1. ardatza jorratzeko. Bertan, 19 proiektu finantzatu ziren.
- Aeronautika eta aeroespazioa, (bio)osasuna, nekazaritza eta nekazaritza-elikagaien industria, energia berriztagarriak, itsasoko eta itsasertzeko baliabideak, basoak, egurra eta eraikuntza jasangarria izan dira bigarren deialdian irekitako sektoreak, eta horren barruan sartu dira, era berean, "Ezagutzaren, berrikuntzaren eta enpresa-lehiakortasunaren ekonomia" strategiaren 2. ardatzaren baitan lehentasunezko gisa jo diren arlo guztiak. 350.000 euroko hornidurarekin, 7 proiektu finantzatu dira.

Aurkeztutako proiektuak hautatzean, hainbat alderdi lehenetsi dira diru-laguntza jasotzen duten proiektuak aukeratzeko orduan. Horien artean daude, besteak beste:

- Proiektuak dakarren interesa eta originaltasuna.



- Proiektu horren inguruan garatutako animazio-programaren kalitatea eta aberastasuna.
- Inplikaturako eragileen lurralde-ordezkarritasuna eta sarearen aniztasuna.
- Eragileen ibilbidea.

Lankidetzaren esparru estrategikoak Akitania-Euskadi euroeskualdeko lankidetzaren modalitate espezifikoak dira. Finantza-tresna horien bidez, 2014-2020 aldirako Euroeskualdeko Plan Estrategikoaren lehentasunak garatzen dituzten egiturazko agenteekiko lankidetzaren garatzea da, eta, horretarako, proiektuen deialdiak egiteko formatua ez da tresna baliagarria.

2019ko ekitaldian, kolaborazio berriak sinatu dira:

- BIHARTEAN (2019-2020): Lankidetzaren esparru honen helburu nagusia Euroeskualde inguruan mugaz gaindiko ekonomia indartzea da. Bazkide dituzte Baionako Merkataritza eta Industriako Ganbera, Gipuzkoako Merkataritza Ganbera eta Nafarroako Ganbera. Eta bere jarduketaren nagusietan honako hauek jorrotzen dira: tokikoaren nazioartekotzea, euroeskualdean enpresa txiki eta ertainei arreta emateko zerbitzuak, eta interclustering ekintzak (kolaborazioak sustatzea).
- COMPETITIV'eko. Elkarte publiko-pribatua da, eta mugaz gaindiko 3 mugaklusterren iraunkortasuna baimentzea du helburu: ADDITIVALLEY, BIG DATIA eta INNOVMEDIA Alliance. Bazkide hauek dituzte: SODENA, Gipuzkoako Merkataritza Ganbera, eta CCI Bayonne Pays Basque. Merkataritzako eginkizunak eta komunikazioko jarduketak egiten ditu, batez ere.
- KOMPAR: Euroeskualdeko hiritartasuneko proiektuen deialdian sartzen da. Gizartearen eta osasunaren sektoreetan mugaz gaindiko arloan ikasleentzako enplegarritasuna areagotzea du helburu. Bazkide hauek dituzte: IES Plaiaundi BHI, EASO Politeknikoa, MEKA Lanbide Eskola, Nazaret, Eskurtze Institutua, Inmakulada Tolosa, Nafarroako Eskola Politeknikoa, Etcharry Formation, IRTS Talence, Pierre Bourdieu Gizarte Laneko Institutua, AFEC Bayona. Gaitasunen erreferentzia-puntuak alderatu eta baliozkotzeaz, erakartzeko beharrian osagarriak identifikatzeaz eta ECVET bidez egiaztatzeaz arduratzen da. Ikasle eta irakasleentzako mugikortasun birtuala eta aurrez aurrekoa sustatzen eta partaideen prestakuntza indartzen ere aritzen da.
- SASI ARDI: Bazkideak Sasi Artalde Elkarte, Euskadiko Sasi Ardi Federazioa eta Sasiko Elkarte dira. Loditzeko tailer esperimentalak antolatuz, merkatuaren eta kostuen azterketak egin, eta Basque Culinary Center-ekin lankidetzaren errezeta-liburu bat egiteaz arduratzen da.

Gainera, lehendik zeuden lankidetzaren esparruetako batzuk berriak dira:

- "Euroeskualdeko Erasmus"
- "Aquitaine.eus": Sortzaile berriak Akitania berrian
- "Zubiak": Irratsaioa euskaraz
- "Errugbia": Mugaz gaindiko errugbiko jardueraren esparru berriaren ezarpena

POCTEFA 2014-2020 proiektuko hirugarren deialdian, Programazio Komiteak, Jacan 2019ko urriaren 15ean egindakoak, finantzatzeko zituen proiektuak aukeratu zituen. Horien artean 3 nabarmenak dira, Euroeskualdeak aurkeztu zituenak edo hura partaide dutenak:

- FormaNAEN:

Mugaz gaindiko prestakuntza garatzeko proiektua da, euroeskualdeko lan-merkatuan txertatzeko erraztasunak jartzea helburu.

Mugaz gaindiko enpleguari buruzko diagnostikoak (2018an argitaratuak) ezartzen zenez, mugaz gaindiko enplegu-fluxuak askoz hauskorrak dira Euroeskualdean, EBko beste muga batzuetan baino. Azterketaren arabera, langileen fluxuen oztopo nagusietako bat hizkuntza zen; halaber, aurkitutako zailtasun nagusietako bat mugaz gaindiko prozedurei buruzko ezagutza falta zen, lana, zerga-sistema eta garraioa bezalako gaitan.

Ondorioz, mugaz gaindiko enplegua eta prestakuntza zigortzen zituzten hainbat egoera sortu ziren. Alde batetik, 3 eskualdeetako biztanleriak duen prestakuntza Europako batez bestekoa baino altuagoa da, Europa 2020 estrategiaren helburuen gainetik; hala ere, Euskadik eta Nafarroak erdi-mailako kualifikazioen defizita dute. Bestalde, 3 eskualdeetako enpresa batzuek arlo eta negozio batzuetan eskulana urria dela adierazi dute.

Egoera horren ondorioz, FormaNAEN proiektuak eskaintza kualifikatua garatu nahi du, bideratuagoa, eta mugaz gaindiko errealitateetara hobeto egokitzen duen prestakuntza duena, lurraldeko beste eragile batzuekin lankidetzan.

"Forma Naen" proiektuak 746.875 euroko aurrekontua dauka, bai eta POCTEFA finantziarioa ere, % 65ekoa, hots, 485.468 eurokoa.

- COMPET+:

Enpresa txiki eta ertainen berrikuntza eta enpresen lehiakortasuna sustatzea da proiektu honen helburu nagusia. Horretarako, mugaz gaindiko fluxu ekonomikoak neurtzen ditu, defizitarioak diren jarduerak ekonomikoak identifikatzen ditu, eta balio-kateak osatzen ditu, mugaz gaindiko eskualdeko enpresak atzerrian bilatzen diren jardueretan birkokatze.

Mugaz gaindiko fluxu eta jarduera ekonomikoen azterketa zehatza egin ondoren, eskualdeetan garatu ez diren fluxuak antzeman dira, ekoizpen-bitartekoak egon badauden arren.

Balio-kate osoan oinarrituta, eskaintza bateratua garatu nahi da. Horretarako, 3 lurraldeetako RIS3ekin lotutako sektoreetako plataformetan, talde handietan eta enpresa motorretan identifikatu behar dira proiektuak.

Bide horretan, proiektuaren bidez balio-kate bereko enpresak lotu nahi dira, eta mugaz gaindiko sinergiak sortu enpresa motorren eta enpresa txiki eta ertainen, teknologia-zentroen eta abarren artean.

Bere aurrekontua, guztira, 862.895,00 €-koa da, POCTEFaren finantziarioarekin, 560.881,75 €-tan.

### - TRANSFERMUGA-RREKIN:

Ekimen honek erronka bati erantzutea du xede: mugaz gaindiko garraio-eskaintza jasagarria hobetzea, eremu horretan pertsonen mugikortasuna eta lekualdaketak sustatze aldera. TRANSFERMUGA proiektua (Euroeskualdeak berak garatua, 2012an hasi zenetik) eta ELGARREKIN proiektua (Hendaiako Geltokian polo multimodala garatzekoa) fusionatzearen emaitza da proiektua.

Garraio intermodalaren eta mugaz gaindikoaren eskaintza finkatu nahi du Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdean, eta, horretarako, komunikazioa eta zerbitzuen garapena hobetzen duten tresnak garatzen ditu, eta mugaz gaindiko lekualdaketetan intermodalitatea sustatzen duten azpiegiturak sortzen.

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualde berriak zuzendutako proiektua da, eta hiru onuradun ditu: Euskal Trenbide Sarea, SNCF Mobilités, eta Pays Basque - Adour Mugikortasun Sindikatua (SMPBA).

Bere aurrekontua, guztira, 3.757.203,94 €-koa da, POCTEFaren finantziarioarekin, 2.442.182,56 €-tan.

**Pirinioetako Lan Elkartea (PLE)** 1983. urtean sortu zen, eta honako kide hauek osatzen dute: Akitania Berria, Okzitania, Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi, eta Andorrako Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Erakundea.

2019an, Aragoiko Gobernuaren txandakako presidentziaren bigarren urtean zehar, PLEko Komite Exekutiboak lau bilera egin zituen (urtarrilak 22-23, apirilak 8-9, ekainak 12-13, eta urriak 3), eta azaroaren 28an Osoko Bilkuraren Kontseilua egin zen Jacan.

2019. urtean zehar, jarduketak hauek egin eta sustatu dira:

- PLE da Espainia-Frantzia-Andorra arteko Lurralde Lankidetzako Programa Operatiboa Kudeatzeko Agintaritza (POCTEFA) 2014-2020 aldirako. EGEF Funtseko 190 milioi euro ditu ia, hurrengo deialdietan onartzen diren mugaz gaindiko proiektuen gastuen % 65era arte finantzatu ahal izateko.

2019an zehar, aurrera egin da POCTEFA 2014-2020ren bigarren deialdian programatutako 62 proiektuen jarraipena egiteko orduan, eta hirugarren deialdia ebatzi da. Bertan, EGEFen 35,8 milioi euro programatu dira (aurrekontu osoaren % 20), 43 proiektu hautatuta; horietako 20 euskal bazkideekin.

Bestalde, POCTEFA 2007-2013ko gerakinarekin, hainbat jarduketa egin dira PLEko lurraldeetan eta Agintaritza Nazionaletan, gerakina mikroproiektuen deialdia kudeatzeko erabil dadin lan egiteko. Era berean, Pirinioetako Lan Elkartek eskatu du Espainia-Frantzia-Andorra arteko Lurralde Lankidetzarako hurrengo Interreg Programa Operatiboa (2021-2027) Kudeatzeko Agintaritza izaten jarraitzeko.

- Bestalde, Pirinioetako Estrategia 2018-2024 barruan, partaidetza instituzionaleko prozesua garatu zen. Hala, bilerak egin ziren lurralde guztietan, strategiaren edukia azaltzeko eta horiek aplikatzeko ideia eta gomendioak jasotzeko asmoz. Euskadin, bilera hura martxoaren 20an egin zen, eta, bertan, hainbat eragile publikok parte hartu zuten. Eragile horiek Idazkaritza Nagusiarekin eztabaidan aritu ziren, Euskadin PLEren Estrategia ezartzeko moduari eta partekatu zitezkeen lurralde-lankidetzako ekintzei buruz. Ondoren, Komite Exekutiboak Pirinioetako Estrategiaren azken agiria eta partaidetza-prozesua baliozkotu zituen, etorkizunean erakunde europarretan aurkezteko, Bruselan.

Pirinioetako Estrategiako “Lurraldeko Ekimenen eta Erakarpenaren sustapena” deritzon 2. Ardatza eta Garapen eta Dinamizazioko Unitatea (UD2) tresna estrategikoa sustatzeko, hiru lantalde jarri ziren martxan. Hala, urriaren 16an, 17an eta 18an, gaikako taldeen lehen saioak egin ziren, gazteriaren, osasunaren eta kultura-ondarearen arloan, beren helburu operatiboak zehazteko eta mugaz gaindiko lankidetzako proiektuen etorkizuneko ideiak lantzeko asmoz (2020tik aurrera garatzeko).

Era berean, strategiaren barruan, PLEk B-Solutions proiektua zuzentzen du: «Larrialdi medikoek mugak ezabatzen dituztenean», mugaz gaindiko osasun-larrialdietako esku-hartzea errazteko. Horren harira, mugaz gaindiko bi aldetarako hitzarmenak izapidetu ziren mugako lurraldeetako osasun-zerbitzuen artean (bi eskualde frantses eta lau eskualde espainiar), tartean Mugaz Gaindiko Lankidetzako Hitzarmena, Akitania Berria-Euskadi eremuko premiazko laguntza medikoa hizpide.

- **Klima Aldaketaren Behatoki Piriniarra** indartzen jarraitu da; batez ere, OPCC2, PHUSICOS (HORIZON 2020), MONTCLIMA–SUOE eta MIDMACC LIFE+

proiektuetan, eta OPCC-ADAPYR proiektuaren hautagaitza onartu da, POCTEFA 2014-2020ren hirugarren deialdian.

## **V. ETORKIZUNERAKO JARDUERA-PROPOSAMENAK**

### **A. Transbertsalki jarduteko proposamenak**

2020. urtea ezin zen okerrago hasi. COVID-19ren pandemiaren ondorioz sortzen ari den krisi sanitario, sozial eta ekonomiko izugarria aurrekaririk gabeko krisi bat da, ez soilik Europa mailan, baizik eta mundu-mailan.

Europa, eta batez ere bere herrialde eta eskualdeetako batzuk, pandemia horren foku nagusietako batzuk izan dira. Hildako pertsonen, gaixoen, eta oraindik neurtu ezin diren osasun-ondorioak dituzten pertsonen kopurua amaiezina da, eta, gainera, dimentsio ikaragarritzko krisi ekonomikoa datorkigu. Ondorioz, alde batetik, Estatuko eta Batasuneko aurrekontuen zati handi bat ondorio horiek arintzeko erabili beharko da, eta, bestetik, ziur aski birpentsatu egin beharko da hemendik aurrera zein mundu, gizarte eta ekonomia eredu sustatu nahi den.

Europako erakunde gehienek jarduketa garrantzitsuak abiarazi dituzte ondorio ekonomiko horiek arintzeko. Hona hemen nabarmenenak: Europako Banku Zentralaren jarduera, zorra erosteko programaren bidez, EBko herrialdeetako zorraren arrisku-primak ez daitezen igo 750.000 eurotik gorako zenbatekoan; Europako Batzordeak abiarazitako bi programak, CRII eta CRII+, (“Coronavirus Response Investment Initiative”), zeintzuei esker 2014-2020 aldian egiteke zeuden kohesio-funtsak bideratu ahal izan baitira krisiaren ondoriozko gastu sanitario eta ekonomikoak ordaintzera; iragan apirilaren 9an eurotaldean 540.000 milioi euro onartzea, eta, ondoren, Europako Kontseiluan, apirilaren 23an, berrestea, estatueterako likidezialerroetan (Egonkortasuneko Mekanismo Europarraren bidez), enpresentzat (Inbertsioen Europako Bankua tarteko) eta kaleratze masiboak saihesteko (SURE programa berriaren bidez).

Hala ere, Europako Batzordeak berriaz aitortzen du erantzun nagusia estatu-kideen aurrekontuetatik etorriko dela. Eta, hala, iragan martxoaren 19an, Aldi Baterako Esparru bat ezarri zen, estatu-kideek osorik erabili ahal izan dezaten estatuko laguntzei buruzko arauetan aurreikusitako malgutasuna, COVID-19k eragin duen testuinguruan ekonomia babeste aldera. Baina, Aldi Baterako Esparru hori aplikatzean arindu egingo dira herrialdeen arteko asimetriak, horiek defizit berriak berenganatzeko, zor berriak hartzeko...duten gaitasunen arabera. Asimetria horiek, gainera, indartu egingo dira, EBko estatuetan osasun-krisiak dituen eragin ezberdinen ondorioz.

Horrenbestez, beharrezkoa da erakunde europarrek erantzunak emateko bigarren maila bat izatea: errekupeazio-plan bat, ekonomia europarrak oro har izan duen kontrakzioari aurre egin ahal izateko eta barneko merkatua leheneratzen laguntzeko, Aldi Baterako Esparruaren eta pandemiari lotutako beste gai batzuen ondorioz ahulduta edo zatituta geratuko baita. Errekupeazio-plan horrek hazkunde iraunkor eta

inklusiboa sustatu beharko du, eta, horretarako, EBko lurraldeen erresilientzia-gaitasuna indartuko du, eta kalte gehien jasan duten estatu eta eskualdeei lehentasunezko arreta emango die, irizpide jakin batzuen arabera: aurrekontu-eragiketarako gaitasun txikiagoa, pandemiaren eraginaren maila, eta konfinamenduaren ondorio ekonomikoen eragin gehien jasan duten ekoizpen-sektoreen pisu erlatiboa.

Errekuperazio-planak datorren hamarkadarako bi jarduera-ardatz nagusiekin egin beharko luke bat: Itun Berde Berriarekin eta EBrako Trantsizio Digitalarekin. Bi erronka global horiek tokiko erantzunak behar dituzte. 2021-2024rako transferentzia-mekanismo berri bat eta 2021erako inbertsio-plan berri bat egongo dira. Errekuperazio Plan berria izango da, eta bi tresna edukiko ditu (transferentzia eta maileguak), Kohesio Politikaren Funtsekin lerrokatuta eta Urte Anitzeko Finantza Esparru Plusera txertatuta (2021-2027).

Euskadiren iritziz, egun bizi dugun unearen larritasunaren ondorioz, beharrezkoa da proiektu integratzaile eta interdependente bat izatea, europarra bezalakoa, Batasuneko ekosistema indartuko duten politikak martxan jartzeko. Ezinbestekoa da EBko hiritarrak adiskidetuko dituen erantzun bat ematea, banan-banan lortu ezin diren irtenbideak eskainiko dituen proiektu baten bidez. Modu kolektiboan egiten bada aurrera, beharbada aurrerapena geldoagoa izango da, baina urrunago iristea bermatuko da.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Euskadiren posizio politikoan eta kontribuzioetan lan egiten jarraituko du, Europar Batasuneko ziklo politiko eta instituzional berriko politika desberdinen aurrean. Europa sozialagoa, lehiakorragoa, solidarioagoa, iraunkorragoa eta politikoagoa lortzeko lanean jarraituko da. Ikusgarritasun gehiago emango zaie eskualdeei Batasunaren etorkizuna zehazteko orduan, maila anitzeko benetako gobernantza lortzeko orduan jarriko da azpimarra, eta herritarrengana modu hurbilagoan iristeko ahalegina egingo da, batez ere gaur egungoa bezalako egoeretan, ezinbestekoa baita eraginkortasunez eta efikaziaz aritzea.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak jarraipen estua egingo du Europar Batasunaren Etorkizunari buruzko Konferentziaren gainean. Konferentzia hori Von der Leyen presidentek 2019. urtearen amaieran iragarri zuen, eta bi urteko iraupena izango du. 2020ko urtarrilaren 22an, Europako Batzordeak bere ideiak aurkeztu zituen, Konferentzia horri forma emateko. Hala, "eztabaida ireki, inklusibo, garden eta egituratua egin ahal izango da, jatorri desberdinetako eta gizarte-baldintza guztietako herritarrekin".

Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziaren esparruan, eta, zehatzago, Arku Atlantikoa Batzorde Geografikoan, Makroeskualde Atlantikoa eratzeko lanetan jarraituko da. Euskadik lan handia egin du 2019an zehar Atlantikorako makroeskualde-mailako estrategia eratzeko egokitasunari buruz hausnartzeko. Lan horren ondorioz,



aldi baterako lantalde/task-force bat ezarri da aipatu Batzordearen esparruan, aukera hori aztertzeko. Euskadik zuzentzen eta koordinatzen du lantaldea. Task-force horren lehen bilera 2019ko abenduan izan zen, Bruselan, eta bigarrena, 2020ko otsailean. Urte honetan zehar, hainbat bilera egingo dira eskualde atlantikoekin, EBren eskualde-mailako strategiaren bidez lankidetzarako urrats hori eman ahal izateko. Bilera horietan, lehendik zehaztutako lan-eremuak aztertuko dira, horien artean gobernantza eta finantziazioa azpimarratuta.

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeari dagokionez, 2020an honako ekintza hauek aurreikusten dira, besteak beste:

Bi proiektu-deialdi abiaraztea 2020rako, aurreko ekitaldiko eremu berberetan:

- Lehena, euroeskualdeko herritarren gaiei buruzkoa, besteak beste "kultura, hezkuntza, gazteria, kirola eta eleaniztasuna". 500.000 €-ko partida dauka.
- Bigarrena, "ekonomia, ikerketa eta berrikuntza" eremuan. 400.000 €-ko partida dauka.

Bestalde, aurretik ere adierazi den bezala, 2019ko udazkenean Interreg POCTEFA 2014-2020 programaren barruko 3. deialdiko proiektu onuradunak esleitu ziren. Horiek kudeatzeko agintaritza, zehazki, Pirinioetako Lan Elkarteak (PLE) betetzen du. Horien artean, 3 proiektu izan ziren hautagaiak, Euroeskualdeak proposatuta:

- FormaNAEN
- COMPET+
- TRANSFERMUGARREKIN.

2020an, euroeskualdeak proiektu horiek abiarazteko erronkari egingo dio aurre, eta, horretarako, horietan aurreikusitako jarduketak garatuko ditu.

Gainera, 2020. urteko jarduerak 2014-2020 strategiaren amaiera ekarriko du, eta 2021etik aurrera jarraitu beharreko estrategia berriari buruzko hausnarketarako bidea zabalduko du, 2021-2027 aldirako. Estrategia berri horrek, zehazki, euroeskualdearen barruan proiektuen eragile eta sustatzaileekin batera eraikitako ekintzak esparru zabalagoan garatzeko asmoa adieraziko du.

Azkenik, nabarmentzekoa da 2020an amaitzen dela bi urteko presidentzia. Euroeskualdea arautzen duten estatutuen eta hitzarmenaren arabera, izan ere, Nafarroari egokitu zaio 2018ko martxoaz geroztik. Ondorioz, eta arau-testu horietan ezarritako txandakako ordena jarraituz, Euskadik bere gain hartu du presidentzia, euroeskualdearen biltzarrean zehar, 2020ko martxoan, Gasteizen. Euroeskualdeko taldearekin batera, euroeskualdeko plan estrategiko berria egin eta onartzen laguntzea izango da gure erronka nagusia. Era berean, euroeskualdeak mugaz gaindiko lurraldean beren jarduketak garatzen dituzten eragile eta agente guztientzako erreferentziazko bazkide gisa hazten jarraitzea nahi dugu.

Pirinioetako Lan Elkartean, 2019ko azaroaz geroztik, Katalunia da presidentea hurrengo bi urteetarako, eta hurrengo Euskadi izango denez presidentea, lankidetzak estua egongo da Generalitat-arekin, batez ere Pirinioetako Estrategia ezartzeko orduan.

### **B. Sektorialki jarduteko proposamenak**

Zein dira Europar Batasunean 2020rako eta hurrengo urteetarako politika publikoetan aurreikusitako jardura-lerroak? Zein proposamen sektorialetan egingo du lan Euskadik eremu horietan?

2020an, urte anitzeko finantza-esparruaren (2011-2027) eta EBren finantziazio-tresna eta -programen gaineko lege-proposamenen negoziazioak izango dira bereziki jorratuko direnak, aipatu programazio-aldirako (2021-2027).

Bestalde, kontuan hartu behar da COVID osteko aroak planteamendu, eszenatoki eta aukera berriak ekarriko dituela, eta Euskadi horietan guztietan egoten saiatuko da.

Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan parte hartuko du legegileen lanean (EBko Kontseilua eta Europako Parlamentua), bere proposamenen bidez nahiz eskualde-sareen barruan adostutako proposamenen bidez (sareokin ohiko lankidetzak dugu), eskura dituen erakunde europarretan parte hartzeko mekanismoetan oinarrituta.

Kohesio-politikan, zehazki, Eusko Jaurlaritzak estu egingo du lan eskualde eta bazkide europarrekin interes komunen alde: eskualde guztientzako kohesio-politika indartsuari eutsiko dio, Europako lurralde-lankidetzako programak defendatuko dira, espezializazio adimentsuko estrategien (RIS3)<sup>6</sup> arteko sinergiak indartuko dira Europan, berrikuntzarako eskualdearteko inbertsioak egingo dira eta abar. Bide horretan, modu aktiboan parte hartuko dugu erantzun komun bat prestatzeko, eskualde-sareetako gure bazkideekin batera (Vanguard, ERRIN, IEPK), Europako Batzordeak berrikuntzan eskualdearteko inbertsioak egiteko tresna berriari buruz egin duen kontsulta publikoaren gainean (5. osagaia).

Era berean, Europako beste eskualde industrializatu batzuekin batera, interes publikoko proiektuak elkarrekin finantzatzeko aukerak aztertzen ari gara, gure atxikipenaren esparruan arlo horretan hartutako konpromisoaren jarraipena egiteko eta Vanguard ekimena legez sortzeko.

Enpleguaren eta gizarte-politiken esparruan, Europako Batzordeak Europa Sozialari buruz ezarri duen ibilbide-orriaren jarraipen zehatza egingo da. Ibilbide horren helburua da, hain zuzen ere, egungo erronkei eta aukerei erantzuteko gizarte-politika

---

<sup>6</sup>2020an zehar, Europako eskualdeek eguneratu egin beharko dituzte beren RIS3 estrategiak, Batzordeak RIS 2.0 direlakoetarako proposatutako baldintza berriei erantzuteko, bereziki horiek nazioartekotzeko eta gobernantza ona frogatzeko orduan.

europarrean laguntzea. Zehazki, Batzordeak proposatutako neurriak jarraituko dira, 2020an zehar garatuko direnak; besteak beste: EBko langileentzako bidezko gutxienerako soldata; genero-berdintasunerako estrategia europarra eta soldata-gardentasunaren gaineko neurri lotesleak; Europarako gaitasunen agendaren eguneraketa; Gazte Bermearen eguneraketa; plataformetako lanari buruzko goi-bilkura; zahartzeari buruzko liburu berdea eta txosten demografikoa; gizarte-ekonomiako plana; ijitoen gizarteratzeari eta berdintasunari buruzko ekimena; eta langabeziaren ziozko prestazioak bermatzeko araubide europarra. 2021ean, eskubide sozialen zutabe europarra, haurren bermea, desgaitasunaren gaineko estrategia, eta landa-guneetarako epe luzeko ikuspegia aplikatzeko ekintza-plana planteatuko du Batzordeak.

Era berean, 2020ko lehen seihilekoan zehar, gainerako autonomia-erkidegoen ordezkari gisa parte hartu du Euskadik Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak Kontseiluko Enplegu eta Gizarte Politika Arloan. Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak Kontseiluko ordezkari autonomia-erkidegoan honako zeregin hauek egingo dira: Gizarte Gaien Lantaldearen bilera teknikoetan parte hartuko da, eta, horietan, lege-mailakoak diren eta ez diren espedienteak jorratuko dira enplegu eta gizarte-politiken arloan, ondoren EBko Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak Ministro Kontseilura igortzeko; informazioa helaraziko zaie gainerako autonomia-erkidegoei; gainerako autonomia-erkidegoekin adostutako posizio komuna ezarriko da eztabaidan dauden espediente bati edo hainbati buruz; eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak Kontseiluan esku hartuko du, aipatu posizio komuna irakurtzeko.

Gizon eta emakumeen berdintasunerako, Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziaren barruan berdintasunaren gaineko Tasc Forceko lanak abiaraziko dira. Tasc Force hori Euskadik berak sustatu du, eta Emakunde eta Eusko Jaurlaritza ditu buru. Genero-berdintasunerako estrategia europarraren, soldata-gardentasunaren gaineko neurri lotesleak eta genero-indarkeriaren aurkako borrokaren jarraipen berezia egingo da.

Europako migrazio-politika globalak, 2015etik ohikoa den gisan, leku gakoa izango du EBko erakundeek eztabaidetan. Erakunde horiek lanean jarraituko dute, erantzun komun, eraginkor eta koordinatua emateko migrazioaren kudeaketari, elkartasunaren eta erantzukizunaren printzipioen esparruan. Arlo horretan, Europako migrazio-politikei buruzko espedienteen jarraipena egiteko lanarekin jarraituko da, batez ere Migrazioari eta Asiloari buruzko Itun berria (Batzordeak proposatuko duena) martxan jartzeari, errefuxiatuak birfinkatzeko gaiei, eta Asilo eta Migrazioaren 2021-2027ko Funtz berriari erreparatuta. SHARE proposamenaren garapenen gaineko jarraipen zehatza egingo da, EB mailan.

Ekonomiarekin eta finantzarekin lotutako gaietan, hilero egiten diren ECOFIN Kontseiluen jarraipena egiten jarraituko da, bai eta Europako Seihilekoaren prozesuko

etapa desberdinen jarraipena ere. Hala, bereziki erreparatuko zaie estatu-kideetako egoera ekonomiko eta sozialaren urteko azterketari eta herrialdeetara zuzendutako gomendioei.

Zerga-sistemaren eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren partaidetzara zabalik dauden ECOFIN lantaldeetan parte hartzen jarraituko da. Hala, 2020an zehar, Euskadirako interesgarriak diren lege-proposamen guztien jarraipena egingo da; horien artean sartzen dira sozietateen zergaren zerga-oinarri finkatuaren sorrera, EBko jarduera digitaletarako zerga-sistema parekideagoa, eta BEZa modernizatzeko neurriak.

Merkataritza-politikan, EBk hirugarren herrialdeekin martxan dituen merkataritza-negoziazioen egoeraren jarraipena egingo da. Zehazki, merkataritza-gerra irekiaren arloan dauden garapenen jarraipena egingo da, AEBko administrazioak EBko altzairu eta aluminioaren inportazioen gainean martxan jarri dituen neurri protekzionistak eta EBk hartzen dituen kontraneurriak aintzat hartuta.

2020an, adi-adi erreparatu beharko zaie 2020 osterako Nekazaritza Politika Erkidea NPE erreformatzeko negoziazioei. 1962. urtean hasi zen Nekazaritza Politika Erkidea, eta Europako politika aitzindarietako bat izan zen. Landa-guneak eta bitarteko guneak dira Europar Batasuneko lurraldearen % 91, biztanleriaren % 60, balio erantsi gordinaren % 43, eta lanpostuen % 56. Ukaezina da sektoreak duen garrantzia, Europar Batasunak garapen ekonomikoaren helburuak lor ditzan, kohesio eta elkartasuneko printzipioei jarraikiz, lanpostuak sor ditzan, elikadura-segurtasuna berma dadin, klima-aldaketaren aurka borroka dadin, baliabide naturalei erabilera jasagarria eman dakien eta energia berriztagarrirentzako trantsizioa gauza dadin.

Nekazaritza da landa-ekonomiako faktore gakoetako bat: nekazaritzako ustiategiek 28 milioi pertsona dituzte EBko landa-guneetan. Nekazaritzako ustiategien kopurua % 20 murriztu da azken urteetan; 2007. urtean 13.6 milioi izatetik 2013. urtean 10.8 milioi izatera.

Euskadin, Eusko Jaurlaritzak Landa Garapeneko II. Ardatzeko (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza LGENF) eskualdeko programa operatiboak mantentzen direla eta eskualde-dimentsioa I. ardatzera ere zabaltzen dela babestuko du. Horretarako, NPE berrian eskualdeko plan estrategikoak edukitzeko aukera gauzatuko da.

Eta arrantza-politika erkidean, Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtza eskualde-mailako bihurtzearen alde ere egingo da.

EBren garraio-politika Europaz gaindiko garraio-sare bat (RTE-T) da, 9 korridorek osatua, eta Batasuneko 27 estatuen bidez kontinentea zeharkatzen du, hazkundea eta lehiakortasuna sustatzeko. Bide handi horietako bat korridore atlantikoa da, Lisboa eta Mannheim/Estrasburgo lotzen dituena, Iberiar penintsula eta Frantzia, eta jakina, Euskadi zeharkatuz. Erresuma Batua EBtik irten denez, Irlanda laster sartuko da

korridore horretan. Eusko Jaurlaritzak berriaz defendatuko du 2030. urtea baino lehen korridorearen oinarritzko sarea osatzeko EBren konpromisoa bete dadila. “Europa konektatu” mekanismoak sareen elkarreragingarritasuna eta multimodalitatea sustatuko ditu, trenbide eta errepideen azpiegiturak, barruko eta itsasoko nabigazio-bideak nahiz mugikortasun seguru eta babestua garatu eta modernizatzeko. Europaz gaindiko garraio-sareak gehiago garatzeari lehentasuna emango zaio, eta, horretarako, bereziki erreparatuko zaie balio erantsi europarra duten mugaz gaindiko proiektuei. 2021-2027 aldirako, Europa Konektatu 2.0 Mekanismo berriak bermatu egingo du, Batasunaren barruan mugikortasun militarra hobetzeko azpiegitura egokitutakoan, azken hori bateragarria izango dela erabilera bikoitzarekin, beharizan zibilak nahiz militarrek kontuan hartuta.

Ikerketa eta berrikuntzako politikan, Horizon Europe (2021-2027) proposamenari buruzko negoziazioak izango dira 2020. urtearen protagonista.

Berrikuntzaren Kontseilu Europarraren proiektu pilotua bereziki aztertuko da. Proiektu horrek 2.600 milioi eurotik gorako aurrekontua izango du. Berrikuntzaren Kontseilu Europarraren proiektu pilotuak bikaintasun-arau berri bat sortu nahi du etorkizun handiko berrikuntzentzat, baina baita arriskutsuak izan daitezkeen horientzat ere.

Energiaren eta klima-aldaketaren politikan, 2020ko lehentasuna “*Green Deal*” delakoa izango da. Hiru osagai gakoren arabera antolatuko da Ituna: klima-anbizioa, lehiakortasunean oinarritutako berrikuntza, eta gizarte-justizia.

EBko lehentasunezko arlo politikoa da klima-aldaketa. Klima-aldaketa jorratzeko, Europak trantsizio energetikoa osatu behar du, hau da, eskari energetikoa murriztu beharko da, eta erregai fosilen ordez energia berriztagarriak sustatu beharko dira. EB aurrera egiten ari da bide horretan. Duela 10 urte ez zuen eskumenik gai horren gainean eta, gaur egun, politika energetikoa garatzen du. Hiru esparru landuko dira:

- Berotegi-efektuko gasen (BEG) murrizketa: Europako Batzordeak BEGn murrizketa % 50etik % 55era pasatzea du helburu, eta, horretarako, 2020an zehar Klimaren Europako Lege bat proposatuko du, 2050erako EB klimatikoki kontinente neutroa bihurtzeko legezko helburua ezartzeko.
- Energia berriztagarriak garatzea: Energia horiek EBko eskari energetikoaren % 20 estali beharko du 2020rako eta % 32 2030erako.
- Eraginkortasun energetikoa hobetzea: EBk hainbat neurri hartuko ditu, batez ere eraikinen eta garraio-sektorearen gainean.

Hala, Europako Itun Berderako Inbertsio Plana, Europa Jasangarrirako Inbertsio Plan gisa ere ezagutzen dena (SEIP ingelesez), “*Green Deal*” inbertsioaren ardatza da. Bertan ezarritako xedek lortzeko, SEIPEk gutxienez bilioi bat euro bideratuko ditu datorren hamarkadan inbertsio jasangarriak egitera. 2020an zehar argitaratuko da.

Gainera, Batzordeak 2019ko abenduan Bidezko Trantsiziorako Mekanismo bat proposatu zuen. Mekanismo horrek 100.000 milioi euro bideratuko ditu, gutxienez,

2021-2027 aldian zehar inbertsioetan, trantsizioaren eragin gehien jasango duten eskualdeetako langile eta hiritarrak babesteko. Mekanismo horrek bidezko trantsizio-funts bat edukiko du, 7.500 milioikoa, zuzenean funts europarretatik etorria.

Klimaren Lege horretan, 2020ko uda inguruan plan bat aurkeztuko da, berotegi-efektuko gas-isurien murrizketa % 50etik % 55era pasa dadin, 1990eko mailekin alderatuta. Horretarako, beharrezkoa izango da energiaren gaineko legedia berrikustea. Esparru horretan, sistema energetikoen interkonexioa, Europako itsasoko energia eolikoaren garapena, energia-iturri garbiak partekatzeko mugaz gaindiko eta eskualdeetako lankidetzaren igoera eta gasaren sektorearen deskarbonizazioa bezalako gaiak sustatuko dira.

Halaber, “eraikinetan berrikuntzaren olatua” jarriko da martxan (eraikinak izango dira kontsumitutako energiaren % 40), eta industria-estrategia berria abiaraziko da, eraldaketa ekologikoa eta digitala babesteko. Hartara, altzairuaren eta zementuaren sektorean energia-kontsumo handiko sektoreak deskarbonizatzea izango da helburua.

Era berean, 2020ko azaroaren 9tik 19ra bitartean Glasgown egingo den Klimaren Goi Bilkurari (COP26) adi erreparatuko zaio. Goi Bilkura horretan zehar, herrialdeek Klima Aldaketaren Kontrako Ekintzako Plan Nazional Orokor nagusiak aurkeztu behar dituzte. Herrialde sinatzaileek hartu duten betebeharrak hori 5 urtero egin behar da. 2020a da hurrengo data gakoa. Planek Parisko Akordioa babestu behar dute, eta tenperatura orokorra 1,5 gradu zentigradu igotzeko prozesua egonkortu. Oraingoan, herrialdeek 2015ean aurkeztutako planek tenperatura 3 gradu zentigradu igotzea eragiten dute.

Euskal industriak, gure ekonomiarako motor nagusia denez gero, aukera digitalak azkar eta osorik aprobetxatzeko erronka du aurrean. Alderdi hori funtsezkoa da gure industria lehiakorra izan dadin epe ertain eta luzean. Horrenbestez, Euskadik adi erreparatuko die Von der Leyen Batzorde berriak 2020an enpresa txiki eta ertainen politikari eta industria-politikari buruz aurkezten dituen proposamenei, bereziki eskualdeko erakunde zereginari, eta Vanguard Iniciativeren izaerari jarraikiz, eskala handiko industria-lankidetzaz ezartzeari, Europako balio-kateak indartzen lagun dezan. Eztabaidan gure esperientzia txertatuko dugu, bai alde bitara, bai gure partaidetza duten sare nagusien bidez (Vanguard Initiative; ERRIN; Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentzia; eta abar).

Era berean, etorkizuneko “*Digital Europe*” programa ezartzeko negoziazioek eta erkidego-tresna berri honen 2021erako lan-programaren proposamenei bere horretan jarraituko dute. Arreta berezia jarriko da zenbait arlotan: superkonputazioa, adimen artifiziala, zibersegurtasuna, eskumen digital aurreratuak, eta teknologia digitalak. Izan ere, eragin berezia dute euskal industria-sarean.

Von der Leyen Batzordeak Europaren eraldaketa digitalaren gainean iragarri duen orientazio politiko berria estrategia integral eta inklusibo batean zelan zehazten den bereziki aztertuko da.



Merkatu bakar digitala burutzeko, Euskadik 2020an zehar etorkizuneko Europa Konektatu Mekanismoaren (Digitala) legegileek hartzeke dituzten proposamen jarraipena egiten jarraituko du. Mekanismo horren helburua da, hain zuzen ere, 5G sareen hedapena finantzatzea garraio-bide nagusietan zehar eta gaitasun oso altuko banda zabaleko sarearen sorrera finantzatzea, zerbitzu digitalen garapena ahalbidetzeko eta, maila orokorragoan, gizartearen eta ekonomiaren eraldaketa digitala ahalbidetzeko. Azkenik, 2020an merkatu bakar digitalari buruzko bi lege-proposamen hartzea aurreikusten da: lineako pribatutasunari buruzko bat eta Zibersegurtasunaren gaineko Ikerketaren, Teknologiaren eta Industriaren gaineko Eskumenaren Europako Zentroari eta Koordinazio Zentro Nazionalen Sareari buruzkoa bestea.

Kulturaren, kultura- eta sormen-industriaren, garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren eremuetan, lan-sektoreko eremu gehienetan bezala, 2020ko mugarrira Europako hurrengo finantza-esparruaren (2021-2027) negoziazioak ixtea izango da. 2020an, elkarlanean jarraituko da Euskadi kidetzat duten plataforma, sare eta bazkide europarraren bidez eta erakunde europarrekin, besteak beste PLATFORMA, RICC, EUNIC edo EARLALL bezalakoekin, goian aipatutako lau politiken interesak defendatze aldera.

Hezkuntzan, “*New Skills Agenda*” delakoak, 2019-2024 Agenda Europarreko lehentasuneko sektoreekin lerrotatutako eskumenek eta espezializazioek, nahiz lanbide-heziketara eta goi-mailako hezkuntzara aplikatutako bikaintasun-ekimen europarrek egunean jarraituko dute. Industria 4.0ren eremuko eskumenak, adimen artifiziala, iraunkortasuna, edo kultura- eta sormen-industriak nahiz munduko erronken aurreko erantzuna eta ekintzailtza dira Euskadiren partaidetza duten sare eta plataforma europarrek zehaztutako lehentasunak.

2020. urtean, Europako Batzordeak jarraitutasuna emango die lanbide-heziketaren bikaintasunaren gaineko ekimen estrategikoei nahiz “unibertsitate europarrak” aliantzei. Bi esparruetan, bai EAEko lanbide-heziketak bai 3 euskal unibertsitateek lehentasun moduan ezarri dituzte mugikortasuna eta nazioartekotzea.

Garapenerako lankidetzaren eta Garapen Iraunkorrerako 2030eko Agendako estrategia europarraren eremuan, PLATFORMArekin adostutako euskal lehentasunak honako hauek izango dira: lankidetzaren deszentralizatuaren ahalmena azpimarratzea, politiken koherentzia sustatzea, hirugarren herrialdeekin lankidetzan aritzea, eta Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda garatzea.



Euskal lankidetzak lankidetzaren foro europarretan ere parte hartuko du, eta jarraitutasuna emango dio EB-PLATFORMA lankidetzaren esparru estrategikoko ekintzak gauzatzeari. Era berean, TALDen (agenda europarra, lankidetzaren deszentralizatuko eredu berritzaileen gainean) hirugarren herrialdeetan parte hartzeko modalitateak aztertuko dira, eta EB-Afrika strategiaren jarraipena egingo da.

Kultura-politikan eta kultura- eta sormen-industrietan, Euskadik ezagutzaren eta berrikuntzaren erkidegoetan, kultura- eta sormen-industrien eremuan, espezializazio adimentsuaren strategiaren kapitalizazioan, eskualdeko ekosisteman, iraunkortasunean eta kultura- eta sormen-industrietan izan dezakeen partaidetza prestatzen jarraituko da. RICC sare europarrarekin (Regional Initiative for Culture and Creativity) –EAE buru– eta CREADIS3 proiektuaren bazkide europarrarekin –Kultura Saila buru– ezarritako lehentasun guztiak landuko dira.

Etxepare Institutuak EUNIC sarean duen partaidetza 2020an ere gauzatuko da. Horretarako, Kanpoko Kultura Lankidetzaren eta Kultura Diplomaziaren Estrategia Europarrean aurrera egiteko lana finkatuko da.

Europako Errekuperazio Funtsa onar daitekeenez, aurreikuspenak aldatu egin daitezke. Funts horrek, zehazki, COVID-19k eragindako pandemiaren ondorioei aurre egin beharko die.

**1. ERANSKINA.**

**EUSKADIK ESQUALDEETAKO KOMITEAREN OSOKO BILKURETAN IZANDAKO PARTE-HARTZEAREN LABURPEN-TAULAK**

<b>Gertaera</b>	<b>Ordezkarria</b>	<b>Jarduera</b>	<b>Data</b>
133. osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b> Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-ALDE talde politikoaren bilera -Espainiako Ordezkaritzaren bilera -Osoko bilkura	2019ko otsailak 6 eta 7
134. osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b> Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-ALDE talde politikoaren bilera -Espainiako Ordezkaritzaren bilera -Osoko bilkura	2019ko apirilak 10 eta 11
135. osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b> Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	EZ ZEN BERTARATU	2019ko ekainak 26 eta 27
136. osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b> Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	EZ ZEN BERTARATU	2019ko urriak 8 eta 9
137. osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b> Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-RENEW EUROPE talde politikoaren bilera -Espainiako Ordezkaritzaren bilera -Osoko bilkura	2019ko abenduak 4 eta 5

**2. ERANSKINA****EUSKO JAURLARITZAK ESKUALDEETAKO KOMITEAN AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

<b>Irizpenaren izena</b>	<b>Egindako zuzenketak</b>	<b>Aurkeztutako zuzenketak</b>	<b>Onartutako zuzenketak</b>
<b>SEDEC-VI/040 Europa Sortzailea eta Kulturarako Agenda Europar berria</b>	2	1	1
<b>SEDEC-VI/047 Ikerketa eta berrikuntzaren agenda europar berria: Europak bere ibilbidea ezartzeko aukera</b>	1	1	1
<b>CIVEX-VI-037 Interneteko desinformazioaren aurkako borroka: ikuspegi europarra</b>	4	4	4
<b>ENVE-VI/027 Ingurumenaren gainean jarduteko zortzigarren programarantz</b>	5	5	5
<b>NAT-VI/041 EBko baso-estrategiaren ezarpena</b>	6	5	5
<b>ECON-VI/042 Toki-oinarriko ikuspegia, EBko industria-politikarako</b>	9	9	9
<b>ECON-VI/045 EBko zerga-politikaren gainean erabakiak modu eraginkor eta demokratikoagoan hartzeko bidean</b>	1	1	1
<b>COTER-VI/051 Makroeskualdeko estrategiak, Danubioko eskualdeko adibidearen arabera: nazioarteko enpresa-taldeei laguntzeko esparrua</b>	1	1	1
<b>NAT-VI/038 Itsas industriaren garapena bizkortzeko agenda europar berria</b>	6	6	6

ENVE-VI/038 Maila anitzeko gobernantza eta sektorearteko lankidetzak, pobrezia energetikoari aurre egiteko	2	0	0
NAT VI-037: Zahartze aktiboa eta osasungarria	3	3	2
ENVE-VI/039 Europa jasagarria hemendik 2030era: Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuen, trantsizio ekologikoaren eta Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioaren jarraipena	11	7	7
CIVEX-VI/041 Legeak hobeto egin: balantzan eginez eta gure konpromisoa berretsiz	1	1	1
RESOL-VI/037 2019ko Seiheleko Europarra, 2020rako Hazkundera buruzko Etorbizuneko Urteko Azterketari begira	1	1	1
ENVE-VI/044 Hiri adimentsuak: klima-neutraltasunera bidezko trantsizioa egiteko erronka berriak. Nola bete Garapen Iraunkorreko Helburuak bizitza errealean?	7	7	7
SEDEC-VI/050 Guztiontzako Europa digital bat: tokian bertan irtenbide adimentsu eta integratzaileak sustatzea	2	2	2
COTER-VI/054: Trenbideen sektorearen ahalmena, EBko lehentasun politikoak aplikatzeko	8	7	7
ENVE-VI/042: Alkateen ituna 2020 ostean	9	5	4
SEDEC-VI/051: Plataforma digitaletako lana: toki- eta eskualde-mailako erronka arauemaileak	5	5	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>84</b>	<b>71</b>	<b>69</b>

**3. ERANSKINA.**

**BESTE KIDE BATZUEK LANDUTAKO ETA ESKUALDEETAKO KOMITEAN EUSKADIREKIN BATERA AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

<b>Zuzenketaren sustatzailea</b>	<b>Aztertutako zuzenketen kopurua</b>	<b>Babestutako zuzenketen kopurua</b>
<b>Andaluzia</b>	21	21
<b>Aragoi</b>	8	6
<b>Asturias</b>	3	3
<b>Balearrak</b>	17	9
<b>Kanariak</b>	27	25
<b>Gaztela-Mantxa</b>	6	6
<b>Gaztela eta Leon</b>	6	6
<b>Katalunia</b>	1	1
<b>Extremadura</b>	2	2
<b>Galizia</b>	13	13
<b>Errioxa</b>	27	25
<b>Madril</b>	20	10

## *Informe actividades SGAE ante la UE*

---

<b>Murtzia</b>	0	0
<b>Nafarroa</b>	0	0
<b>Valentzia</b>	4	4
<b>ALDE talde politikoa</b>	37	19
<b>GUZTIRA</b>	<b>191</b>	<b>152</b>

#### **4. ERANSKINA**

##### **EUSKADIK PARTE HARTU DUEN EUROPAR BATASUNeko EKONOMIA ETA FINANTZA GAIEN KONTSEILUKO (ECOFIN) LANTALDEEN BILERAK**

1. D4 taldearen (zerga-gaiak) bilerak, zeharkako zergen eta zuzeneko zergen arabera banakatuta:

- Zuzeneko zergak: zerga digitalak, sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri komuna.
- Zeharkako zergak: merkataritza elektronikoaren BEZa, BEZaren iruzurraren aurkako borroka.

Honako egunetako bileretara bertaratu da: urtarrilak 9, 10, 15, 17 eta 29; otsailak 20 eta 21; martxoak 20; ekainak 20; eta azaroak 25. Guztira, 10 bilera.

2. D5 taldea, Jokabide Kodea, enpresen fiskalitateari eta haren azpitaldeei buruzkoa:

- Jokabide Kodea, enpresen fiskalitateari buruzkoa.
- Jokabide Kodearen azpitaldeak

Honako egunetako bileretara bertaratu da: apirilak 11; maiatzak 6; irailak 4 eta 13; eta urriak 24. Guztira, 5 bilera.



## **5. ERANSKINA**

### **POLITIKA PUBLIKOEN HAINBAT ARLOTAKO EKITALDIAK ETA BILERAK**

- ERRIN sareko RIS3 lantaldeak (Smart Specialisation) –Euskadi da bertako kide, Helsinki Eskualdearekin eta Hegoaldeko Eskualdearekin (Provence-Alpes Côté d'Azur) batera–, hiru bilera antolatu zituen 2019an zehar. Horietan, Batzorde eta eskualde europarretako partaideek parte hartu zuten, hurrengo programazio-aldirako RIS 2.0ri eta berrikuntzarako eskualdearteko inbertsio-tresna berriari buruz hitz egiteko.
- Urtarrilak 16 eta irailak 13: Partaidetza telematikoa Fabrikazio Aurreratuko Nazioarteko Lantaldearen bileran, Innobasque buru.
- Urtarrilak 16: bilera REPER suediarrean, Europaren etorkizuneko lurralde-lankidetzari buruz.
- Urtarrilak 17: Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziako Migrazioaren Task Forcearen bilera.
- Urtarrilak 23, apirilak 24 eta ekainak 19: Vanguard Initiative “ADMA Energy” proiektu pilotuaren bilera, Euskadi eta Eskozia buru.
- Otsailak 5: EARLALL sarearekin (Eusko Jaurlaritza buru) lankidetzeta estuan, EAEko Lanbide Heziketaren kasuaren aurkezpena. Europako Batzordeari LHrako agenda europarraren lan-lerroetan orientabideak ematen dizkion kontsulta-organoa da lantaldea.
- Otsailak 7: Europako Batzordeko CHAFEA agentziaren nekazaritza-produktuen sustapenari buruzko informazio-jardunaldia.
- Otsailak 14, apirilak 9, irailak 30 eta azaroak 19: aldizkako jarraipen-bilerak Mondragon Korporazioaren Bruselako bulegoko arduradunarekin.
- Otsailak 14: Bilera Thyssen komisarioaren kabinetean, EAEko lanbide-heziketaren V. Plana aurkezteko, Kasia Jurcjak-ekin
- Otsailak 15: Ikuspegi trukea Jeanette Baljeu-rekin, Eskualdeetako Komiteko hizlariarekin, eskualde eta tokiko erakundeek Europako etorkizuneko industria-politikan duten zereginari buruz.
- Otsailak 20, apirilak 8 eta irailak 17: Vanguard Initiative sareko kideen bilera Bruselan.
- Otsailak 21: Merkataritza-praktika ez-leialen eta horiek esnearen sektorean duten eraginaren goi-bilkura, Nordrhein-Westfaliako ordezkariak antolatuta.
- Otsailak 26: Errefuxiatuen babes komunitarioari buruzko esperientziak trukatzeko bilera. Errefuxiatuen babesari buruzko bilerara bertaratzea, kontuan hartuta Europako erkidegoa, Kanadako EBn duen misioa, eta GRSI esparrua (Global Refugee Sponsorship Initiative, Kanadako Gobernuak eta ACNURek sustatua). Euskadik ere esku hartzen du ekimen horretan.
- Otsailak 26: Europako Parlamentuak antolatutako mintegia, industriaren eraldaketari buruz, Bilboko Udalaren ordezkari baten partaidetzarekin.
- Martxoak 5: Klusterren politikari buruzko bilera, Lituaniako REPER-ek antolatuta.

- Martxoak 6: CIC Energiguneko arduradunekin bilera, bere plan estrategikoak Europan duen posizioaren gainean.
- Martxoak 6: 720 ereduari buruzko bilera. Bilera horretara joan da, Espainiako Merkataritza Ganberan, atzerrira lekualdatu diren pertsonen Espainian dituzten zerga-betebeharrei buruz eta, bereziki, 720 ereduari buruz aritzeko (atzerrian kokatutako eskubide eta ondasunen gaineko informazio-betebeharra).
- Martxoak 6: Errumaniako Ordezkaritza Iraunkorreko Hezkuntzako sailburuarekin bilera, presidentziaren seihilekoko hezkuntza-agendan eskualde-dimentsioa azpimarratzeko eta EARLALL-ek sustatutako ekimenak eta Euskadiren hezkuntza-politika aurkezteko.
- Martxoak 12: ERRINek antolatutako bilera, eskualdeko berrikuntza-ekosistemei buruz.
- Martxoak 13: Itsasoko energia berriztagarrien lankidetzaren esparruen bilera, Europako Batzordeko hainbat zerbitzuekin (RTD ZN, REGIO ZN, JRC ZN, ENER ZN, GROW ZN)
- Martxoak 15 eta ekainak 21: ERLAiko kideen bilerak (asiloari eta migrazioari buruzko eskualde europarren sarea). Martxoaren 15eko bileran, Europako Batzordeko ordezkariekin etorkizuneari buruzko bilera bat antolatzeko aukera jorratu zen. Ekainaren 21eko bileran, Asilo, Migrazio eta Integrazio Funtzaren proposamenen etorkizuneko deialdia egiteko aukera jorratu zen, 2019ko uztailaren amaieran argitaratzeko.
- Martxoak 18: Europako Batzordearen REGIO ZNrekin bilera, EGEF tresna berria proposatzeko, berrikuntzaren gainean eskualdearteko inbertsioak sustatze aldera.
- Martxoak 20 eta 21: lan-misio bat egin zen Bartzelonara, Eusko Jaurlaritzak Interreg Europe “S34GROWTH” proiektuan duen partaidetzaren esparruan. Misioaren helburuak honako hauek ziren: Kataluniako berrikuntzaren ekosistema aurrez aurre ezagutzea eta gure lurraldeetako agenteen artean konexio-maila altuagoa ahalbidetzen duten tresnak elkarlanean diseinatzeko oinarriak jartzea.
- Martxoak 25 eta irailak 10: bilerak Anne Marie Sassenekin, DNECT ZNko unitate erantsiko buru eta Digital Innovation Hubs-en arduradunarekin, eskualdeek Digital Europe deritzon etorkizuneko programan duten partaidetzari buruz.
- Martxoak 27 eta 28: Europako Batzordearen JRC ZNko Agrifood espezializazio adimentsuko plataformaren bilera eta ERIAFFen urteko konferentzia, Toscanako berrikuntzaren eta landa-garapenaren astearren barruan.
- Martxoak 13: Eskualde Euromenditarreko Zuzendaritza Komitearen bilera.
- Martxoak 28: REPEReko Industriako sailburuen bilera, autonomia-erkidegoek Bruselan dituzten bulegoetako teknikariekin.
- Apirilak 4: “Itsasoko Energia Berriztagarriak” RIS 3 lankidetzaren esparruaren bilera, Bilbon, Wind Europe Conference esparruan.
- Apirilak 3: Autonomia-erkidegoetako bulegoen bilera Batzordearekin (Enplegua ZN), Europako Gizarte Funtzari buruz.

- Apirilak 4: Bilera REPERen Immigrazioko sailburuekin, EBko Justizia eta Barne Ministroen Kontseiluan lantzen ari diren lege-espeditenteei buruzko informazioa emateko eta autonomia-erkidegoetako migratzaileen egoerari buruzko informazioa trukatzeko.
- Apirilak 9: Nekazaritzaren etorkizunari buruzko foruma.
- Apirilak 10: Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziako garraioen lantaldearen bilera.
- Apirilak 11: Kultura- eta sormen-industriek EBn duten zereginari eta etorkizuneko erronkei buruzko mahai-ingurua, Bruselako Ordezkaritzak antolatua Europako Batzordearekin eta Think-Tank Science Businessekin batera.
- Apirilak 24: Eskoziak Bruselan duen bulegoan aurkeztea itsasoko energia berriztagarrien arloan korrosioa saihesteko frogaproiektuen emaitzak.
- Maiatzak 7-9: EAEko enpresei laguntza, Sea Food 2019 azokan.
- Maiatzak 7: Bilera Kataluniako Ordezkaritzak Bruselan dituen ordezkariekin eta Accióko ordezkariekin, Vanguard Initiative-n eremuan RIS 3 inbertsioetarako eskualde anitzeko funtsa sortzeko aukera aztertze aldera.
- Maiatzak 15: Landa Garapeneko Sare Europarraren bioekonomiaren lantaldearen bilera.
- Maiatzak 15: Bilera ASLErekin (Euskadiko Lan Sozietateak), EBn euskal kooperatibismoa eta lan-sozietateak sustatzeko egin daitezkeen ekintzak jorratzeko, batez ere.
- Maiatzak 15: "Digital Europe for all" ekimenari buruz Eskualdeetako Komiteak antolatutako audientzia publikoan parte hartzea.
- Ekainak 5 eta 6: Euskadin antolatutako LH kongresua, LHko Sailburuordetzaren koordinazio pean, bertan parte hartu zutelarik erakunde europarretako eta Europako hezkuntzaren sektoreko ordezkariak.
- Ekainak 14: ERRINek antolatutako bilera, Europako Batzordeko Ikerketa Zentro Komunari buruz.
- Ekainak 17: Zahartze Aktiboko 2018ko Indizearen aurkezpena (Active Ageing Index - AAI), azken urteetan jasotako datuekin.
- Ekainak 18: MOVE ZNko Korridore Atlantikoko 13. Foroan parte hartzea, Mikel Gurutzeagarekin (Garraio Azpiegituren zuzendaria).
- Ekainak 18: Vanguard Initiative sareko zuzendarien bileran parte hartzea.
- Ekainak 20: Bilera REPER-en, Enplegu eta Gizarte Politikako sailburuekin, EBko Enplegu eta Gizarte Politikako ministroek ekainaren 13an egindako azken kontseiluari buruz.
- Ekainak 21: ERRIN-ek antolatutako bilera, Ulla Engelmannekin (klusterren politikaren arduraduna, GROW ZNko unitate-burua).
- Ekainak 24: Kultura Sailaren esku-hartzea, "Euskal Esparru Sortzailea" euskal estrategia aurkezteko, RICC/Regional Initiative for Culture and Creativity sare europarrak sustatutako konferentzia europarrean.

- Ekainak 25: bioekonomia urdinaren euskal esperientziaren aurkezpena Blue Bioeconomy Forumean, MARE ZNk antolatuta, Europako Batzordea egiten ari den ibilbide-orrira begira.
- Ekainak 25: Europako Batzordeko Berrikuntzaren Europako Agentziaren lan-saioa Euskadin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Europako unibertsitateekin batera, berrikuntzaren adierazleak, RIS3 eta goi-mailako hezkuntza hizpide.
- Uztailak 1: Europako Batzordearen eta eskualde desberdinetako Digital Innovation Hubsen arduradunen arteko zazpigarren bileran parte hartzea, Digital Europe programaren bidezko etorkizuneko finantziazio-aukera posibleei buruz.
- Uztailak 3: Landa Garapeneko Sare Europarraren bioekonomiaren lantaldearen bilera, landa-inguruko aukerei buruz.
- Uztailak 5: H2020 “ICT Innovation for Manufacturing SMEs (I4MS)” proiektuak antolatutako bilera hainbat eskualde europarrekin, lankidetzak-akordioa sinatzeko.
- Uztailak 17 eta azaroak 5: Bilerak REPERen Merkataritzako sailburuekin, EBko merkataritza-negoiazioei buruz (Mexiko, Txile, Australia, Zelanda Berria, Mercosur, AEB, Txina eta abar).
- Uztailak 23: SOST–CDTIk antolatutako bilera, Institute of Technology (EIT) eta berrikuntzaren agenda estrategiko berria hizpide.
- Uztailak 31: Euskal LH, LHko Bikaintasuneko eredu europar onena hautatua. TKNIKAREN "EXAM 4.0" proiektu europarra, Industria 4.0. eremuko bazkide europarrekin batera.
- Iraila: Europako beste poeta batzuekin batera, eta Eleaniztasunaren Europako Egunaren esparruan, Luis Garde poetak Transpoesie ekimen europarrean parte hartzea.
- Irailak 4: Vanguard Initiative-ko “eragin politikoaren” lantaldearen bilera.
- Irailak 6: Bilera Miguel Gil-Terre-rekin, Europako Batzordeko Idazkaritza Nagusiko Unitateko buruarekin, egiturazko eta inbertsioko funtsen artean egon daitezkeen sinergiaren gainean.
- Irailak 10: Ekitaldia Eskualdeetako Komitean, Cárpatoseko Eskualderako makroeskualde-estrategiari buruz.
- Irailak 17: Ihobek eta EBrako Euskadiko Ordezkaritzak Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziaren Task Force Klimaren bileran parte hartzea. Bertan, eskualdeek Energia eta Klimako Plan Nazionalen proiektuetan duten partaidetza eta Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziak klima-aldaketaren gainean duen posizioa aztertu ziren, urrian egitekoa zen Biltzar Nagusiari begira.
- Irailak 18: Bilera REPER-en Merkataritzako sailburuekin. Gai hauek jorratu ziren: MMA Munduko Merkataritza Antolakundean izandako ika-mika Airbus eta Boeing-entzako diru-laguntzen zioz, EB-Mercosur merkataritza-akordioa, eta Europako Batzorde berriaren lehentasunak, besteak beste.
- Irailak 19: Bilera ETPOAren (European Trade Promotion Organisations Association), ETPOAren kideak eta egitura ezagutzeko eta Basque Trade & Investment Elkartera atxikitzeko erraztasunak jartzeko.

- Irailak 24: Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziako garraioen lantaldearen bilera.
- Irailak 26 eta 27: Hezkuntza-politikaren posizioa eta ikusgarritasuna (LH eta euskal unibertsitate-sistema) Europako Batzordearen “2019ko hezkuntza-monitorearen” urteko txostenean.
- Zinemaldia jaialdia: Zinemaren Foru Europarra, Europako Batzordeak antolatuta, eta zinemaren industriako profesional europarrekin osatutako agenda.
- Irailak 30: EBrako Euskadiko ordezkariak Energiaren Euskal Erakundeari laguntzea Oceans Energy Europeen urteko konferentzian, Dublinen. Bertan, gaiaren gainean Euskadin egindako jarduketak erakutsi ziren, Euskadiren posizioa ezartzeko.
- Urriak 1: “Smart investments for smart communities” azterketaren aurkezpena, CNECT ZNk antolatuta, Europa Konektatu Mekanismo (Digital) berriari buruz. Azken horrek gaitasun oso altuko eta 5G-ko azpiegituran inbertsioak finantzatuko ditu.
- 2019ko urriak 2: Zibersegurtasunari buruzko RIS3 lankidetzaren esparruaren bilera (Basque Cybersecurity Center ordezkatzuz).
- Urriak 4: Europako Batzordeko TAFek (Technical Assistance Facility) antolatutako mintegiko partaidetza, RIS3 lankidetzaren esparruetatik ateratako eskualdearteko inbertsio-proiektuen negozio-ereduei buruz.
- Urriak 8: Euskadik azpiegitura teknologikoen gaian duen esperientziaren aurkezpena, Skaneren bulegoan, Bruselan.
- Urriak 10: Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin bilera. EB Social Progress Index jorratzea zen bileraren helburua, Orkestra bertako partaide izanik.
- Urriak 14tik 18ra: Lanbide Heziketaren Europako Astea, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako zuzendariaren eta TKNiKako ordezkarien esku-hartzearekin, Helsinkin ospatutako topaketa eta foro desberdinetan.
- Urriak 16: Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziako Migrazioaren Task Forcearen bilera. Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziaren Biltzar Orokorren esparruan, Palermon (Sizilia, Italia), Euskadiko migrazioari buruzko SHARE proposamena aurkeztu zen.
- Urriak 16: ERRIN sarearen bilera, hidrogeno-energiaren aplikazioetako oztopoetarako irtenbideei buruz.
- Urriak 17: MOVE ZNko Korridore Atlantikoko hiri-nodoetako lantaldean parte hartzea, Lisboan.
- Urriak 18: Europako Batzordeko Kultura eta Sormena monitorearen aurkezpena, Euskadiren adibidea eta bere estrategia nabarmenduz, kultura- eta sormen-industrien gainean eta Europako berrikuntza-agendarekiko (RIS3) loturaren gainean.
- Urriak 21: errefuxiatuak birfinkatzeko sare europarrak antolatutako konferentziara bertaratzea. Bertan, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak parte hartu zuen.

- Urriak 22: ERRIN sarearen ekitaldia, European Strategic Energy Technology Plan (SET Plan) delakoari buruz.
- Urriak 23: Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen ekitaldia, justiziari eta klima-anbizioari buruz.
- Urriak 23 eta 24: Interreg Europe “S34GROWTH” proiektuko zuzendaritza-komitearen bilera eta azken konferentzia, Tampere (Finlandia).
- Urriak 25: REPERen bilera Enplegu eta Gizarte Politikako EBko Ministroen urriaren 24ko Kontseiluaren emaitzei buruz.
- Azaroak 6: Bilera REPERen migrazioari buruz, Barneko, Kanpo Gaietako eta Lankidetzako sailburuarekin eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarekin, EBko Justizia eta Barne Ministroen Kontseiluan jorratzen ari diren migrazioari buruzko lege-espeditenteen berri emateko.
- Azaroak 4: ERRIN sarearen bilera, Horizon Europeko lankidetz-esparru europarrei eta RIS3 lankidetz-esparru europarrei buruz, espezializazio adimentsuko gaikako plataformen pean.
- Azaroak 6: Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, eta Espainiako banku publikoek egindako txostenaren aurkezpenaren parte hartzea, Europako enpresa txiki eta ertainei digitalizazioak eragiten dizkien erronkei eta horiek lehiakortasunean duten eraginari buruz.
- Azaroak 7: Bilera Sven Kastorekin, Småland Blekinge Halland South Sweden-en Bruselako Ordezkaritzako zuzendariarekin, etorkizuneko lan-misioa prestatzeko Euskadiri, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Eskualde Kontseiluko ordezkarien bidez.
- Azaroak 13: EBko baso-berrikuntzari buruzko konferentzia.
- Azaroak 15: “Smart Regions 3.0” konferentziako parte-hartzea, Europako Batzordeak antolatua, eta RIS3 lankidetz-esparruaren barruan (Itsasoko Energia Berriztagarriak) garatutako inbertsio-proiektuaren saio paraleloaren aurkezpena.
- Azaroak 18: Administrazio eta Zerbitzu Orokorrren Sailburuordetzarekiko gaikako bilera, IZENPE, ITELAZPI eta EJIeko hainbat zuzendarirekin batera, Bruselan, arloetako bakoitzean egindako dossier estrategiko nagusien berri emateko.
- Azaroak 19: ERRIN sareko bioekonomiaren, energiaren eta klima-aldaketaren lantaldearen bilera, nekazaritzako elikagaien hondarren aukerei buruz aritzeko.
- Azaroak 19: MOVE ZNko Korridore Atlantikoko 14. Foroan parte hartzea, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren zuzendariarekin batera.
- Azaroak 19: Bilera Emakunderekin, Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentzian generoaren Task Forcea sortzeko hurrengo urratsak lantzeko, Emakunde buru.
- Azaroak 20: Eskualde Euromenditarraren tailerra, *“Rethinking territorial balances between urban and rural areas in the European Mountains: How can innovations support win-win solutions?”* hizpide, Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren partaidetzarekin.

- Azaroak 21: Vanguard Ekimenaren urteko bilera politikoa (AnnualPolitical Meeting).
- Azaroak 27: Interreg Learning Platformek antolatutako ekitaldia, enpresen eraldaketa digitalari babes publikoa emateko praktika onenei buruz.
- Azaroak 28: Eskualdeetako Komiteak antolatutako etorkizuneko politika digital europarrari buruzko eztabaidako parte hartzea.
- Abenduak 4: Bio-based Industries JointUndertaking-en elkarte publiko-pribatuaren interes-taldeen foroa.
- Abenduak 10 eta 11: EBko nekazaritzaren ikuspegiei buruzko konferentzia.
- Abenduak 11: Landa Garapeneko Sare Europarraren bioekonomiaren lantaldearen bilera, landa-guneetako ekintza klimatikoari eta bioekonomiari buruz.
- Abenduak 12: REPERen bilera Enplegu eta Gizarte Politikako EBko Ministroen Kontseiluaren emaitzei buruz, abenduaren 10ean, eta seihileko koordinazioa Errioxatik Euskadira eskualdatzeko, Euskadik baitu ordezkartza 2020ko lehen seihilekoan.
- Abenduak 12: Lehen bilera, Euskadi buru, Arku Atlantikoko Batzordeko gainerako eskualdeekin batera, Makroeskualde Atlantikoaren aukera aztertzeko Tasc Forcea abiarazte aldera.
- Abenduak 17: Autonomia-erkidegoetako bulegoen bilera, Bruselan, Europako Batzordeko REGIO ZNko taldearekin, hots, autonomia-erkidegoetako EGEF programa operatiboan arduradunarekin (Espainia/Portugal unitatea).



## **6. ERANSKINA**

### **2019AN ZEHAR EUSKADITIK ETA EUSKADIREKIN LANDU DIREN SARE NAGUSIAK**

- ERLAI: Asiloaren eta Immigrazioaren gaineko Europako Toki eta Eskualde Agintaritzak
- Zahartze Aktibo eta Osasungarrian Berrikuntzan aritzeko Elkarte Europarra
- Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentzia: Migrazioa kudeatzeko lantaldea; berdintasuneko lantaldea; kohesioko lantaldea; klima-aldaketari buruzko Task Forcea; arrantzaren lantaldea; garraioaren lantaldea. Era berean, Arku Atlantikora atxikitako lantaldeetako partaidetza, besteak beste Espezializazio, Berrikuntza, Kultura eta Turismoko lantaldean
- Abangoardiako Ekimena, gaur egun Europako 36 eskualde industrializatu batzen dituen. Euskadik 3 lantaldetan parte hartzen du: Eragin Politikoa, Komunikazioa, eta Ekintza pilotuen ikuskapena
- European Cyber Security Organisation
- CORAL (Community of Regions for Assisted Living)
- ERRIN (European Regions for Research and Innovation). Euskadi da RIS3ko lantaldearen liderra, beste batzuekin batera. Halaber, Sormenaren eta Diseinuaren lantaldean eta Kultura Ondarearen eta Turismoaren lantaldearen parte hartzen du
- ERIAFF sarea (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry), nekazaritzaren, elikaduraren eta baso-gaien arloan berritzaileak diren eskualde europarrak batzen dituen
- Sare EUROMENDITARRA, mendi-inguruetarako elkarte europarra, Euskadi duena presidente
- Itsasoko Eskualde Periferikoen Konferentziako Garraio, Berrikuntza, Estrategia Atlantiko, Arrantza, Turismo, eta Itsas Energia Berriztagarrien lantaldeak
- Jatorrizko produktuen Europako eskualdeen elkargoa (AREPO)
- Munduko Merkataritza Antolakundeko Eskualde Libreen Sarea
- REGAL (Gastronomiaren eta Elikaduraren aldeko Eskualdeak)
- RICC sarea (Regional Initiative for Culture and Creativity). Euskadi da, beste batzuekin batera, sareko liderra, eta, bertan, kultura- eta sormen-industrien eremuko eta RIS3ko 26 eskualde europar biltzen dira
- NPLD sarea/Network to Promote the Linguistic Diversity: bai Eusko Jaurlaritza bai Bizkaiko Foru Aldundia sarearen parte dira
- EARLALL sarea/ European Association of Regional and Local Authorities for Lifelong Learning. Eusko Jaurlaritzako LHko Sailburuordetza da sareko buru
- NECSTOUR (Network of European Regions for a Sustainable and Competitive Tourism) sarea
- EUNIC sarea: EBko Kultura Institutu Nazionalak batzen dituen sarea. Etxepare Institutua EUNIC Brusela klusterreko kidea da
- EAFA: Ikaskuntzarako Europako Aliantza

- PLATFORMA: Lankidetzaren deszentralizatuaren eremuko toki- eta eskualde-agintaritzen plataforma europarra. Bai Euskal Fondoa bai Lankidetzaren Euskal Agentzia bertako kide dira